

Euskal Antzerki

1980

59

TORIBIO ALTZAGA

SARIA

Jose Antonio Arkotxa Martija
"JOXE-MARTARRAK"

Junes Casaneve Harigile
"PETTE BASABÜRÜ"

Joanes Urkijo Beitia
"ETA BEHARBADA ISPILU BELTZ BAT"



REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
EUSKALTZAINDIA
ACADEMIE ROYALE DE LA LANGUE BASQUE



BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA
KULTUR EKINTZA



TORIBIO ALTZAGA

Saria 1980





TORIBIO ALTZAGA

SARIA 1980



Jose Antonio Arkotxa Martija

”JOXE-MARITARRAK”

Junes Casaneve Harigile

”PETTE BASABÜRÜ”

Joanes Urkijo Beitia

”ETA BEHARBADA ISPILU BELTZ BAT”



REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA

EUSKALTZAINDIA

ACADEMIE ROYALE DE LA LANGUE BASQUE



© BIZKAIKO AURRESKI KUTZA
España'ko Emparantza, 1
BILBAO-1

Inprimatzaile: La Editorial Vizcaína, S. A.
Carretera Bilbao a Galdácano, 20
Bolueta — Bilbao-4

Jose Antonio Arkotxa Martija

”JOXE-MARITARRAK”

JOKO LAGUNAK

Mari-Koro	22 urteko neskatila gaztea
Don Maxiano	Mari-Koron aita
Joxe	Mari-Koron aitona, amaldekkoa
Manu	25 urteko mutil gaztea
Kontxexi	Manuren ama
Don Zakarias	65 urteko apaiza
Xarlo	Frantzes gudaria, kapitan gaztea
Mitzel	65 urteko «frantzesau» bat
Xiztorra	Herriko erdi arlotea
Dama Justa	} 60 urteko neska zaharrak
Dama Kleta	
Dama Txela	
Prantzes gudariaak	
Herriko jendea	

GERTAKIZUNA

Donostian 1.808 garren urteko udaberrian.

Jantzi, dekorazio eta gainerakoak aldiari egiaren antza emango diotenak.

LEHEN GERTAKIZUNA

Agertokiak Donostiako «Portaleta» kalea.

Ezker aldean, Dn. Maxianoren etxe-ertza eta hartarako atea.

Eskuian, Frantzes gudarien agintaritzako etxea. Atearen gainaldean frantzes bandera agerian dela.

Atzean, «Portaleta» arkopetik edo atetik kaian diren untziak beren haizeoialak zabalik dituztela ikusiko dira.

Ezker eta eskui aldetara, kalea.

LEHENENGO EKITALDIA

I

JOXE BAKARRIK

Oihala, jasotzean, Joxe, itsas-gizon zaharra, untxi agintaritzako txapela eskuetan duela, haizebea eginaz, bere pipa piztutzen ari da.

Urrundik hurbilduaz datorren danbor-hotsa entzungo da—«Tan tarran...tapatatan! Tan tarran. Tapata tan!... Horrelatsu beti.

Sei prantzes gudari igaroko dira antzestokian alde batetik bestera, danbor hotsaren batean oinkadak emanaz. Bi aurretik danbor jotzen eta lau ondoren armak bizkarrean dituztela.

Une berean hiru emakumezkoek jotzen dizkieten txaloak entzungo dira.

JOXE.—(Bere aurretik gudariak igaro eta gero, amurruz)—Prantzes madarikatuok!! (Txu! albora bo-teaz eta danborrak eraman duten hotsa eginaz)—Tan tarran tapatatan. Tan tarran... tapatatan!! Harro zabilzate, harro. Baina helduko duk eguna. Laster heldu ere. Zalapartaka hanka egin beharko duzuten. Bai, horixe! Donostia honetan, «Joxe-maritarrak», bizi gaituk oraindik. Sekula baino biziago bizi ere. Hiru neskazahar horiek txalo egin dizuetela eta ez uste izan Donostia zuena duzutenik.

II

JOXE eta MARI-KORO

- M. KORO (Elizatik dator: Egoki jantzia burueztaliz eta liburu-errosarioak eskuetan dituela. Joxegana hurbilduz).—Egun on, aitona! Haserre?
- JOXE (Berean jarraituz).—Neska zahar madarikatuok! Txalo joka oraindik. Txalo joka!
- M. KORO.—Nongo neskazaharreatatik ari zara, aitona?
- JOXE.—Esan beharrik bai, esan beharrik? Horko «prantzesatuengatik».
- M. KORO.—Dama Justa eta besteengatik? Ez da egia izango?
- JOXE.—Damak horiek?
- M. KORO.—Bai, aitona; dama alargunak.
- JOXE.—Noiz alargunduta? Eta noiz ezkunduta? Errenderian bizi izan ziranean. Dendari bizi izan ziranean?
- M. KORO.—Nik ez dakit baina...
- JOXE.—Nik orde, bazekinat. Ongi asko jakin ere. Egunaz dendan eta gaez prantzes mostatxadunekin parrandan ibiltzen itunan. Eta gero honera bizitzera etorri alargundu egin zirela eta. Zergatik ez itunak Frantziara joan?
- M. KORO.—Hemen ere nahiko prantzes dira horiek.
- JOXE.—Nahiko eta geiegi ere bai. Eta horiek bakarrik ez ditun. Gu prantzes egin nahai gaituztenak ere baditun.
- M. KORO.—Hain asko ez dira orain: lehen gehiago zirela esaten da.
- JOXE.—Gu prantzes egitea nahi. Ederki eman ere! Eta gure kondaira? Non gure izatea? Lehengo espaniarrak garela diote eta?
- M. KORO.—Lehenengo espaniarrak gu?

JOXE.—Bai, enetxoa! Dakitenak horrela diote: euskaldunak garela Españaiko iberotarren oinordekoak. Eta gure hizkuntza, euskara, gaur Espanian bizi den hizkuntzarik zaharrena.

M. KORO.—Ez nekien...

JOXE.—Ez beste hor dabiltzan askok ere. Zer dakite «prantzesatu» horiek euskaldunon berri? Colonen untzian joan ziren asko euskaldunak ziren. Magallanesen bigarren untzian buru joan zena, Juan Elorriaga. Munduari lehenengo aldiz buelta emandakoa, Elkano. Eta zer dakite beste hainbeste eta hainbeste euskaldun ospetsuk gure kondairan zehar egin zutenaz? Adibidez: Okendo batek; Blas Lezoko batek; Legazpik, Urdanetak, Frai Zumarragak eta abarrek eta abarrek?

M. KORO.—Eta Kosme Damian Txurruka ahaztu gabe.

JOXE.—Hori ba, hori: Oraindik iraintsuko dinagu Txurruka hori. Mutrikuar jatorra, inor jatorrik bada.

M. KORO.—Eta Loidako Iñazio?

JOXE.—Kastillaren alde gerran zauritua: Eta gero, «prantzesatu» batzuek nahi dutelako gu prantzes bihurtzea nahi.

M. KORO.—Ez dut uste. Lehengo gerratean, bai, asko omen ziren hori nahi zutenak, baina, orain.

JOXE.—Orain ere... Orain ere... Ez zekinat, gauza garbirik bai ote den. Portugal alderako asmoz sartu itunan hemen Napoleonen gudari hauek; baina, bildur hartzekoa dinagu horien hemengo jokera.

M. KORO.—Aitona! Zure bildur hori beste batzuek ere badutela esango nuke.

JOXE.—Zerbait entzun al dun?

M. KORO.—Entzun edo, ikusi edo..., San Bizenteko sakristira joan direnak zerbaitek bildur ba zirela nik uste. Morroiloz elizako ate guztiak itxi dituzte gu barnean garela.

JOXE.—Ez dun egia izango? Eta nortzuk itunan?
 M. KORO.—Herrian zerbait aginpide dutenak ziren gehienak. Eta herbestekoen batzuk ere ba zirela egingo nuke.
 JOXE.—Bai, bai, bai... Hemen ba zeon zerbait: Prantzes hauek gure herrian jaun eta jabe egin ditun. Gu konturatu baino lehen jabetu ere.
 M. KORO.—Horrenbesteraino bai?
 JOXE.—Bai, Mari-Koro, bai. Harro dabitx horiek.

III

JOXE, MARI-KORO ETA ZIZTORRA

(Ziztorra lasterka pasatzek ikustean)

JOXE.—Ziztorra!!! Ziztorra!!!
 ZIZTO (Deiari erantzunak).—Bai...!! (Itxultzen da eta asnasa hartu ezinez).
 JOXE.—Nora hoa horren larri?
 ZIZTO.—Nora?
 KORO.—Zerbait gertatzen al da?
 ZIZTO.—Zerbait?
 JOXE.—Bai, ea zerbait pasatzen den.
 ZIZTO.—Bai, prantzesak.
 JOXE.—Prantzesak, zer?
 M. KORO.—Zerbait egin al dute? Ezaiguzu aguro.
 ZIZTO.—Arnasa hartzen utzi nauzute lehenik.
 M. KORO.—Bai, bai, bai. Har asnasa. Baina jakin nahi genuke eta... ba dakizu...
 ZIZTO.—Kaian dauden untzi guztiak arakatu, errekitatu dituzte prantzes gudariak.
 KORO.—Zergatik?

- JOXE.—Galdetu beharra? Beraiei gogoak eman ditelako. Jaun eta jabe egin direlako gure herrian. (Amurruz) Prantzes madarikatuok!!
- M. KORO.—Ez dakigu egia osorik eta ez beza horren erres uste txarrik egin. Eta zer besrik?
- ZIZTO.—Gehiago nahi duzu, gahiago oraindik? «Izarra»ko Manuri bizia kendu ez beste guzia egin diote.
- M. KORO (Larriturik).—Zer? Zer diozu? «Izarrako» Manu jo egin dutela? Esan, esanguzu. Zergatik?
- ZIZTO.—Multil gizajoari egin diotena egiteko ez dute eskubiderik. Txikotaz, sekulako Kristoren jipoia eman diote.
- M. KORO.—Manu gizajoa (Erdi negarrea). Manu gizajoa!
- ZIZTO.—Untziko paloari lotua daukate.
- JOXE.—Ziztorra! Parolik egiten ez adihasi gero!
- M. KORO.—Bai, aitona, bai. Egia dio honek.
- ZIZTO.—Egi-egia, Joxe! Horrengatik nindoan estu-estuka, «Izarra»koei jakiaraztera.
- M. KORO.—Oso ongi, Ziztorra; oso ongi. Zoaz, bai, zoaz lehenbaitlehen. (Txanpok batzuk atera eta Ziztorrari ematen dizkio) To! Zuretzat.
- ZIZTO.—Eskerrik asko. (Joaten da)

IV

JOXE ETA MARI-KORO

- M. KORO (Oldozkor eta triste).—Manu gizajoa! Zergatik baina zuri? Zer egin diezu?
- JOXE.—Ezer ez egin hark; ezer ez.
- M. KORO.—Eta hala ere hori da egin diotena! Caracastik honera etortzen, hainbeste egun eta gau, hain-

beste itsaso beltz eta arrixku igaro bere Donostia honetara etortzen eta... Poz-pozez bere herri maite honetara heldu... Mutil gizajoari hori egin!!! Zer dela eta jo behar zuten? Zergatik? Atzo, heldu bezain laster, Ama Korokoari ikustaldia egitera joan zen mutilari hori egin?

JOXE.—Mari-Koro! Ez hadi horrela jarri. Behar bada, Ziztorrak, esandako guzia ez dun egia. Ziztorra nor den ba dakin. Txanpon batzuek lartzearren!!!

M. KORO.—Ez, ez, ez. Ziztorra ez da horrenbestekoa; ez da gazurtia. Nolabait ikusten da sarritan; baina, behar bada, ez da bere errua. Nork kontu egin balu ez litzateke ikusten dugun bezala ikusiko.

JOXE.—Nolanahi ere egia jakin beharrean aurkitzen gaitun.

M. KORO.—Jakin... Jakin... Jakin nahi nuke hori egiteko agindua nondik hartu auten.

JOXE.—Agindua hartu beharra? Ongi hartua dutela ez al ditun ikusten? Kalez-kale, betiko beren-Tan tarran tapatatan! Tan tarran tapata tan! Herri guzia berentzat harturik?

M. KORO.—Kaian dauden untxiak errekestatzea agindu gabe egin dutenik ez dut uste.

JOXE.—Ez, ez, ez. Untxiak errekestatze hori, hori garrantzi handiko arazoa dun. Behar bada Xarlok ba zekin. Zer derizkion bera gana galdez joango bagina? Behar bada bere bulegoan zeon.

M. KORO.—Xarlori ez, inondik ez hori.

JOXE.—Ni ere ez naun prantzes zale eta ez naun prantzes etxe horatara sartu gura, baina, Xarlo etxeke bezala dinagu eta...

M. KORO.—Ez, aitona, ez. Xarlori ez.

JOXE.—Ez dinat ikusten arrazoirik ez nahi izateko.

M. KORO.—Xarlori mesederik ez.

JOXE.—Zergatik ez?

M. KORO.—Xarlok ni bere emaztetzat nahi nau.

JOXE.—Eta hik?

M. KORO.—Aitona, nik... nik... Manu maite dut.

JOXE.—Orain ezagutzen dinat hire nahigabea. Bai, bai, bai. Eta hire aitak?

M. KORO.—Nire aitak Xarlo oso begiko ikusten du.

JOXE.—Nola ez dun ikusiko, Mitxal eta gainerako «prantzesatuekin» har-emanetan bizi dun eta?

M. KORO.—Ez, aitona. Nire aaita ez da «prantzesatua».

JOXE.—Ez da Fuero zalea ere ez dun. «Enciclopedista» dun.

M. KORO.—Bere negozioek hortara bultza egiten diotelako.

JOXE.—Eta gure lur honetan sortua ez delako. Esan zan hori ere. Baina, Manu, Fuerozale amurratua dun eta bore alde zerbait egin beharrean aurkitzen gaitun.

M. KORO.—Bai, bai. Zer deritzaizu kaia aldera joango bagina?

JOXE.—Oso ongi. Jakin egin behar dinagu lehenengo eta ahaduguna egin gero bere alde.

M. KORO.—Bai, aitona. Goazen. (Joaten hastean a tzeraka harriturik)

V

JOXE, M. KORO, MANU. HIRU GUDARI ETA KONTXEXI

M. KORO.—Eeeee!!! Bera da! Bai, bera da!! (Eginaz) Aitaren eta Semearen!! Eriotzagile bat bezala dakarte! kriminal bat bezala. Hori da mutilari egin diotena. Ez dut nahi ikusi. Ez, ez, ez...!!! (Ero antzean)

JOXE.—Ez hadi horrela hasi. Adoretu hadi, Mari-Koro: adoretu.

M. KORO.—Zer egin du, baina, zer horrela ekartzeko?

(Agerkera era hontara egingo dute. Lehenengo aurretik prantzes gudari bakarra, hau soldadu kabu edo hortakoa da. Gero bi gudariren erdian Manu, eskuak katez loturik, alkandora odoletan eta oso errukigarri. Era berean, bestaldetik, Kontxexi azalduko da eta zuzenean Manugana bero-bero zuzenduk da zekarkian hitzak esanaz, besarkatuaz. Gudariak ez diote lehene goen indar habdirik egingo eta besarkatuaz jarra ituko dute ama-semeak)

KONTXEXI.—Manu!! Manu!! Neure semea!!! (Besarkatuz) Neure seme ona!! Neure se ederra!!

MANU.—Ama!!! Ama!!!

KONTXE.—Seme!! Neure seme ona!!! Zergatik baina hau zuri, zergatik?

MANU.—Koro!! Mari-Koro!! Gezurra da. Gezurra da. Gezurra. Nire untzian ez dut nik armarik ekarri.

M. KORO (Urreratuaz).—Sinisten dizut, Manu, sinisten dizut.

GUD. 1.º.—Finises, Madame!

KONTXE.—Zer?

GUD. 2.º.—Cette dame exergère.

GUD. 1.º (Indarrez, Kontxexi haserrez).—C'en est fait! Avant avec lui!

(Gudariak indarrez Kontxexi eta Manu azkatu eta frantzes etxera bultzadaka Manu eramango dute. Kontxexik baina gogor egingo diete)

KONTXE (Garraxika eta laga nahizka).—Ez, ez. Horra ez nire semerik!! Ez, ez,!!

M. KORO (Kontxexiri laguntza emanaz).—Kontxexi!! Kontxexi!!

KONTXE.—Manu!! Nire seme!!! Zergatik baiña, zergatik?

JOXE KORO (Kontxexiri laguntza emanaz).—Lasaitu zaitetz. Lasaitu. Egin diotena baino gehiagorik ez diote egingo.

KONTXE (Negarrari emango dio)

M. KORO.—Zatoz gure etxera. Lasaitu zaitetz.

JOXE.—Bai, bai. Zatoz gure etxera. Goazen gurekin. Etorri zaitetz. Guzion arte zerbait egingo dugu bere alde.

M. KORO.—Bai, bai.

(Eta Kontxexi negarrez dela hiruek Dn. Maxiano, Kororen etxera eramango dute)

(Agerraldi honek oso bizi joan behar du eta guda-riak Kontxexi Manugandik zabaldu nahiez ari direla zerbait gogorkeria egitea ongi izango litzateke, horrela-koetan gerta oi diren bezala. Bakoitzak bere giroz na-hastean honelako hitzak bota litezke.—Ez duzue esku-biderik. Zuok ez zarate inor. Zuok zuen herrira eta abar...—Avant-Çaa —Allons-Courage! eta abar. Esan bezala, honelako unetan gerta oi den bezala.)

VI

DON MAXIANO ETA DON ZAKARIAZ

DN. MAX. (Handikia da)

DN. ZAK. (Apez zaharra, nekaturik-Ihesika, Dn. Ma-xiano, ihesika?)

DN. MAX.—Laster hori ere, laster. Hemen ezin dai-teke bizi. Hau gehiegia da.

DN. ZAK.—Baina...

DN. MAX.—Horiekin ezin daiteke arrazoirik atera. Kaskagor batzuk baino ez dira.

DN. ZAK.—Nortzuengatik ari zara?

- DN. MAX.—Herrietatik etorri diren horiengatik.
- DN. ZAK.—A!!! Bai, bai, bai.
- DN. MAX.—Baztarra izan dugu. Baztarra edo Batzar ordeko edo... Zerbait egin nahi asmoz bildu gara; baina, bai zera!... Ezetz. Ez dutela nahi Irun-en Aduanarik jartzetik.
- DN. ZAK.—Fueroak ez du Aduanarik jartzeko eskatzen eta...
- DN. MAX.—Eta Gipuzkoako industria guzia lur jota uztea bai?
- DN. ZAK.—Ez dut uste horrelakorik esaten duenik.
- DN. MAX.—Baina, Gipuzkoako industria lur jotzen eta lurra jota dago. Eta hori da zaindu nahi deguna: industria behea jota ez ikustea. Irunen Aduana jarri ezkerro, ez genuke oraingo hau ikusiko: Kanpoetatik zer nahi gauza ekartzen dute. Aduanako zerga ordaindu gabe, eta gero, guk egindako guzia lurra jota. Eta guzia kaskagor atzeratu batzuek bide direlako. Baina, oraingoan, hau ez da honela geratuko. Donostia Nafarroakin bat egingo gara.
- DN. ZAK.—Gipuzkoatik ihez egingo duela Donostiak?
- DN. MAX.—Donostiaak eta Pasaiak eta besteren bat ere izango dugu.
- DN. ZAK.—Baina hori ez da ongi.
- DN. MAX.—Eta gu ondatzea eta Gipuzkoa guztia ondatzea ongi deritzaizu?
- DN. ZAK.—Ez. Horrela bada ez dut nik esango ongi danik; baina...
- DN. MAX.—Ezer ez. Atzeratu batzuk direla; besterik ez. Zorioneko Fueroak, hau eta Fueroak, hori. Fueroa aldeezina balitza bezala.
- DN. ZAK.—Aldeezina ez dugu Fuero legea: Baina aldatu baino lehen herriaren nahia ikusi behar da.
- DN. MAX.—Herri atzeratu baten nahia.
- DN. ZAK.—Gipuzkoako Fueroak herriak eginak dira.

Eta Gipuzkoako Fueroak ongi ezagutzen duen inor ez da izango auzartuko denik herri atzeratu baten lana dela esatera. Eta barkatu, gogortxo ari bannaizazu.

DN. MAX.—Ez, ez. Neu joan naiz gehiegitxo. Ni ez noa Fueroen kontra. Nik Gipuzkoan Aduana jar-tzea beharrezko dela ikusten dut. Eta hau agerikoa dugu.

DN. ZAK.—Baina lege bat aldatzeko herriak du hitza. Eta herri horrerik erakutsi bahar zaio zer komendena eta orduan...

DN. MAX.—Hori izan da gure asmoa. Baina guziaz alperrik dela ikusi dugu. Fueroaz aberastu eta gero Fueroen kontra gabiltzala bota digute. Handiagorik nai duzu?

DN. ZAK.—Herria bera ere bide txarretik doanik ez dezagun uste. Itsasoa libre izatea nai du: guziaz itsasoa. Lurrean ere Aduanarik gabe. Herri bakoi-tzak jo dezala berari dagokion bidetik. Beste nazioetatik dakartena sar dedilla inongo trabarik gabe. Eta hemen egindakoek ere izan diezatela libertatea beste nazioetara sartzeko. Trabak elkarri jarriaz egiten diren har-emanak kaltegarri direla ikusten du herriak.

DN. MAX.—Beste nazioek, nazio aurreratuek jarriak dauzkate Aduanak.

DN. ZAK.—Ba daki hori herriak; baina ez du itxaropenik galdu egunen batean, nazio horiek, bata-bes-teen ona ikusiaz, elkarri Aduanak kendu eta bizi izatera helduko direla.

DN. MAX.—Bai zera! Beste nazioak hori egin? Beste nazio aurreratuek hori egin? Hori ametsetan bizi-tzea da. Herri atzeratu baten ametsa dugu hori.

DN. ZAK.—Geroak esango digu hori, Gipuzkoa Herria, herri atzeratua den.

DN. MAX.—Alperrik ari da. Guk geureaz aterako gara. Onez edo txarrez ez dakit; baina...

- DN. ZAK.—Baina hori izango dugu gogorrena. Ez al duzu albiste berririk jaso?
- DN. MAX.—Albiste berria?
- DN. ZAK.—Bai. Madrid aldean edo Madrident bertan gertatu den albistea.
- DN. MAX.—Ez nik, ez dut albiste berririk jaso.
- DN. ZAK. (Alboetara begira).—Diotenez, Madrident herri guzia prantzes soldaduen kontra jeiki dela.
- DN. MAX.—Ez da egia izango?
- DN. ZAK.—Egia da, bai. Eta prantzes soldaduek sekulako hilketak egin dituzte:
- DN. MAX.—Ezin daiteke hori egia izan! Ez.
- DN. ZAK.—Egia da, bai, egi-egia. Handik etorri den batek asan digu. Daois eta Velarde buru direla altxa dira prantzes soldaduen kontra. Eta gero, bi Artilleriako kapitán horiek fuzilatu egin dituzte.
- DN. MAX.—Ordua...
- DN. ZAK.—Bai, bai. Eta kontuz ibili zintezke. Hemen ere...
- DN. MAX.—Hemen zer?
- DN. ZAK.—Hemen ere ongi azpertia da jendea prantzes horiekin eta... Madrident hasera eman badiote, gipuzkoarrok ez gara azkenengo izango zapaltzalleen aurka jaikitzen. Kontuz, ba, Dn. Maxiano. Kontuz ibili «prantzasatu»tzat hartua izan ez zaitezten.
- DN. MAX.—Ez dut nik ezer «prantzesatuekin».
- DN. ZAK.—Gehienbat hori esateagatik etorri naitzaizu.
- DN. MAX.—Eskerrik asko, eskerrik asko. Banoa, banoa. Eta beste bat arte.
- DN. ZAK.—Agur, bai; agur.
(Joaten dira)

VII

DON MAXIANO ETA MITXEL

(Don Maxiano bere etxera izkutatuaz batera Mitxel agertuko da eta zuzenean Dn. Maxianoren atera joanaz)
MITXEL.—Dn. Maxiano! Don Maxiano!!

DN. MAX. (Poz-pozez azalduaz).—Eta? Ezer egin al duk?

MITXEL.—Bai, jauna. Guzia egina dago. Zueiri agindu nizuten bezala egin ere.

DN. MAX.—Hori, hori!

MITXEL.—Xarlokikoa egin dut lehenengo. Esan diodan guztia sinetsi dit.

DN. MAX.—Ongi, ongi. Eta ez al dik galdegin nondik edo nola jakin dean edo?

MITXEL.—Bai.

DN. MAX.—Eta hik?

MITXEL.—Antzo gauean mariñal batzuk entzun nituela elkari esaten, alegia, Caracastik onuntz zetozela, ingles untzi batek, zerbait ixilikako eman zietela... armak edo munizio edo ortakoak zirela.

DN. MAX.—Eta Xarlok?

MITXEL.—Hura poza. Bereala gudariak hartu eta egundoko araketak egiñaz hasi da untzietan.

DN. MAX.—Eta?

MITXEL.—«Izarra»ra sartu dira eta han zegoen Manu gaztea. Lasai egon ere han zetorrenari parre eginaz.

DN. MAX. (Parrez).— Eta gero?

MITXEL.—Han aurkitu diote guk atzo gauean sartu genion «munizio» kaja eta, orduan ziren kontuak, orduan (Ja, ja, ja, jaaa)—Esnea baino zuriago gelditu da mutilla. Baina alperrik. Alperrik haren ukapen guztiak: Xarlo bere bulegora etorri daordenak hartzera, Manu gudarien kontu utziaz.

DN. MAX.—Eta han al daukate Manu oraindik?

MITXEL.—Ez, ez. Nonbait, soldaadu kaboak bere gai hartu dueneann «Tollarenak», egundoko jipoia eman omen dio eta han bertan hilko ezpaizitzaien honera ekarri behar izan dute.

DN. MAX.—Horrenbesteraino ere ez dago ongi.

MITXEL.—Bai, Dn. Maxiano. Bildurra sartu behar zaie horiei. Hoik dira batez ere zuen kontra dau-denak. Horiek dira batez ere Caracas aldetik zer-gak ordiandu gabe ekarri eta ekarri ari direnak. Zuel, berriz, bururik jaso ezinez.

DN. MAX.—Egia duk hori ere, baina...

MITXEL.—Bai, bai, bai. Eman egin behar za izkie ho-riei. Ikusiko duzu, banaka banako konturatzen nola joango diren. Gero, ba dakizu, prantzes agintarieiri ere, ba dakizu, zuen esker ona agertu beharko dio-zute. Orain arte iritxi ez duzutena, behar bada, prantzes horien bitartez iritxi ahal izango duzue.

DN. MAX.—Nola baina, nola? Esan zadak.

MITXEL.—Barkatu Dn. Maxiano. Denbora luzea baino lehen jakingo duzu.

DN. MAX.—Ez zekiat, ez zekiak!! Nik ez nitek nahi behintzat oraingo tratu hau herrian zabaltzerik, bestela... galduak gaituk.

MITXEL.—Bai, zera!

DN. MAX.—Jendeak, ba dak, era askotara pentsatzen dit eta gertatu denaren egia asmatu behar bada.

MITXEL.—Ez horren bildurrik izan. Ongi pentsatua dut guzia. Aski dut horko damatxuei nire erarako gezurtxo bat esatea. Berehala herrian zabalduko dute eta hura izango da egia.

DN. MAX.—Oso ongi asmatua, oso ongi.

MITXEL.—Bai, bai. Nire kontu guztia.

DN. MAX.—Baniak orain. Eta beste gure laguneiri ere adierazi hakiak egindako guzia. Eskupeko ederra izango dut. (Kai alderutz joango da)

MITXEL.—Eskerrik asko.

VIII

MITXEL, JUSTA, KLETA ETA TXELA

(Mitzel noruntz jo ezinda bezala aurkituko da eta hontan dela, Justaren deia entzungo da barrendik)

JUSTA.—Mitzel!!! Mitxel!!! Zaude pixkabatean, mesedez!!

MITXEL (Kanpora begira).—Mesederik gabe, Dama Justa, mesederik gabe.

JUSTA.—Kleta!!! Txela!!! Ea pizkor. Mitxel dugu hemen eta (Azalduaz)-Aspaldiko gure Mitxel. Zer moduz? (Eskua luzatzen dio)

MITXEL (Justaren eskuari mun emanaz).—Ongi eta zu?

JUSTA (Harro harro eta parregarritzko imintzioak eginaz).—Ai!! Zu zara gizona, zu! Ongi edukatua behintzat. Ez hemango askoren antzean.

MITXEL (Axalkeriaz).—Ba dakizu... ni neu jatorritik ez naiz oso edukatua izan, baina, prantzesak ditut adiskideak eta horiekin asko ikasten dut.

JUSTA.—Bai, horixe. Gu ez gaaren bezala koak dira prantzesak. Horiek, horiek dakite tratatzen.

MITXEL.—Gu hori zuregatik ez zenuen esango? Zuk horiek erakutsi behar andirik ez dezu izan.

JUSTA.—Egia esan, gu ezitakoak gara. Bai, horixe! Handikiak bezala edukatuak. Handikiak ziren gure gurasoak.

MITXEL.—Bai, bai. Horrela dut entzutea.

(Kleta eta Txeko agertuko dira. Jantzietan naiz beren imintzioetan parregarri Mitxelgana zuzenduaz)

KLETA.—Agur, Mitxel. Zer moduz?

TXELA.—Agur, agur, aspaldikoa. Zer modu?

MITXEL (Beren eskuei mun emanaz).—Ongi eta zuek?

KLETA.—Ongi, oso ondo.

MITXEL.—Ezagun duzue. Zueiri begiratzea baino ez dut. Beti gazte zaudete zueok.

HIRUA (beren buruei begiraka eta Mitxel bizkarreko txiki eta beste imintzioak eginaz)

KLETA.—Ai, hau betiko Mitxel.

JUSTA.—Mitzel prantzesatua.

TXELA.—Ongi prantzesatua gainera.

JUSTA.—Hartuko lukete hemengo «Joxemaritarrak» honek duen edukazioa:

KLETA.—Uste diñat.

MITXEL.—Ez horrenbeste, ez horren beste.

JUSTA.—Eta zer berri?

MITXEL.—Nik baino obekiago dakizue zueok. Monsieur Herrappe zuenean izan dela ongi dakit.

KLETA.—Gurean?

JUSTA.—Eta nor dugu hori?

MITXEL.—Baina egia diozue ez duzutela ikusi?

TXELA.—Ikusi, ez dakit egin dugun, ezagut ez behintzat.

MITXEL.—Beste asmorik ez duela esan du zuek agurtzea baino.

KLETA.—Eta gure ezaguna dela esan du?

TXELA.—Baina, nor izan zezakeen?

JUSTA.—Hori bada, hori.

TXELA.—Non gelditzen da?

MITXEL.—Ez, ez, ez; ez da hemen gelditu. Berriro joan bearra izandu: Nik halaz ere, zera... zera mandatua berak eman dizuela uste nuen.

HIRUAK.—Zer mandatu? Zer?

MITXEL.—Ez al dakizue gertatu denaren berri?

JUSTA.—Zer gertatu da?

MITXEL.—Egundoko arma kontrabandoa egiten harapatu dute Manu «Izarra»koa:

TXELA.—Ez da egia izango?

JUSTA.—Noiz?

MITXEL.—Gaur goizean. Hogeirenbat kaja handi munizio eta beste hainbat arma.

TEKLA.—Eta?

MITXEL.—Ukatu egin duela Manuk. Eta ez dela egia berak arma kontrabanda egin duenik.

JUSTA.—Zer esango du bada?

MITXEL.—Baina han jaso dituzte gaztelura.

TEKLA.—Ez du lehenbizikoa izango horrek.

MITXEL.—Eta gero aurpegia ukatzeko.

JUSTA.—Eta arma ta munizio horiek norako zituzten?

MITXEL.—Prantzesei laguntzeko ez.

TEKLA.—Kontuz ibili beharko dugu orduan.

MITXEL.—Kontuz bakarrik?

TXELA.—Zer besterik?

MITXEL.—Dagoaneko hasiak dira ezer nahi gauza esaten prantzesengatik. Gezurra dela kontrabanda kontua eta abar eta abar, jendea prantzesen kontra jarzteagatik. Baina arma kontrabanda ikusi nahi duenak dola gaztelura. Han erakutziko diote.

JUSTA.—Horiek beti ere prantzesen aurkakoak izan dira eta hori egin nahi orain ere.

TEKLA.—Baina ez dute lortuko. Hemen gaude gu egia argi eta garbi herriari zabaltzeko.

MITXEL.—Monsieur Herrape poztuko da hori egin duzuela jakitzean.

TXELA.—Bai, bai. Burekin kontatuzeko ikusteko aukerarik izaten baduzu.

JUSTA.—Hemen gaudela gu, gertu.

MITXEL.—Esango diot, bai. Eta eskerrik asko.

TEKLA.—Orain berta-bertaatik hasiko gara egia zabaltzen. Gure kontu lan hori.

MITXEL.—Eskerrik asko berriz ere. Eta barkatu, hemen Xarlorekin egon beharra dut eta. Agur, agur (Guziei eskuetan mun emanaz)

Hiruak! Agur, agur!!

(Mitzel prantzes etxera sartuko da eta beste hiruak bestalderantz egingo dute eta doazala...)

JUSTA.—Gogorrak dira gero «Joxe-maritar horiek. Arma kontrabanda egitan hartapatu eta prantzesak direla txarrak. Baina, ez. Egia nola den jakingo du Herriak. (Joanten dira)

IX

XARLO ETA MITXEL

(Xarlo aurretik dela Mitxel eta biak atadira irtengo dira)

XARLO.—Ez nizun besteen aurrean ezer esan nahi eta horrengatik atera zaitut. Nik gizon horrengan ez dut errurik aurkitzen.

MITXEL.—Benetan didazu hori?

XARLO.—Ben-benetan, Mitxel.

MITXEL.—Ezin daiteke. Zu ez zara horrel iluna.

XARLO.—Horrengatik batez ere. Garbi ez dut ikusten arazo hau.

MITXEL.—Orain itsuta zara orduan.

XARLO.—Ez, ni ez nago itsu. Erregabea dela ezagutzen dut. Ezin dut sinetsihori errudun izan daitekenik.

MITXEL.—Bere untzian munizio kaja aurkitu dute. Zeuk dakizu ongien.

XARLO.—Bai munizio kaja aurkitu dute; baina horrek ez du esaten munizio kaja nork untziratu zuen.

MITXEL.—Nork bestek untziratu zezakeen?

XARLO.—Hori da nik garbi ikusten ez dudana.

MITXEL.—Nolanahi untzian aurkitu zuten eta untziaren arduradun berori dugu. Eta arduradun danez gero berori errudun egiten da.

- XARLO.—Eta berak ezer ez zekiela untziratu bazioten?
- MITXEL.—Nork sartu behar zion horri? Gehiegi daki horrek nork eta nola untziratu zuten.
- XARLO.—Ukatu egiten du, ordea.
- MITXEL.—Zer besterik egitea nahi duzu? Zein kontrabandista ikusi duzu bere buruaren aurka egiten? Ez, Xarlo, ez. Konfesaturazi egin behar zaio horri. Atera eragin onean nahi ez badu, txarrez.
- XARLO.—Txarrean ez, txarrean ez. Txarrean nahiko eta gehiegi egin diote:
- MITXEL.—Alperrik zabiltza. Ziur izann horrek ez dizu egiarik aitortuko.
- XARLO.—Nire irizpiderako egia osoa aitortu du. Ez du errurik.
- MITXEL.—Ai, Xarlo, Xarlo! Ez duzu grandu handirik irabaziko era hortara. Kapitantxo baino besterik ez zara egundo izango.
- XARLO.—Oso gizon jatorra dela informeak jaso ditut: Elizkoia, langillea, zintzoa eta gizartean oso maite dutena. Eta egia esan, ni neuk ere, horrela dela koan nago.
- MITXEL.—Eta azkarra denik ez al dizute esaten? Neuk esango dizut orduan. Oso azkarra da. Zu eta ni baino azkarragoa. Horregatik itsututzen zaitu. Baina, hau ere esango dizut. Kontu izan mutil horrekin. Isil-lana bikainen egiten dutenak beriek dira. Horiek ditugu okerrenak eta zailenak harrapatzen. Eta orain zure zure esku duzunean libro utziko duzu?
- XARLO.—Ez dakit zer egin. Gaztelura bidaltzeko agindu didate nire agintariak baldik errurik txikiena aurkitzen badiot.
- MITXEL.—Ongi agindua. Eta errudun da, untziko agintaria den ezkerro. Gaztelura bidali zazu, eta kitto!

XARLO.—Gazteluko bizia, hango ilunpetako bizia ez da mutil horrentzat, ez du merezi.

MITXEL.—Eta orain libro utzi eta gero, munizio kaja bat ez ezik beste asko ekarria dela jakintzen duzunean, zertan gelditzen zara? Zertan? Pentsa zazu, Xarlo. Zure onagatik ari natzaizu. Aldez aurretik neurriak hartzea hobe duzu. Bidali zazu gaztelura eta denboraren buruan asmatuko duzu zer egin.

XARLO.—Hori ere horrela duzu, baina...

MITXEL.—Egin zazu. Erabaki behin. Har itzazu neurriak eta ez duzu muruko minik izango. Ez ahan-tzi adiskide on baten kontseilua duzula.

XARLO.—Bai, bai. Gaztelura bidaliko dut: Bai, horixe egingo dut.

MITXEL.—Bejaunduzula! Behin edo behin zure adiskide on bat nazazula erakusten eman didazunean.

XARLO.—Orain berean bidaliko dut.

MITXEL.—Eta hemen atean gudaribat jartzea ez duzu uste beharreko zaizunik?

XARLO.—Ez dut beharrik.

MITXEL.—Joxe-maritar asko dira gero Donostian. Berentarren alde zer nahi gauza egiteko gertu daudenaak.

XARLO (Irriparrez).—Mixel! Ea, ea bildurra ere sartuari didazu.

MITXEL.—Ez da bildurra, ez. Joxemaritarrak ongi ezagutzen ditut. Ba dakit zein odol beroko diren.

XARLO.—Jarriko dut. Ez dut beste biderik, zuri entzutea baino.

MITXEL.—Igarriko diozu. Ba noa, orain. Eta gero arte:

(Xarlo bere etxera eta Mixel kale-zehar oso poz)

X

GUDARIA, MARI-KORO, KONTXEXI ETA XARLO

GUDARIA (Atadira irtenaz batera, bere arma bizkarrean duela atzera eta aurrera, ibilean «guardia» egiten hasiko da. Eta bi edo hiru atzera aurrera egingo dituanean, Mari-Koro eta kontxexi agertuko dira etxeko atatik. Kontxexik pardeltxo bat dakarki bere eskuetan)

M. KORO (Gudaria ikustean).—Ixi! Gudaria dugu hemen. Baimena esketu beharko diogu.

KONTXEXI.—Bai, bai, aditzen badigu.

M. KORO.—Adituko digu. Xarlo eskatuko diogu eta (Gudaragana urreratuz). Egun on! Aldagarri hauer Manuri eman nahi geniozke.

GUDARIA.—Excusez-moi, Mademoiselle.

M. KORO.—Xarlo kapitana barnean al da?

GUDARIA.—Capitaine Xarlo? Capitaine Xarlo?

M. KORO.—Bai, bera ikusi nahi genuke.

GUDARIA.—Capitaine Xarlo. Attendez un peu. (Barrura joaten da)

M. KORO.—Zerbait ulertu digula uste dut.

KONTXEXI.—Hala dirudi.

M. KORO.—Pixkabattan egon beharko dugu.

KONTXEXI.—Egoteko ere barruan den-errukigarria baino hobeto egongo gara.

M. KORO.—Uste dugun beste ez da behar bada.

(Xarlo eta gudaria agertuko dira. Gudaria lehengo antzean guardia egiten hasiko da)

XARLO (Oso errespetu handiz Korori eskua luzatzen dio).—Egun on andereño eta...

M. KORO.—Manuren aama dugu ahu.

XARLO (Buruaz agur eginaz).—Arratsalde on, anderea. Zer nahi duzue?

M. KORO.—Manurentzat aldagarriak dakartzkigu eta...

XARLO.—Sar zaitezte.

M. KORO.—Barkatu, baina ez dut etxe horretara sartu nahi.

XARLO.—Zuen hobe ustez agindu dizutet: baina horrela nahi baduzue...

M. KORO.—Bai, ba daakit; baina aldagarri hauek ematea baino ez dugu nahi, oraingoz.

XARLO.—Eraman nahi badizkiozue libro duzue atea.

M. KORO.—Ez, ez; nik ez dut nahi. Honek nahi bala...

KONTXEXI.—Eskertuko nizuke mesede hori.

XARLO (Gudariari).—Soldat!

GUDARI.—Capitaine!

XARLO.—Acompagnez à Madame à mon bureau.

GUDARI.—Oui, Capitaine. (Kontxexiri)—Suivez-moi, s'il vous plaît.

XI

MARI-KORO ETA XARLO

XARLO.—Gorroto handia diguzu, horratik, Mari-Koro.

M. KORO.—Ez, ez. Ez dut nik inor gorroto.

XARLO.—Eta..., orduan...?

M. KORO.—Baina, nire herri-zapaltzaileen jokia ezin dut begi onez ikusi.

XARLO.—Zuk uste duzun zapaltzaileak ez gara.

M. KORO.—Gure zapaltzaileak ez bazarete, zer egiten duzue hemen?

- XARLO.—Behar bada, zuen onagatik gaude hemen.
- M. KORO.—Ez dut sinesten.
- XARLO.—Napoleonek begi onez ikusten zaituzte eta lagundu nahi dizuete.
- M. KORO.—Lagundu harek guri? Nola?
- XARLO.—Nik ez dakit nola. Ni ez naiz politikoa: Militar bat baino ez nauzu.
- M. KORO.—Bai, ba dakit, eta gu zapaltzera etorria.
- XARLO.—Barkatu, Mari-Koro. Agindua betetzea baino beste eginkizunik ez dut nik. Eta ahal dudanez, nire lagun urkoari laguntzea. Bestalde euskalduna naiz, Zuran bezala, euskalduna ni ere.
- M. KORO.—Baina zu euskaldun prantzesa, eta ni berriz, euskaldun espaniarra.
- XARLO.—Euskaldunak biok.
- M. KORO.—Zuritik beltzera dagonaldea dugun euskaldunak.
- XARLO.—Ez horrenbeste. Gaur euskaldun prantzesak baldin bagara ere, gure aurretikoak euskaldun espaniarrak ziren edo euskaldun kantabriatarrak. Gaur Frantzian gauden euskaldunak hemendik hara joan ziren jatorrikoak gara.
- M. KORO.—Ez dut uste.
- XARLO.—Bai, bai. Kondaira aurretik ez dakigu gure herrian euskaldunik izan zenik. Lurtapen izen batzuk, euskera antzeko zerbait dutenak aurkitu baiduzte ere, ez du esan nahi han euskaldunak bizi zirela. Kondairak, berriz, garbi esaten digu hemengo euskaldunak hara zabaldu zirela. Beaz, zuk begiratzen dezun aldetik jatorri batekoak gara zu eta ni: euskaldun jatorrikoak.
- M. KORO.—Horrela izan daiteke. Ez dizut ukatzen, baina orain zu, euskaldun prantzesa eta ni euskaldun espaniar gara. Hemen dago aldea egon.
- XARLO.—Eta Napoleonek, asmoa duenez, eta Espa-

niako jauntxo batzuek ere, zuen Euskalerria Frantziak hartu edo ematen badiote...

M. KORO.—Ez, ez, ez. Hori egundo, ez; ez dute iritxiko. Lehenago ere horrelako antzeko zerbait egin nahi izann zutenetan, Euskaldun Batzarrak, euskaldun guztiak Espaniatik ez zakabanatzeko eskatu zioten Erregeari eta ez zuten lortu zakabanatzerik.

XARLO.—Baina, Mari-Koro, guk ez dugu zer ikusirik besteak zer nahi izan zuten edo zer nahi dutenekin. Ongi dakizu, maitasunak ez du frontierarik ezagutzen. Eta nik... Mari-Koro, maite-maite zaitut.

M. KORO.—Xarlo...

XARLO.—Bai, Mari-Koro. Itxaropen pixkabat emaidazu.

M. KORO.—Xarlo. Sinitsi zadazu. Gure etxean lehenengoz elkar ezagutu ginan ezkerre, adiskide on bat bezala ezagutu zaitut.

XARLO.—Eskerrik asko.

M. KORO.—Baina, barkatu. Adiskidetasun hortik kanpo, ez dut nik inoiz ezer pentsatu. Hobeki esan: nik ba dut nire maitea.

XARLO.—Nor?

M. KORO.—Hor barnean duzuen errukigarri hori.

XARLO.—Manu?

M. KORO.—Bai.

XARLO.—Ez nekian ezer... ez nekien. Barkatu. Mari-Koro, barkatu!

M. KORO.—Ba dakizu orain.

XARLO.—Bai, ba dakit. Eta ben-benetan dizut, beraren alde, zu bion alde, zerbait egin ahal badut, egin gabe ez naiz geratuko.

M. KORO.—Eskerrik asko. Lekutan izango zara.

AZKENA
LEHENGOAK, MANU, KONTXEXI
ETA HIRU GUDARI

(Gudariak aurretik direla, Manuri lagun eginaz Kontxexi agertuko da. Manu alkondara garbia jantzita eta katez eskuak lotuak dituela. Manu eta Mari-Koro aurrez-aurre ikusten diranean...)

M. KORO. (Manugana eta besarkatuaz). — MANUUU!!!!

Oihala behera

BIGARREN GERTALEKUA

Don Maxianoren etxeko egonlekua. Aldiari dago-kion eran apaindua eta antolatua. Atzean, erdian, kalera-rako atea. Ezkearrean, beste ate bat, etxerakoa. Es-kuian, leihoa.

BIGARREN EKITALDIA

I

MARI-KORO ETA JOXE

Oihala jasotzean, Joxe leihoaren ondoen, zutik, ez-painetan pipa duela, katalejoaz kanpora begira. Bestal-dean, Mari-Koro, eserita jasten ari da)

JOXE (Kanpora begiratzeari utziaz).—Ilunabar ba-ketsua gaurkoa. Haizearen aztarrenik inon ez da ageri. Itsasoa, bare-bare dago eta ezetzik ez nuke esango gaur gauean elurra mara-mara, bazterretan zurituko ez denik.

M. KORO.—Horixe behar dugu, lehenaz gainera.

JOXE.—Aldian, aldikoa, Jainkoa betikoa-esan ohi dun, eta aldiari aurpegi eman behar.

M. KORO.—Aldia, aldakor dela lurtarrentzat; baina, gure aldi hau ez da asko aldatzen.

JOXE.—Ez, ez dun aldatzen eta guzia Napoleon herri-zapaltzaile hori delako. Bake ederrean bizi ginuna-

- neta hori, odoltzale amorratu hori, gu zapaltzera etorri zelako.
- M. KORO.—Eta noiz daino gure egoera hau? Hau ez da bizitzea. Laster zoroetxerako bidean naiz.
- JOXE.—Pazientzia hartu behar, Mari-Koro: pazientzia.
- M. KORO.—Hartuko nuke, bai, pozik hartu ere; baina ezin dut. Nik ezin dut gehiago. Ezin bizi naiteke honela. Beti gauza bat buruan dudala, beti kezkez, beti noiz albiste txarren bat jasoteko bildurretan.
- JOXE.—Besteok ere horrelaxe bizi gaitun. Aurpegi eman behar.
- M. KORO.—Sei hilabete luze dira, aitona: sei hilabete luze.
- JOXE.—Bai, eta ongi luxeak gainera.
- M. KORO.—Eta noiz daino luzatuko duen jakin ez. Eta guztietan gogorrena hau dugu: arrabete bidean bizi gara, eta elkar ikusterik ez. Presondegiren batean balego, ziur asko, elkar iksute aukera izango genuke. Eta geure eskuetan iduki, geuk atearen giltza, edo atea zabalik bahintzat eta... halas ere, ikusi ezin. Bildurraren bildurrez, bera ikustera hurbildu ezin. Ez ote dut hau zoratzeko adina?
- JOXE.—Bai, Mari-Koro. Horrela dun hori era. Baina zer pasatuko hunan Gazteluko kalabuzu ilun hartan sartu balute? Zer beste asko pasatu dituzten bezala armaz pasatu balute?
- M. KORO.—Errugabea da Manu, errurik gabea. Ba dakite hori, ongi jakin ere.
- JOXE.—Bai, errugabea unan, orduan, errugabea; baina... orain... orain...
- M. KORO.—Orain ere bai, aitona, orain ere bai, errugabea da Manu. Errugabea zelarik zeramakiten Gaztelura. Indarrez, bere gogoaren kontra, hiru gudariaren erdian eskuak katez lotuak zituela. Haren kontzientzia garbi zegoan. Halaz ere bere burua galduta ikusten zuen. Bai, aitona, bai. Galduta ikusten

zuelako egin zuen egin zuena. Libratu nahi izan zuen arrixku hartatik eta burura etorri zitzaiona egin zuen.

JOXE.—Soldatu gixaxo batzuk haiek ere, behar bada.

M. KORO.—Beraiek zeramaten Gaztelura eta beraiengatik libratzeagatik bultzatu etaarkaitzetara bota zituena. Higarren gudaria berriz, elkar burrukan zauritu. Azkatasuna lortzeagatik, aitona: askatasuna.

JOXE.—Eta lortu ere lortu zinan. Ez al dun horrela?

M. KORO.—Bai, egia da. Baina sei hilabete luze txerrikorta batean daramazki gordeta. Eta, aitona, hori ez da askatasuna, hori ez da bizitzea, hau ez degu askatasuna. Betiko bildurpean, noiz, noiz, horietako odontzalerenbat, bere bila aurrean ikusteko.

JOXE.—Ez, bizibide ona ez bahintzat. Bizi egin behar eta bizi. Eta txerri txabolatxo hori duanean eta Dn. Zakarias bere gordelari, gure Ama Korokoari eskerrak eman beaharrean gatxauden.

M. KORO.—Dn. Zakarias, hura ere palta dugu gaur. Beste egunetan garai hontarako hemen izaten dugu eta gaur oraindik ez da ageri. Txerri-txabolan zer-bait etzuten izango?

JOXE.—Bai, zera! Badakin, hotz denboretan jende gehiago gaxotu eta hil ere egiten dun eta horietakoei laguntzen eriko dun, ziur asko. Halaz ere denbora luzea baino lehen hemen izango dinagu.

M. KORO.—Ez dakit, bada, ez dakit. Berandu dator eta ni bildurrak hartu nau.

JOXE.—Laster joko din honuntza. Eta... hona, lehenago aipa bagenu lehenago etorriko hunan. Hor zetorren.

M. KORO (Aterunz doala)

II

MARI-KORO, JOXE ETA DN. ZAKARIAS

DN. ZAK. (Bere apaiz manteoz ez talia agertuko da eta etxeko bezala, atea idekitiaz batera aurrera jarraituko du).—Arratsalde on, Jainkoak edo ta, gau on! (Manteoa kendu eta alxian exeriko da)

M. KORO.—Baita bedorri ere. Eseri bedi, Dn. Zakarias.

JOXE.—Berdin zuri ere.

DN. ZAK.—Eskerrik asko.

M. KORO.—Esta zer berri dakarki guretzat? Zer berri?

DN. ZAK.—Gaur dugu gure eguna, hobeki esan, gaur gure gaua, Manuk ihez egiteko gaua.

M. KORO.—Gaur???

DN. ZAK.—Bai, bai; gaur. Ez duzu nahi? Ez al duzu nahi Manu libratzerik?

M. KORO.—Nahi izango ez dut, ba? Oraintzen ari nintzaion aitonari esaten, gure egoera honek eroetxerako bidea egin behar ditala.

JOXE.—Bai, bai. Nahiko kontu beltz esanaz ari izan zait.

DN. ZAK.—Gaur gauean bukatuko dira zure kontu beltz guziak.

M. KORO.—Ez dakit, ba, ez dakit. Dagoaneko ikaraka hasia naiz.

JOXE.—Ez hadi horrela jarri. Ahaleginak egin behar ditun hain denbora luzean gertatu dugunari bidea idekitzeko.

DN. ZAK.—Hori, hori. Bakoitzok geure egitekoa dugula konturatu behar zara. Erloju baten zati garela guztiok eta zati horiek bere tokian lan egin behar dutela; bestela, galduak gara.

M. KORO.—Ba dakit, bai. Ongi asko jakin ere; bai-

na... nire bihotz hau... ez dakit zenbatetako taupadetan dabilkidan...

DN. ZAK.—Zaindu egin behar duuzu; eutsi, indar egin; adoretu bildur edo kezka horiek bota ahal izateko.

JOXE.—Bai, bai.

DN. ZAK.—Gaur gauean, orain ber-bertatik hasi eta eramateko eginkizuna dugu. Guzia prest dago. Lehenengo nire txabolatik honera; gero, hemendik untzira eta handik, libro, Gora Askatasuna!!

M. KORO.—Eta Manuk ba daki orain dugula?

DN. ZAK.—Bai, bai. Handik etorri naiz. Manu prest dago. Ni berriz hara joan eta zuen argisiñalea ikusten dugun bezain laster honera bidean hasiko gara biok.

M. KORO.—Hemengo ere aspaldidanik jarria dugu. Ziriarri su ematea besterik ez du behar.

DN. ZAK.—Zure aita, denbora baterako bere batzarreran sartua da. Ongi dakit. Eta oitura dutenez, bi ordu luzetan ez dute bukatuko. Alderdi ortatik libro gara. Xarlo bahin ilundu ezkerero ez dator honera.

JOXE.—Hori, hori. Eta besterik ez dator honera.

M. KORO.—Eta Mitxel etorriko balitz?

JOXE.—Mitzel honera etorri? Ez dauka bizarririk harek nire aurrera azaltzeko.

M. KORO.—Ez dakit, ba, ez dakit. Egundoko bildurra diot nik gizon horri.

DN. ZAK.—Dakizun bezala, behin arimen kapaia jo ezkerero inor ez dabil kaleetan, prantzes soldadu pratrullakoak izan ezik. Eta gaur txanda dutenak, pratrulla hori egiteko ba dakit nortzuk diran, eta ongi ezagutzen naute. Inoiz beroiek lagundu izan didate, nire apaiz eginkizunetan ibilli beharra izan dutanetan.

M. KORO.—Eta bi lagun ikusten zaituztenean? Beste no dela esango diezu?

DN. ZAK (Ja, ja, ja...).—Apaiz laguntzallea: sakristaua.

JOXE.—Ea, ba, guztia ongi irtetzen zaigun.

DN. ZAK.—Bai, bai. Bakoitzok geure eginkizuna ongi batetzen badegu, gureaz irtengo gara. (Jeikiaz).—

Eta banoa. Aurrera «Joxemaritarrak»!! (Joaten da)

M. KORO.—Agur, Dn. Zakarias. (Atea isten du)

JOXE.—Ongi itxe zan gero, ate hori!

M. KORO.—Bai, bai. Ongi itxi dut.

III

JOXE, MARI-KORO ETA DN. MAXIANO

M. KORO (Ate-ondotik).—Ai, ene!! Hau da gorputz guztiko ikarra etorri zaidana.

JOXE.—Zer esan dun?

M. KORO.—Ez dakit, ez dakit (Esertzen da)—Hau da hestutasuna. Ez dakit gaindu ahal izango dutean.

JOXE.—Zer esan dun? Orain horrelakoak? Konturatzten ote haiz zer joko daukagun eskuartean?

M. KORO.—Bai, aitona. Horrexegatik du ba nire ikara hau.

JOXE.—Ahaleginak egin behar, ahaleginak egin. Ala, orain atzera egin behar al dun?

M. KORO.—Atzera, ez, inola ere ez atzera; baina...

JOXE.—Aurrera orduan.

M. KORO.—Heldu zaigu ordua. Bai, ordu heldu. Hain debora luzean zain-zain egon garan ordua. (Bere bihotzera eskuak eramanaz)—Okerrik ez badegu, une batetik bestera, besarkatuko gara...

JOXE.—Ordua dinagu eta atera zann argi-ontzia.

M. KORO.—Bai, bai, ordua. Beriala... (Eta argiontzi
billa doala)

(Ateko txintxarria entzungo da)

M. KORO (Larriturik).—Nor da?

DN. MAX.—Neu naiz. Ideki.

M. KORO (Idekitzen dio).

DN. MAX (Harriturik).—Zer da pasatzen? Zer? Zer-
bait al duzute?

JOXE.—Ez, ez; ez dugu ezer.

DN. MAX (Alkian exertzen da)

M. KORO.—Ezer ez, aita; ezer ez. Zera... zera... zu
honen goiz etxera ikustean... zera...

JOXE.—Zerbait ote duzun...

DN. MAX.—Ez, ez; ez dut ezer. Paper batzuen eske
etorri naiz.

M. KORO.—Eta handi-handi, zeu etorri gabe ez duzu
bitartekorik aurkitu?

DN. MAX.—Egia, esan, ez dut bilatu nahi izan. Ihez
egin nahi nuen billeratik eta hori izan dut aitzekia.

M. KORO.—Ez duzu ongi egin. Zer esango dute beste
Biltzar-lagunek? Zer?

DN. MAX.—Esan bezate nahi dutena.

M. KORO.—Ez, aita. Hori ez dago ongi egina.

JOXE.—Ez guttiagorik ere.

DN. MAX.—Ongi edo ez ongi, ihez beiontzat.

JOXE.—Onak esango dituzte atzetik.

DN. MAX.—Maxiano ez dute gehiago nahaste hortan
sartuko.

JOXE.—Okerren bat izan al duzue?

DN. MAX.—Bai, nahikoa oker. Baina Maxiano ez dute
gehiago okertuko. Gure Elkartea, Aduana jarriza-
leen Elkartea; eta ez politika egiteko.

JOXE.—Difunteak hamaitxo aldiz adierazten eman
zizun.

- M. KORO.—Bai, aita. Amak bizi zela, makinatxobat bider bota zizun hori.
- DN. MAX.—Bai, egia dun. Gaxoa aingeru on bat zan eta...
- JOXE.—Zu berriz, deabruekin bat eeginda ikusten hark.
- DN. MAX.—Bai, aita. Egia handia orixe. Ez nuen asko uste horrelakorik.
- M. KORO.—Zer izan edo zer nahi dute orain?
- DN. MAX.—Ba dakizute, Joxe Bonaparte, Napoleoen anaia, Gipuzkoan zehar ibilia dugula orain hila bete batzuk.
- JOXE.—Joxe Bonaparte, ez; «Pepe Botella».
- DN. MAX.—Bai, bai: «Pepe Botella». Eta orduan, Napoleonek «Pepe Botella», bere anaia, Espaniako Errege eta Gipuzkoako Errege hautatu zezatela agindu zion Gipuzkoako Baztarrari.
- JOXE.—Bai, ongi dakit hori. Eta Gipuzkoako Batzarrek bai erantzun bikain eta jatorra emen ere Napoleon harroputsari. Gutxien uste zuena.
- M. KORO.—Zer erantzun zion ba?
- JOXE.—Madridenten hauta tu behar zutela lehenengo. Eta Madridenten hautatzen bazuten, handik lau egunera, Fueroak agintzen duen bezala, Gipuzkoarrak hautatuko zutela. Baina, lehenengo Fuero horiek zaindu eta Juramentatzeko prest baldin bazegoen.
- DN. MAX.—Irteera polita.
- M. KORO.—Bikaina. Gipuzkoarrek ongi baizekiten Madridenten ez zutela ongi hartuko.
- JOXE.—Hori, ba, hori. Zer uste zuen ba, Napoleon aurpegi lodi horrek, gipuzkoarrok nolana egiten ditugula gure Fueroak? 1.200 gko urtean, Gipuzkoak, bere gogoz, berak hala nahi izan zuelako, Kastillako Erregea hartu zuen beretzat ere. Gipuzkoarren borondatea hala izan zelako eta ez beste inork hartara behartu zuelako. 608 urte daramaz-

kigu Castellako Erregea gipuzkoarrona ere dugula. Denbora horretan, 30 enbat Erregek Ebanjelioaren gainean Juramentu egin dute gipuzkoarron Fueroak zainduko dituztela agintzen. Zer esaten digu horrek gipuzkoarroi?

M. KORO.—Errespetagarriak dira gero gure Fueroak.
DN. MAX.—Bai, benetan errespetagari.

JOXE.—Inoiz Erregeak gauza bat agindu eta hemen-goek berriz, —Ezetz. Ez zutela ongi hartzan Fueroen kontra zijoala eta. Besteetan, berriz, hemen-goak Fueroen kontra erabakiren bat hartu eta Erregek, ezetz, ezegoela ongi. Baina, beti gizatasun onean bizi izan gara. Eta orain Napoleontxo guri errege jarri nahirik gure gogoaren kontra? Egundokirik ongien porta zen gure Batzarra.

DN. MAX.—Gure Elkartek, berriz, batzarkide horiek zalatzea nahi du eta horiei beren endasunak kentzea.

JOXE.—Ezin dezakete hori egin. Hori kriminalkeria eta lapurkeria da.

M. KORO.—Hori gipuzkoarron kontra joatea da.

DN. MAX.—Nik ere horreladela uste dut. Horregatik ihez egin dut batzarretik.

M. KORO.—Ihez ez, aita. Berriz hartu joan behar zara. Ezin dezakezu sorbaldak jaso edo hor korpon egin. Konturatu egin behar zara lekutan zaudela eta hori egitea ez dela zuren jokatzeari.

DN. MAX.—Bai, alaba maitea! Lehen egindako butsegiteak nahiko eta gehiegi ditut. Eta ez berririk (Jai-kiaz) Banoa. Bai, bai. Gaurtik aurrera beste era batera jokatuko dut.

JOXE.—Bejeundeizula!

DN. MAX.—Eskerrik asko.

M. KORO.—Aurrera, aita, aurrera «joxemaritarron» bidean.

DN. MAX.—Gero arte. (Joaten da)

M. KORO (Ateraino lagunduz).—Agur, aita.

IV

JOXE, MARI-KORO ETA MITXEL

- M. KORO (Arduratuaz).—Ai, ene! Gure errugabeak zer egin ote dute?
- JOXE.—Behar bada gure zain zeuden.
- M. KORO.—Horrela uste duzu?
- JOXE.—Onezkero Dn. Zakarias heldua dun hara. Egin behar zuena egin da.
- M. KORO.—Bai, egin behar zuena egin da, baina, nork daki zerbait atzerakizun ez ote zuen izango? Aita ere, haren eta gure ustetan ez genuen ezperu, baina...
- JOXE.—Bai, horrela dut hori ere. Baina, joan dun, eta bi aldetatik, pozgarri dugula.
- M. KORO.—Zer deritzaizu gure argia piztuko bagenio orain bertatik?
- JOXE.—Dagoeneko?
- M. KORO.—Ez dakit, ba, dagoeneko dugun. Ni berriz ere ikaraka hasia nago.
- JOXE.—Orduan, etsi-etsian, gure lanari ekin behar zionagu. Ekar zan gelako giltza eta neuk piztu zienet.
- M. KORO (Emanaz).—Har zazu, eta lehenego Aitaren eginda piztu, behintzat.
- JOXE.—Bai, bai, eta Jainkoa lagun dakigula (Gela alderantz hasiera batera)
- M. KORO.—Geldi...!!!!
- JOXE (Geldituaz).—Zer?
- M. KORO.—Ixooo!! Norbait entzun dutala uste dut.
- JOXE.—Zer esaten dun, neska, zer?
- M. KORO.—Ixoooo!!! (Joxegana joan eta belarrira, baina entzuleak antzuteko eran)—Oinhotsak entzun ditut. Ixooo!
(Biak zer entzungo egongo dira pixkabatean)

- JOXE (Lasaiturik).—Neska! Ez didan ikara makala sartuazi. Neu ez ezik, besteok ere ikaraz jarri gaitun. Nire belaun hauek ez zekinat zutik eduki ahal izango nauten.
- M. KORO.—Egia, aitona. Norbait entzun dut. Oinkadak izan dira.
- JOXE.—Noren oinkadak?
- M. KORO.—Norbaitenak, bai. Eta atearen ondoan gelditu direla esango nuke.
- JOXE.—Neska...! Mesedez...
- M. KORO.—Bai, aitona, bai; egia da entzun ditudana.
- JOXE.—Beldurrak entzunazten dit, bildurrak.
- M. KORO.—Bildurrak ez, aitona, bildurraz ez.
- JOXE.—Ez zan ahaztu, gero, gure esku bizi baten jokoa dugula. Bizi bat, eta besteok ere, Joko hontan harrapatzen bagaituzte, hestu ibili...
- M. KORO.—Ba dakit hori; baina... Ai, ene!! Ez genuke besterik behar...
- JOXE.—Banian... (Joaten hasiaz batera)
(Kanpoko ateko tzintzarria entzungo da)
- JOXE (Lasterka batean gelara sartzen da)
- M. KORO (Karraxi handi bat egingo du eta dagoen lekuan tinko geldituko da, bildur-ikara batean)
(Txintzarria entzungo da berriz ere)
- M. KORO (Arnaasa luze bat egin ondoren).—Nor da?
- MITXEL (Agertu gabe).—Mitxel naiz. Ideki zadazu, mesedez.
- M. KORO (Bere izakera sendotuaz atea zabalduko dio)
- MITXEL (Lehunkeriaz).—Gaun on, Mari-Koro, gau on!
- M. KORO (Beti oso lehor).—Zer behar duzu?
- MITXEL (Beti lehunkeriaz).—Zure aita jauna etxean al da?
- M. KORO.—Ez.

- MITXEL.—Eta nora joan den edo ez al dakizu?
- M. KORO.—Ez, ez dakit.
- MITXEL (Alderdi guztietara begira).—Egia, egia ez dakizula nora joan dan? Egia, Mari-Koro?
- M. KORO.—Egia.
- MITXEL.—Baina noiz etxera etorriko den jakingo duzu?
- M. KORO.—Ez, ez dakit.
- MITXEL.—Zerbait pasatzen al zaizu?
- M. KORO.—Ez.
- MITXEL.—Egia, egia ezer pasatzen ez zaizula?
- M. KORO.—Egia, bai.
- MITXEL (Axaleko irri-barrez).—Poztutzen naiz, poz-tutzen naiz. Jakina. Nola poztuko ez naiz ba? Ezai-zu beraz ezer pasatzen, ezta?
- M. KORO (Amurruz).—Ez ezzait ezer pasatzen. Eta zer zuri?
- MITXEL (Orduan eta azalergia handiagoaz).—Ederki, ederki. Hala ere, hala ere karraxi handieegia egin duzula uste dut.
- M. KORO (Larriturik).—Nik karraxi handia egin, nik?
- MITXEL.—Ez, ez, ez, ez. Zuk, ez; beste Mari-Koro batek...
- M. KORO (Lehengo gogortasun hura aldatuz eta diximulatu nahirik).—Aaaa!!! Bai, bai. Esango di-zut. (Gezurrezko irri-barrez)—Zera... zera... Ba dakizu, Mitxel, gure etxe hau oso handia da eta...
- MITXEL.—Bai, bai, bai. Oso ongi, Mari-Koro, oso ongi. Horrela hobe duzu. Jarrai... jarrai.
- M. KORO.—Ba dakizu, etxe zaharra ere ba da eta; zirrikitu asko ere ba ditu eta...; xagutxo betek irten du eta...
- MITXEL.—Horrela izan behar, bai.

- M. KORO.—Bai, bai; horrela izan da guzia. Eta ba dakizu, emakumezkoak nola garen (Ja, ja, ja!!)—
Izutu egin naiz eta gero karraxi egin dut.
- MITXEL.—Bai, bai, bai. Nire belarriak ez naute gezurtatu. Oso ongi karraxia entzun dut.
- M. KORO.—Bedur handia diot nik xaguari, emakume guztiak dioten bezala.
- MITXEL.—Baina zure xagutxo hori zagutxoa baino handiagoa zen nolana ere.
- M. KORO.—Zer diozu?
- MITXEL.—Niri behintzat, oso oinkada hotz handiak eraman dituela iduritu zait.
- M. KORO.—Zer, zer? (Aldatu nahirik) A... bai, bai. Zer behar diozu nire aitari? Ez didazu esan oraindik. Batzarrera joan da. Oraindik orain irtenda hemendik.
- MITXEL.—Bai, bai, bai. Ba dakit orain. Horixe jakin nahi nuen, horixe.
- M. KORO.—Zer jakin nahi zenuen, zer?
- MITXEL.—Ez, ez, ez, ez. Beste une batean esango dizut. Ba donoa orain.
- M. KORO.—Ezer hartu gabe ez zara baina joango? Har zazu zerbait?
- MITXEL (Joanaz berekiko bezala).—Sasiak, begiak eta hormak, belarriak. Sasiak, begiak eta hormak, belarriak. (Joaten da)
- M. KORO (Batera eta bestera ibiliaz).—Ai, ene!!!! Galduak gara!!! Galduak gara oraintxe!! Gizon horrek galduko gaitu. Aitona!! Aitona!!!
- JOXE (Azalduaz).—Zer dun, neska, zer? Zer horrela jartzeko?
- M. KORO.—Ai, aitona!! Gureak egin du. Galduak gara. Manu gisajoa!!!
- JOXE.—Mari-Koro! Mari-Koro! Zer esaten ari haiz?
- M. KORO.—Bai, aitona. Gizon hori inpernutik irten dako gizona da. Guzia dadi horrek.

- JOXE.—Nork esan din hori? Hi ez hago ongi.
- M. KORO.—Deabruekin parte du horrek.
- JOXE.—Hire iduripenak ditun. Hark ez zekin ezer. Baina, horren makala al haiz? Joxemaritar bat horrela jarri? Horren gauza bategatik hestutu? Hark ez din hiri ezer esan. Konturatu hadi.
- M. KORO.—Bai, aitona. Nahiko eta gehiagi esan dit. Guzia daki horrek.
- JOXE.—Arrazoi jandiagoa oraindik, gure lana aurrera eramateko. Guzia baldin badaki errexago izango zaizkane, Manu, dagoen lekuan harrapatzeko. Handik atera lenbaitlehen, handik atera behar dinagu. Hori gure egitekoa.
- M. KORO.—Egia, aitona. Arrazoi handia duzu hor.
- JOXE.—Ez zeukanagu orduan gure egitekoa betetzea baino. Eta lehenbait lehen betetzea hobe.
- M. KORO.—Bai, bai.
- JOXE.—Gertu orduan. Ba niatxian. (Joaten da)
- M. KORO (Belaunikatuaz).—Ama!! Koroko nire Ama maitea! Zure behar gara. Zure laguntzaren behar. Erregutu zaiozu Zure Seme Jesus-i, gu pekatarien alde, orain eta gure eriotzako orduan. Orain, nire Ama maite, une hontan batez ere. Una hau, oraingo une hau Manuren eriotzaako ordua izan ez dadin. Ama! Nire Amatxo maitea!!!
- JOXE (Agertuaz, eta poz-pozez).—Koro! Koro! Heldu da Dn. Zakarias, heldu da...
- KORO (Poz-pozez jeikiaz).—Bai?
- JOXE.—Bai, heldu da eta...
- M. KORO.—Eta...
- JOXE.—Bai, bai... Ideki zan atea. Ideki aguro.
- M. KORO (Atera joan eta idekiaz).—Hau poza Dn. Zakarias.

V

MARI-KORO, JOXE, DN. ZAKARIAS ETA MANU

DN. ZAK. (Arnasa hestuka agertuko da eta hitzik egin gabe alkiari eseriko da)

JOXE.—Eta Manu?

M. KORO.—Hemen dator, hemen dator. (Beso zabalik)

MANU (Nahioa hestu agertuko da eta hitzik egin gabe Mari-Koron besoetara erotzen da.

M. KORO.—Manuuu!!! Manuu!! Zer duzu, zer?

MANU (Arnasa hestuz).—Ez dut, ezer?

M. KORO.—Eseri zaitetz, eseri. (Esertzen laguntzen dio)

MANU.—Ez dut ezer.

DN. ZAK.—Ez dugu ezer, ez dugu ezer.

JOXE.—Zerbait, bai.

M. KORO.—Bai, bai. Zerbait izan duzute. Zer?

DN. ZAK.—Ezer, ez. Hutsa. Nire baratzetik irten eta lasai gentozela, norbait gure ondoren zetorrela konaturatu gara. Eta orduan lasterka bizian hasi gara eta... horra.

MANU (Barrezka).—Dn. Zakarias ni baino lasterkari hobe dela.

JOXE (Parrez).—Jakina, penitentsiak egiten indartu egiten dela.

DN. ZAK.—Egia hori, egia. Errex errex biziuetan ibiltzeak baino gehiago.

JOXE.—Mari-Koro. Ekartzean zerbait piztugarri.

M. KORO.—Zer hartu gogo-zarate?

DN. ZAK.—Ez, ez.

M. KORO (Bila doala).—Bai, bai.

DN. ZAK. (Jeikiaz).—Mari-Koro. Denbora irabazi behar dugu. Ez dugu denborarik eta zure aitona eta nik, barruen hartuko dugu zerbait. Eta zuek

- biok, berriz, zuen «Kontu potxoluak» esan nahi izango dituzue eta geldi zaitezte hemen.
- JOXE.—Ederki, ederki.
- (Dn. Zakarias eta Joxe barrura joaten dira)
- M. KORO.—Zer hartu nahi duzu, Manu?
- MANU.—Utzi zaiozu. Ez dut gogorik.
- M. KORO.—Txakolin pixkabatek ez dizu kalterik egingo. (Ateretzen du)—Getarian egin dan txakolinik onena daukagu. (Atera eta ematen dio)
- MANU (Hartuaz).—Zuk emandakorik ez dezaket utzi. (Edaten du)—Ederra benetan!
- M. KORO (Manuren albian eseriko da).—Bakarrik utzi gaituzte.
- MANU (Mororen eskubiak bere biaz hartuko dizkio).—Bai, Mari-Koro, biok bakarrik.
- M. KORO.—Eta Jaungoikoa guri bagira, hirugarren lagun dugula.
- MANU.—Egia, ez naiz ahaztu ez.
- M. KORO.—Oso ongi, oso ongi. Eta orain biok hemen gauden ezkerro, zer esaten didazu?
- MANU.—Zer esatea nahi duzu? Lehenago esan gabekorik?
- M. KORO.—Zerbait. Zure barruka kontuak. Hasi zaitetz, hasi. Ia?
- MANU.—Polit-polita zaaudela.
- M. KORO.—Eta zer gehiago?
- MANU.—Zure aurpegian ez zure izatean ez zarala aldatu: Orain sei hilabete zinan ber-bera zuade. Denbora luze hotan nire amesezko begiz ikusi zaitudan ber-bera.
- M. KORO.—Eskerrik asko, eskerrik asko.
- MANU.—Eta ni nola hurkitzen nauzu? Egia, e?
- M. KORO.—Zu ere bai, Manu; ez zara aldatu.
- MANU.—Ez, ez. Egia ez da hori.
- M. KORO.—Zurbilago pixkabat.
- MANU.—Zurbilago eta ahulago. Ongi dakit hori. Ha-

maikatxo aldiz gogoratu ditut itsasuntziko eguraldi eder haiek. Eguzki galdatan, kresal-lanbrutan, haize osansugarri haiek. Dn. Zakariasen baratzako txa bolan palta baina.

M. KORO.—Halare, gazteluko kalabuzuan baino haize hobeak izan dituzu.

MANU.—Bai, egia hori ere.

M. KORO.—Eta hemendik aurrera hartuko dituzunak ere... (Musuzapia begiestara)

MANU.—Zer duzu; Mari-Koro, zer?

M. KORO.—Gizajo handia. Gizajo handi bat zara, Manu.

MANU.—Zergatik baina, zergatik?

M. KORO.—Ez zara konturatzen zer egitera zoazen. Txabolako zure bizibidea txarra izango izango ziztaizun, baina...

MANU.—Ez ona ere.

M. KORO.—Ez; ba dakit hori. Baina orain hartu behar duzuna hobe ez zaizu izango. Gerrara zoaz, gerrara. Konturatzen ote zara benetan?

MANU.—Bai, konturatzen naiz.

M. KORO.—Ez, ez zara konturatzen. Konturatuko bazina ez zinaake joango eta, egia esan, horrexek nahi gabetzen nau. (Negarrari ematen dio)

MANU.—Ez zazu negarrik egin. Mesedez, ezazu negarrik egin.

M. KORO.—Zer uste duzu, bihotz gabe naizala? Edo harrizko bihotza dudala? Gerra zital batera zoaz... gerra zital batera... Gehiago ez zaitut ikusiko...

MANU.—Mari-Koro!!!

M. KORO.—Gerra madarikatua! Milla bider madarikatua!!!

MANU.—Bake zalea izan nauzu beti. Baina, nik nahi izan edo nahi ez izan, gerra sortua dugu gure herrian. Gure lur guztia gerran dago. Hau dugu egia. Eta gerrak sortu duen giroa gure gain daukagu. Eta

giro horrerri erantzupen on bat eman beharrean aurkitzen naiz.

M. KORO.—Nahikoa giro txar edo nahikoa aldi txar eman duzu zure txabolatxoko bizibideaz. Zertarako giro txar hortan sartu behar zara?

MANU.—Eta zer nahi zenuke txabola hartan aurrera ere jarraitzea? Beti hartan bizitzea?

M. KORO.—Beti, ez. Gerra ez da betirako izango. Eta gero... Batzuek gerratik ihei dabitza. Eta zu berriz gerrara... Ez nauzu maite... Gezurra da guztia...

MANU.—Ez idazu horrelakorik, esan, lehenaz gainera nahigabetu egiten nauzu eta. Nola esan diezadakezu hori orain? Hain zuzen une hontan?

M. KORO.—Adierazi izan dizut lehenago ere Dn. Zakariasen bitartez.

MANU.—Bai, txabolan ongi nengoela.

M. KORO.—Ez, ez; ongi ez; baina, nire inguruan bizi zinen... eta behar bada...

MANU.—Mari-Koro. Hemen bakarrik utzi gaituzte-nean, biok eta beste Hirugarrengo bat dugula gogorazi didazu. Orain, ba, Hirugarren hori lekuko dugula, entzun idazu. Maite maite zaitut. Ongi dakizu hori. Baina nire barruko sentipenak ere maite-maite ditut. Ongi dakizu hori ere. Beti eta nonnaiti erakusten emen ditut. Txabolako denbora luzean ongi aztertu dut nire barrua. Galdezka ari izan natzaio zein bide hartu. Eta nire kontzientziak nire bidea mendirakoa dela erantzun izan dit. Zer besterik egite nahi duzu orain? Nire kontzintziaren deiari entzungor egin? Gerra pozgarria ez dela ba dakit. Baina gizon bezala, gazte bezala, ez dezaket nire eginkizuna bete gabe utzi. Ez, Mari-Koror erantzupen izango nuke gure ondorengoan aurrean?

M. KORO.—Zure oraingo sentipen horiek, behar bada, ez dira gero ongi ikusiak izango, aldiak aldatu egiten dira eta. Eta ez duzu inongo lotsakizunik izango.

MANU.—Gero, ez; baina ni orain bizi naiz, gaur bizi naiz, eta gaurkoari erantzun behar diot. Bihar, bihar izango diranak erantzun beharko dute.

M. KORO.—Gaur gerratik urruti eta bihar ere patxandan biziko diren asko izango dira.

MANU.—Gu ere biziko gara. Ba dakit biziko garena. Barruak esaten dit. Gerrara dei egiten didann barru honek. Gerra hontatik onez aterako naizela esaten dit. Bai, Mari-Koro. Gu biok, Ezkontzako Sakramentua hartu ondoren, urte askoan biziko gara. Gure seme-alabekin, haien seme-alabekin, poz-pozez biziko gara. Ez ezpairik izan.

M. KORO.—Zure borondatea horrela duzun ezkerro, ez dizut gehiago atzeraka egingo.

MANU (Poz-pozez).—Eskerrik asko; eskerrik asko. Benetan elkar maite dugu. Gure maitasunik ezin daiteke hautsi. Gaindu dugu txabolako bizibidea; gainduko dugu gerra eta gainduko dugu ondorengo bizibiderik garratzena ere eta gure maitasunak beti iraungo du, beti, beti, beti...

M. KORO.—Jainkoak entzun dakizula.

(Joxe eta Dn. Zakarias agertuko dira)

DN. ZAK.—Gazteok! Heldu zaitu ordua. Berandu baino lehen aurrera egin behar dugu.

MANU (Jeikiaz).—Ni gertu nago.

M. KORO (Jeikiaz).—Eta untzikoak gertu al daude?

DN. ZAK.—Bai!, bai! Arratsalde erdirako untzian daude Popix aita-semeak. Beren gau-arrantzarako apai-xoak gertatzen.

JOXE (Parrez).—Haiek beraiek ere ez dira apaixu makalak.

M. KORO.—Zintzoak ez direnik ezin uka dezakegu.

DN. ZAK.—Orain ere han daude zintzo asko, beren paol argitan. Guzia prest dago beaz.

JOXE.—Eta gau giro ederragorik ezin eska dezakegu.

Terral haizetan egundokorik lasterren egingo duzue hemendik harakoa.

DN. ZAK.—Bihar, Jainkoa, lagun aske, libro izango haiz Manu.

M. KORO.—Bihar baiña hori. Eta gaurkoa oraindik pasatzeko.

MANU.—Pasako dugu: Ez zalantzarik izan hortan. Eta bihar gerrari bat gehiago izango naiz Napoleonen kontra.

DN. ZAK.—Hori duk hori. Hori duk Joxe-maritar jatorra izatea. Aurrera. Manu.

MANU.—Nahi duzutenean.

DN. ZAK.—Joxe. Begira ezazu leihotik ea argia piztua jarraitzen duen.

JOXE.—Berehala. (Barruko gelara joango da)

DN. ZAK.—Eta untzira heltzen zarenean ez ahaztu hango argia itzaltzea, guretzat heldu zaren siñale izan dadin.

MANU.—Ez naiz ahaztuko.

JOXE (Agertuaz).—Argiak han jarraitzen du piztuta. Beaz, han ez da nobedaderik. Baina, hemen etxe ondoan, norbait izkutatu dela uste dut.

GUZIAK.—Zer???

JOXE.—Bai, garbi asko ikusi dut. Ez dut ezgutu, baina, ongi ikusi dut.

M. KORO.—Mitxel ez badabil halere.

DN. ZAK.—Bai zera! Ezazu horrelakorik esan.

M. KORO.—Nor izan daiteke bestela?

JOXE.—Kontrabandistaren bat edo...

MANU.—Gure ondoren zetorren hura edo...

M. KORO.—Ez duzue ezagutu baina. Eta nor zen ez dakizue.

DN. ZAK.—Ez, ez dugu ezagutu, baina, hor baldin bada, berehala jakingo dugu. Neu jetxiko naiz. Ezin gaitezke itsu-itsuan egon. Berehala naiz hemen. (Joaten da)

M. KORO.—Hauek une hestuak. Hontaraino etorri eta... lehenaz gainera hau berriz.

JOXE.—Berehala batean ez zaitahauztuko gaurko gau hau.

MANU.—Ez da horrela hartu behar.

M. KORO.—Zure adoreak gehiago balio du...

MANU.—Adoretu egin behar, Mari-Koro. Ez daukagu atzera egiterik.

DN. ZAK. (Agerturik).—Hor ez da inor ageri:

M. KORO.—Ezetz Dn. Zakarias?

DN. ZAK.—Ez, ez. Eta ez du zertan egon ere.

M. KORO.—Lehen ondoren jarraitu dizuten hark ere ez zuen zertan egin; baina...

JOXE.—Mari-Koro. Isildu hadi.

M. KORO.—Isilduko naiz, baina...

DN. ZAK.—Zer diozu, Manu?

MANU.—Esan dut lehenago ere. Gertu nago ni.

DN. ZAK.—Eta zuk Joxe, zer diozu?

JOXE.—Inor aurkitu ez baduzu eta bidea libro egon...

DN. ZAK.—Libro aurkitu dut; horrela uste dut.

M. KORO.—Nik ez dut horrela uste.

DN. ZAK.—Orduan Manuk erabaki behar du.

MANU.—Erabakia dut.

DN. ZAK. (Eskua Manuri emanaz).—Orduan, Aitaren egin eta, aurrera!

M. KORO (Berak lepoan daraman domina atara eta mun emanaz Manuri ematen dio).—Manu, ez ahaztu.

MANU (Domina hartu eta mun emanaz jantzitzen du).—Ez, Mari-Koro. Biok nirekin eramango zaituztet beti. Agur Joxe!

GUZIAK.—Agur!

MANU (Aitaren eta Semearen... eginaz irtetzen da). (Dn. Zakarias, Joxe eta Mari-Koro, geldirik, isilik gelditzen dira. Eta isiltasun labor ondoren (—Paaa!

- Paaa!) (Bi tiro entzungo dira) (Gelditu diren hiru lagunek bat-batean).—Eeeeeee!!!!
- M. KORO (Bere onetik irten da, zoro eginik).—Ai, ene!!! Hil dute!!!! Horra...!! Horra azkenean!!! Agur, Betiko. (Negarrari emanaz bere burua alkira botatzen du)
- DN. ZAK.—Zer izan ote da, zer?
- JOXE.—Bi tiro izan dira. Hemen bert bertan gainera. Norbait zai zegoen.
- DN. ZAK.—Baina, nor egon zitekeen? Nor? Nik ez dut inor ikusi.
- JOXE.—Niko, bai. Izkutatu egingo zen.
- DN. ZAK.—Ezin daiteke.
- JOXE.—Tiroak izan dira. Eta tiroak norbaitek boteak izan dira.
- DN. ZAK.—Baina... Ez, ez. Ezin zitezkeen Manuren kontra. Ez, ez!! Argia ekekarri zadazue. Argiaz neu jetxiko naiz.
- JOXE.—Bai, bai. Ikusi egin behar dugu...

LEHENGOAK ETA MITXEL GERO XARLO

- MITXEL (Kaleko atea indarrez ideki ahertuko da arma eskuetan duela, hestu)
- M. KORO (Esertokitik jeikiaz karraxiz, Dn. Zakarias eta Joxe gorde nahi ditu eta aurrean Mitxeli begira besozalaik).—Ez, ez, ez!! Gehiago ez!!
- MITXEL (Oso-osoan aurreraka eroriko da)
- M. KORO (Mitxelen gana hurretatuaaz).—Baina zer da gaurkoa? Zer? (Mitxeli lurrean dagoala begiratu ondoren karraxiz jaikoda berehala)
- DN. ZAK. (Mitxeli begiratu ondoren).—Zaurituta dago hau. Hil da dago hau! (Gurutza aidean eginaz)—Aitaren eta Semearen...!!
- JOXE.—Hil da? (Urreratuaaz eta begira hasten dira guziak)

M. KORO.—Eta orain, zer? Nork hil duela esango dugu? Galduak gara.

JOXE.—Nork sinistuko digu guk ez dugula hil? Nork?

DN. ZAK.—Oraingo jontatik ez dugu irteerarik.

M. KORO.—Gehiegia da hau. Nork sinistuko digu, nork gu errugabeak garela?

XARLO (Atean arma eskuetan duela agertuko da, eta handik).—Neuk esango dut, neu Mari-Koro neuk.

M. KORO.—Xarloooo!!! Xarloooo!!

XARLO.—Ez hestutu, Mari-Koro. Ez hestutu besteok ershonengatik. Heriotza hau nire erregalu bat duzue zuenzat. Prantzes euskaldun batek, bere euskalduntasunak eragin eta eskaintzen duzuen erregalu bat, bihotz-bihotzez eskaintzen dizutena.

(Oihala behera)

HIRUGARREN GERTALEKUA

Lehenengokoa bera, «Portaleta» kalea. Lehenengotik bost urtera gertatzen da. Donostia, prantzez guda-riak barruan dituala inguratua aurkintzen da, eta inguratzaleak Espaniakoei laguntza ematera etorri diran ingles eta portugaldarrak. «Portaleta» kalea ellaz eta etxe erorien puskaz ageriko da. Prantzes etxeke bandera ere zintzilika nahikoa apurtuta.

HIRUGARREN EKITALDIA

Oihala jasotzean, kale-erdian, Ziztorra, lurrean eserita errukarrizko eran, zauritua aurkintzan da.

I

ZIZTORRA ETA DAMA JUSTA

ZIZTO. (Oso itzal).—Ai...!! Ai...!! Ai...!!

D. JUSTA (Kale ertz batetik bestera igarotzean Ziztorra ikusten du).—Ai, Ziztorra, Ziztorra! Hori da gizonaren planta. Donostia erdia hilda edo zauritua aurkitzen da une hontan eta zu berriz, mozkor-mozkoz eginda, lurraz jaso ezineko eran. Mozkor-

tzea, noizik beingo mozkorra hartzea, tira, barkatzekoa duzu; baina, herriaren negarra ez sentitzea, bihotzik ez izatea, hori pixti txar baten parekoa duzu.

ZIZTO. (Tristeturik).—Donostia erdia hila edo zauritua! Eta ni nongoa naiz ba?

D. JUSTA.—Zuk ez duzu donostiarren izenik merezi. Arduragabeko mozkor batek, ez du donostiar izenik merezi. (Joaten da)

ZIZTO.—Nork nori mozkorra? Sosoak beleari ipurt beltz. Ez bageneki zu nor zaran; hobeto esan, zuok hirurok nortzuk zareten:

«Donostiako hiru damatxo

Errenderian dendari.

Josten da plantxan baakite baina

ardoa edaten hobeki»

Nagoen eran ez banengo, horratik, zureak eta bost entzun beharko zenizkidan. Bai, horixe. «Prantzesatu-prantzesatua» izan eta donostiartzat bere burua. Baina azkenetan zabilzate baintze. Eta ni bizi banaiz gerra hau bukatzean, entzun gabe ez zara izango... Bizi... Bizi... ez dakit... Ai...! Ai...!!

II

ZIZTORRA ETA KONTXEXI

KONTXEXI (Pasatzean konturaturik han nor dagoen).—Ene...!!! Zitorra hemen. Zer egiten duzu?

ZIZTO.—Ikusten nauzu, andre Kontxexi: egon.

KONTXEXI.—Egon, bai. Ikusten zaitut egon zeudela; baina, zer dela eta? Edo... Egokera egokia ez duzu hori, kale erdian horrela...

ZIZTO.—Mari-koron zai nago.

KONTXEXI.—Bere etxera joan behar zenuke, eta haren behar bazera, egokiago izango zaizu. Hemen era hortan ez zaude ongi.

ZIZTO.—Mari-Koro hemen izan behardu, prantzes etxean.

KONTXEXI.—Prantzes-etxean Mari-Koro? Ez dut sinesten.

ZIZTO.—Neri, ba, horrela esan didate.

KONTXEXI.—Ez, ez, ez. Ez dizute egia esan. Mari-Koro ez doa etxe hortara. Neuk dakit hori ongien.

ZIZTO.—Bai, bai, andre Kontxexi: ba dakit bor barruan dena. Gazteluko soldadu zaurituak honera ekarri dituzte eta horiei sendaketak egiten.

KONTXEXI.—Horrela izan behar; bestela Mari-Koro ez doa etxe hortara. Ez horixe! Eta bai aldaki bere zai hemen zaudela?

ZIZTO.—Ez.

KONTXEXI.—Eta denbora luzea daramazu hemen?

ZIZTO.—Bai, nahikoa luze... (Negarrari emeten dio)

KONTXEXI.—Zer duzu? Zer? Zer behar diozu Mari-Korori? Esaidazu.

ZIZTO.—Zauriturik nago, eta horregatik nago Mari-Koron zai.

KONTXEXI.—Non zaurituta? Non duzu zauri hori? Erakuta zadazu.

ZIZTO. (Galtza-barrena jasoaz erakusten dio)

KONTXEXI (Eginaz).— Aitaren eta Semearen...!!
Baina nola zauritu zara eta noiz? Orain egin dako zauri ez duzu hau? Baina, noiz egin duzu? Noiz?

ZIZTO.—Bart aratsean. Gazteluko munizio lekuak su hartu eta lertu zanean.

KONTXEXI.—Eta ordutik honera ezer egin gabe daukazu?

ZIZTO.—Ni baino aurreragoak ba dira eta...

KONTXEXI.—Hori ez da kontua baina. Mari-Korok ezin badu, besteok zerbait egingo genizun. Gazteluan zeunden ala?

ZIZTO.—Ez, ez, andre Kontxexi. Gaztelukoekin ez dut nik har-emanik. Betiko eran edo gehienetako eran, kaian pilatuta uzten dituzten sare lehor gainean 10 nengoela zauritu nintzen.

KONTXEXI.—Han bertan hil ezinanean! Bai, bai, kontentu izan zintezke. Makinatxobat jende ba da hila urrutixiago egonagatik.

ZIZTO.—Ni ere ez dakit nola salbatu naizen. Inpernu guztia zetorrela uste nuen goitik behera.

KONTXEXI.—Gaztelu aldean hamaika errugabeko hil eta zauritu omen da. Ehundakak direla esan da. Gijajo handiak! Eta guzia, gu bake-bakez, geure lekuan geundela, gu zapaltzera bidali zituztelako.

ZIZTO.—Manu, zure semearen berririk bai al duzu?

KONTXEXI.—Bai, Mari-Korok espioen bitartez jasozten ditu. Onik dela ziren azkenengo berriak. Eta laster berenganatuko dutela Donostia. Laster hori berandu dator baina; oso berandu. Bost urte handi dira gero...!

ZIZTO.—Bai, nahikoa berandu.

KONTXEXI.—Mari-Korok ere luzatzen du hemen. Nahiz bazenu nire etxera etorri han egingo nizuke lehemengo sendaketa eta gero Mari-Korori erakutsi. Zer deritzaizu? Ordu asko daramakizu eta ez uste izan txantxetako zauria duzunik. Eta hankan bakarririk al zaude zauritua?

ZIZTO.—Ez. (Bere txapela kenduaz)—Hemen ere ba nago.

KONTXEXI.—Eta ez txikia ere. Jesus, Jesus!! Ez, ez, ez. Hemen ez zaude ongi. Hainbeste ordutan zauriei kontu egin gabe ez zaude ongi. Denak pashotxeko

ere nahikoa duzu. Gurera etorri behar duzu. (Jeintxen lagunduaz)—Tira! Guazen geldi-geldirik.

ZIZTO. (Nolabait jeiki eta errenka) (Elkarri besoa emnaz joango dira)

III

MARI-KORO ETA XARLO

(Prantzes etxertik bi edo hiru zauritutako beren kamilletan aterako dituzte. Beste bi edo hiru soldadu berriz, beren buru, beso edo hanka sendazapiz estaliak dituztela irtengo dute kamila dunak joan diren alderutz joanaz. Haiek joan ondoren Mari-Koro eta Xarlo agertuko dira. Xarlo bere militar jantzi ez zorro bat eskan duela. Mari-Koro gain estalkia eta buruzapia zuriz dituela)

XARLO (Zintzilika ikusten den prantzes bandera, teinkada batez bereganatu eta mun eman ondoren bere zorroan gordetzen du)

M. KORO.—Militar izateko jaioa zara, Xarlo.

XARLO.—Eta zu emakume handi: bihotz handiko emakume jator. Benetan harriturik utzi nauzu. Nire barruan ez zen inola sartu ahal izango horren besteko emakumerik bizi zitekeenik munduan. Zure gaurko egintza honek, zearo txundituta utzi nau.

M. KORO.—Ez horrenbeste, Xarlo, ez horrenbeste.

XARLO.—Bai, Mari-Koro. Bihotz bihotzez autortzen dizut.

M. KORO.—Ez dut egin nire sentipenei erantzun bat ematea besterik: Pekatua gorrotatzeko irakasten digu Elizak; baina, ez pekataria: Eta bide horri jarraituaz, nik ere, gorroto dut gerra, benetan go-

rroto ere; baina, ez gerraria. Nire lagun urkoari laguntza ematea baino ez dut egin.

XARLO.—Eta nik ben-benetan askartzen dizutana. Ez naiz ahaztuko nire bizi guzian.

M. KORO.—Bizi, hori da egin behar duzuna, bizi; baina ez dakit...

XARLO.—Zergatik diozu hori?

M. KORO.—Nora zoaz? Zertara zoaz?

XARLO.—Ongi dakizu.

M. KORO.—Bai, ongi dakidalako gogorazi dizut eta gogorazi nahi nizuke ere azkenengoz. Zure etsaien esku jartzera zoaz. Gerra zital bat galdu eta gerra horren irabazleen esku jartzera.

XARLO.—Galdu, osorik galdu, ez dugu egin. Bitarteko papera egin dugu. Elkar arteko har-eman hortan, gure kondizioa ere aintzar hartu dira.

M. KORO.—Ez dizut ukatuko hori. Baina kondizio horiek nork beteko ditu? Nork?

XARLO.—Paperak hortarako izenpetzen dira. Eta militarren hitza sakratua da.

M. KORO.—Militarrena bai, hala da edo hala izan behar luke; baina, egiaz horrela ote dugu?

XARLO.—Nire aldetik horrela bete izan dut beti. Eta aurrerantzean ere horrela bete asmoz naiz.

M. KORO.—Esan dizut militar izateko jaioa zarela eta izan ere horrela zara. Baina zuen kontra jeiki ziranak eta gerra egin dizutenak ez dira militarrek. Herriko jendea da ea gehiena. Eta herriko jendeak ez dakizki gerrako legeak. Bihotzak bultzarazten dietenaara joko dute. Eta herri hori oso minduta aurkitzen da.

XARLO.—Lord Wellington, Sir T. Graham, Dickon Smith eta abar inglandar buru datoz eta jakingo dute horiek errespetatu arazten. Bestalde, inglandarrak eta portugaldar gudariak izango dira lehenengo honera sartuko direnak.

M. KORO.—Ez dut konfientzarik, Xarlo. Zergatik ez zara hemen gelditzen? Nola joan zaitezke nortzuen esku erori behar zaren jakin gabe? Gorde zaitez gure etxean eta Manu datorrenean, nire aita, nire aitona eta gu guziok zure alde aterako gara, eta orduan...

XARLO.—Eskerrik asko, Mari-Koro, eskerrik asko. Zure aurrean belaunikaturik ere ezin ordaindu ahal izango dizut zure nahia. Baina ezin dezaket hori egin. Militar bat naiz eta militar batek...

M. KORO.—Baina gizona zara lehengo. Bizi bat duzu.

XARLO.—Baina nire bizi hau bandera bati eskainia, aberri bateri eskainia. Ez dut beste irteerarik. Gazteluan, zuen gazteluan, han ikusi behar dut nire suertea.

M. KORO.—Zure etsaien eskuetan.

XARLO.—Baina zure adiskideenetan. Eta ez dut itxaropena galdu, aingeru bat zara eta, zure laguntasuna izango dudala: Eta, agur, Mari-Koro. Berandu baino lehen, gaztelura igotzea nahi nuke. Eta oraingo honetatik onez irtetzen banaiz, eskerrak ematera etorrita hemen izango nauzu.

M. KORO.—Eskarrik asko, Xarlo. Etorri, etorri nahi duzunean: Gure etxea, beti bezala, zurea aurkituko duzu.

XARLO (Eskuan mun emanaz).—Agur, Mari-Koro.

M. KORO.—Agur, Xarlo.

(Xarlo joaten da eta M. Koro pixkabatean Xarlo joan den aldera begira geldituko da)

M. KORO (Etxera sartzerako doala).—Baina...

IV

MARI-KORO, DN. ZAKARIAS ETA JOXE

DN. ZAK. (Agertuaz).—Hau zure aitona! Ezin dela etxean egon eta...

JOXE (Agertuaz).—Ez, ez. Egosteko beroa egiten du han.

M. KORO.—Ez, aitona, gaur, ez. Gaur ez du horren berorik egiten. Gaurkoa baino beroagorik izan degu.

DN. ZAK.—Abustuan gaude eta. Abustuan berorik egiten ez badigu, agur, Donostia!

JOXE.—Donostian herrian ez dakit zer egiten duen, baina, gurean...

M. KORO.—Aitona dugula oso beroa. Eta atxakia faltarik ez kalera irten nahi izateko.

JOXE.—Ez ote gara nahiko deboran etxean egon? Ekaina ezkerok ea ez naiz kalean ibili.

DN. ZAK.—Besteok ere horrelatsu bizi gara Donostian.

M. KORO.—Jakina ba. Nork kalera irtengo zuen armetan dauden soldaduak inguratutik bizi gara eta? Nork irten kanoi granadapean eta ingunru guztietatik tiroz ari direla? Eskerrak zer jana etxean eduki dugun.

DN. ZAK.—Hamaikatxo familia bizi da zer janik ez dutela. Eta janari bila irten ezinez gainera.

JOXE.—Eta ongi deritzaizu hori? Ongi herri guzia gozez edukitzea?

DN. ZAK.—Ez inola ere, hori ez da ongi. Herriko jendeak ez du zer ikusirik gerraz. Gutxiago dagoen eran gozez biziartzeko.

JOXE.—Eta nortzuen erruz? Prantzes horiek gure herriaz jabetu zirelako eta jabetza hori utzi nahi ez dutelako.

M. KORO.—Oraintxe azkenetan daudela uste dut.

DN. ZAK.—Bai, hala du antza.

JOXE.—Ez berehalakoan. Napoleontxok ongi ikusi du gurakin ez duela zer egiterik. Eta guk ere bai horiekin. Non dira euskaldunoiesango hitz biribil haiek? Gure libertadeen alde zabiltzala, gure oiturak, gure Fueroak zainduko zituztela, gure on beharrez ari zirela. Eta jendea gozez hiltzeraino ekarri eta oraindik gure herria libre utzi nahi ez. Eta bost urtean gure kontra gerra eginaz.

M. KORO.—Aitona. Ez zaitez horrela jarri: Bestela beroak hartuko zaitu berriz ere.

JOXE.—Ez zeukanak berotu beharrik. Ongi berotuta natxeon eta kixkalduta ere bai.

M. KORO.—Entzun du, Dn. Zakarias. Abustuko bero honek ez du berotzen, barruko bere beroak.

DN. ZAK.—Itsas-gizona izan dugu eta oraindik ere jarraitzen du; berehalaxe olatu zakar eta berehalaxe bare-bare.

M. KORO.—Baina bestean konturik ateratzen ez daki honek. Kalera irten bakoitzean txakur eta katu, aritzen da horko damatxoekin.

JOXE.—Eta arrazoi handiz ari ere. Jendearen gozeaz jokutzen ari dira. Zergatik «La Marseilleise» kantatu erazten diete gozez bizi diren haurrei, ogi puzka baten truk?

DN. ZAK.—«La Marseilleise» kantua zapaltzallen kontrakoa dugu.

JOXE.—Horek, ba, horrek sututzen nau. Baina helduko zaie eguna horiei ere. Anbotoko Damari lagun egi-tera joaten ez badira, ederki dentzatuko ditut damatxo madarikatuok. Ikasiko dute gozeaz kantatzen ederki.

DN. ZAK. (Barrez).—Baina guk ez degu errebuliziozko kanturik.

JOXE.—Berdin zait «San Iñaxioren martxa» kantatzen badidate ere. Baina, kantatu beharko didate.

DN. ZAK.—Ederra kontua! Damatxoak, «La Marseillaise», erreboluzioaren bandieraren kantua, zapaltzalleen kontrakoa, beroiek zapaltzaille direla, eta zuk berriz, San Iñazioaren martxa, bakearen aldeko banderaren martxa, eta gorrotoz eragin da. Bapo, Joxe! Alperrik gabiltza. Kainoiak ez digute bakerik ekarriko. Bihotzak baketu behar ditugu lehenengo; maitasuna nagusitu gure bihotzetan. Hori da gure dotrinak erakusten digun bidea. Maitasunezko gerrak izan behardu gureak. Gorrototik bakerik ez dugu lortuko.

M. KORO.—Entzun duzu, aitona, entzun duzu?

JOXE.—Hago isilik hi ere, erdi moja haiz eta. Eskuplarioak izan ezker, hirea egina zeon.

M. KORO.—Entzun duzu, Dn. Zakarias hau nolako den.

DN. ZAK.—Hori ez da ezer. Barruko harrokeriak botarazi dion azken zurrunbiloa. Baina ito zaio. Betirako ito ere. Ez da egia, Joxe?

JOXE.—Zuok apaizok, hitz apalez kanoi guztiek baino gerra gehiago irabazten dituzue.

DN. ZAK.—Eskerrik asko, eskerrik asko, Joxe. Bai al garaz ala ez? Haize prexko billa joango al gara?

M. KORO.—Nora joan gero? Laster sartuko dira gureak eta ea «prantzesatutzat» hartzen zaituzten.

JOXE.—Gu «prantzesatutzat hartu?

M. KORO.—Ez dakit, ba, ez dakit. Kontuz ibili bada ezpadan ere.

DN. ZAK.—Apaiz sotana hau zapaltzalleena ez dana ba dakite ongi.

Dn. Zakarias eta Joxe joaten dira)

M. KORO (Joan direnei begira).—Hori nire aitona! Uste omua, balea jan behar duela eta euliari ego bat kentzeko adorerik ez du.

V

HERRIKO JENDEA

(Emakume gazte bat haur bat bere besoetan duela eta beste bat, bi urte ingurukoa bere amaren gonari elduta. Beste neska eta mutiko batzuek, lau urte ingurukoak eta hamar hamabira bitartekoak. Emakumetxo zahar bat ere behar da. Hauez guziak eskuetan beren ontzitzoak dituztela, janari eske doazen ezkerero. Beste emakumezko zahar eta gizon ere azaldu ditezke)

1.º EMAKUMEA (Haur bat besoetan eta bestea gonetatik alduta. Agertu eta atzera begiratur).—Iñaxio! Xabier! Non zabilzate? Ea honera! (Bi mutiko agertuko dira)—Ibili, ibili hortik eta gero zera... ezer gabe gelditzen bazarete, negar egin goze gaze zaratela eta. Haizea jango duzue orduan.

(Bi mutikoak aurrera doaz)

—Nora zoazte? Ez al dakizute hemen egotea nahi izaten dutela? Lehen ere nahiko bekozkoz ematen digu ematen digutena eta okerkeriak egiten hasi orain. Horixe behar dugu.

(Beste hiru lau mutiko azalduko dira)

1.º EMAKUMEA.—Gu zuen aurretik gara.

MUTIKO 1.º.—Eta nork esan dizu ezetzik?

1.º EMAKUMEA.—Iñaxio! Jari hadi hor lehenengo eta hi, Xabier, bigarrengo. Nik neurea zainduko diat.

EMAKU.-XAHARRA.—Ai, zu, emakume. Janaria zabaltzen hasi al dira?

1.º EMAKUMEA.—Ez, oraindik ez dira hasi.

EMAKU.-XAHARRA.—Eta niri ere emango al didate?

1.º EMAKUMEA.—«Alonzafanpatri» bai al dakizu?

EMAKU.-XAHARRA.—Zer esan duzu, Gloria Patri?

1.º EMAKUMEA.—Ez, amona, ez. «Alonzafanpatri», prantzes soldaduen kanta.

EMAKU.-XAHARRA.—Eta nork agindu du hori kanta behar dela?

1.º EMAKUMEA.—Ez dakit nik, baiña, hori kanta gabe ez dute «arrantxorik» ematen. Horko hiru dama horiek dira banatzaile eta.

EMAKU.-XAHARRA.—Horiek? Nahi badute «Donostiako Hiru» damatxo kantatuko diet, kanta zale baldin badira.

1.º EMAKUMEA.—Ederki amona, oso ederki; baina jai duzula hemen uste dut. Zu ere bestaldekoa zarela uste dut.

EMAKU.-XAHARRA.—Ez, ez, ez. Ni hemengoa naiz: Donostiakoa.

1.º EMAKUMEA.—«Joxe-maritarra» zarela esan nahi nizun.

EMAKU.-XAHARRA.—Baita izango ere. Hala, burduntzika bat «arrantxoz» erosiko nautela uste al dute? Gonsetzea daukate «arrantxo» hori beren soldaduentzat. Lehen ere soldadu zaleak izan ez balira ez ziren orain dabiltzan bezain harro ibiliko (Joaten da).

VI

LEHENGOAK ETA MANU

MANU (Mendiko gerra-mutil jantziz agertzen da, bere arma eskuan duela. Herriko jendea han ikusirik harrituta).—Zerbait pasatzen al da? Zer egiten duzue hemen?

BATEK.—Prantzes soldaduen arrantxu kondar zai.

MANU.—Kuartela al daukate hemen?

BATEK.—Ez, ez. Horko damak ekartzen digute kuar-
teletik.

MANU.—Dama Justa, Dama Kleta eta Dama Txelak?

BATEK.—Bai, bai.

MANU.—Orduan nahiko ongi portatzen datoz, zuen
alde hori egiten badute?

BATEK.—Bai, bai. Eskerrak horiei; bestela beste mun-
duan geunden onezkerero.

MANU.—Sinisten dizut, sinisten dizut. Inpernuan ere
lagun onak arkitzea ona izango dela esaten dute
batzuk eta... Poztutzen naiz, poztutzen naiz, gure
hiru damatxoa horrela portatu direla jakitzeaz. (Ma-
ri-Koron etxera joango da)

VII

LEHENGOAK ETA HIRU DAMATXOAK

(Hiru damatxoak beren saskia ogi puzkaz dakar-
kitela agertuko dira: Guziak errenkodanjarriko dira)

D. JUSTA.—Entzun, entzun! Kuartelean ez da gaur
arranxorik egin eta ogi puzkak baino ez ditugu ba-
nanduko. Biharkoren berririk ez dakigu. Baina gure
esku uzten badigu ta langintza hau egitea, pozik
egingo dugu. Goze danari jaten ematea, egintzarik
handienetako bat dugun ezkerero.

D. KLETA.—Gaur ez dugu kantatuko. Gaur lutoa
gordeko dugu hildakoen alde.

D. TXELA.—Eta orain, beti bezala, zatozte gure atadira
eta dagoenetik emango zauzue. (Guziak errenkadan
joango dira)

VIII

MARI-KORO ETA MANU

MANU (Agertuaz).—Bai, Mari-Koro. Barkatu, baina Xarloren bila joan behar dut. Ezin dezakegu hor etorri diren horien esku utzi. Ez dezagun ahaz nire bizia berari zor diogula.

M. KORO.—Ez dut a haztu. Gogoan dut; baina ez du nahi izango etorri. Ni neuk ere ahaleginik asko egin diot, baina...

MANU.—Ekarriko dut, bai; guttienez nork zaindua jarriko dut. Gizonik gutti dira Xarlo hainako eta gure egin beharra, nirea batez ere, haren bizia zaintzea dut orain. Gizon baten heriotza, gizon on batena, gure esku dagoela konturatu gaitetz.

M. KORO.—Bai, ba, hori ere horrela dugu; baina, zuk zurea ere zaindu egin behar duzu.

MANU.—Zainduko dut. Oitua nago, Mari-Koro, arriskuak pasatzen.

M. KORO.—Egin zazu orduan, nahi duzuna.

MANU.—Banoa, ba, banoa. (Joaten da)

M. KORO.—Kontuz gero prantzesatuekin. (Bestaldera begiratzean)—Ene!! Nor dator hemen? Hau ezbeharra.

IX

MARI-KORO ETA KONTXEXI

KONTXEXI (Poz-pozez agertuko da).—Mari-Koro! Mari-Koro! Poztu, poztu. Gure bandera, gure bandera jaso dute gazteluan. Gure bandera. Gureak na-

gusitu dira. Bai, bai. Gora «Joxemaritarrak»!!!
(Mari-Koro besazkartzen du)

(Han inguruan diren jende guzia bandera ikustera poz-pozez eta gok emanaz igaroko dira)

KONTXEXI.—Hau poza, Mari-Koro, hau poza!

M. KORO.—Manurekin egindu naiz.

KONTXEXI.—Zer diozu? Manu ikusi duzula?

M. KORO.—Bai, bai. Sartu-irten besterik ez du egin:
Orain, une hontantxe egin du.

KONTXEXI.—Eta nora joan da? Eta ni ikusi gabe joan da?

M. KORO.—Berehala etorriko da. Hemen dugu laster.
Xarloren bila joan da.

KONTXEXI.—Eta nolakoa dago? Aldatu al da?

KONTXEXI.—Bai, zera.

KONTXEXI.—Nire Manu gizajoa!

(Herriko jendea berriz honuntza lehengo erara «Gora Joxemaritarrak». Gora gutarrak. «Gora Donostia» eta abar deizka pasako dira)

X

KONTXEXI, MARI-KORO ETA DN. MAXIANO

MAXIANO (Jendea joan den aldetik oso itun dator).—Jendea pozez joan da, baina...

M. KORO (Maxiagana urreratuaz).—Zer duzu, aita? Zer?

MAXIANO.—Negarra, negarra donostiarrontzat.

M. KORO.—Zergatik, baina, zergatik diozu hori?

KONTXEXI.—Gurean sartu dira. Poztu egin behar gara., Dn. Maxiano, poztu.

MAXIANO.—Gureak ez dira sartu. Kontxexi, gureak ez. Horiek ez dira gureak.

KONTXEXI.—Zer diozu?

M. KORO.—Bai, aita; gureak sartu dira. Manue hemen izan dugu.

MAXIANO.—Manu, bai, gurea da; baina hor sartu diren horiek ez dira gureak: Horiek kriminal odontzale batzuk dira; mozkor batzuek, lapur handi batzuek. Gure herri gaxoa! Gure Donostia ederra... Gizatxar batzuen esku utzi dute.

M. KORO.—Aita, zu ez zaude ongi burutik. Zu ez zaude ongi. Ai, ene! Kontxexi! Nire aita ez da ongi aurkitzen. Burutik egina dago (Besarkatuaz)—Aita!! Aita!! Nire aita maitea! Aita!! Nire aita, maitea! Guziok poz-pozez aurkitzen garon hontan zu... zu orain... (Negarrari ematen dio)

MAXIANO.—Ez nire alaba maite. Ez nago zoraturik. Burutik ongi nago. Ez hestutu. Nire aldetik ez dur ezer. Mari-Koro. Lasaitu zaitetz: Ongi nago: Ez dut ezer txarrik... Osasunez onik nago.

M. KORO.—Orduan, zergatik ez zara poztutzen? Zergatik diozu negarra datorrela? Gure gainera? Hainbeste denboran hau lortzeko egin ditugun ahalegiak egin eta gero... Zertzuk eran dituzu, aita? Zer esaten aritu zara, aita?

MAXIANO.—Ez, Mari-Koro. Ez da hau guk eskatu duguna: Ba dakit zer esaten ari izan naizen. Baina ikusi ditudanak ikusiz gero...Gertatzen datorrenaz gero...

KONTXEXI.—Zer ikusi duzu horrela jartzeko?

M. KORO.—Zer da ikusi duzuna? Esan iguzu, esan aguro.

MAXIANO.—Lasaitu zaitetzte, lasaitu. Lasai hartu. Mingarri zait aitortzea, baina egia da ikusi dudana: egia osoa. Menditik eta gure inguruetatik herrira

direnak inglandar eta portugaldar soldaduak izan dira. Gureak behar bada, geroxeago sartuko dira.

M. KORO.—Manu hemen izan dugu.

MAXIANO.—Manu ez da baina soldadutza guzia. Hainbestetik bat baino ez da. Eta esan bezala, inglandar eta portugaldar soldadu horiek...

(Emakumezkoaren hestutasuneko karraxia entzungo da)

KONTXEXI.—Zer dakar emakume honek, zer?

M. KORO (Beso zabalik).—Zer duzu, zer?

XI

AZKENA, GUZIAK

(Emakumezko gazte bat karraxika agertuko da, zoro eginik, soineko jantziak apurtuta, txima-jario eta odolatan).—Ez, ez, ez!!!!

(Mari-Koro, Kontxexi eta Dn. Maxianok beso zabalik emango dioten babesean geldituko da)

M. KORO.—Zer duzu, zer?

KONTXEXI.—Esan iguzu, zer da pasatzen zaizuna?

M. KORO.—Lasaitu zitez eta esan iguzu.

MAXIANO.—Ez, ez, ez. Esan beharrik ez duzu. Guzia esana duzu: Eta nik ere bai: Jakin nahi zenutena hau dugu bat. Eta... gainorentzekoak...

M. KORO.—Ez da egia. Ezin daiteke hau egia izan: Hau ez da guk eskatu duguna.

KONTXEXI.—Ez, Dn. Maxiano. Guk ez dugu hau eskatu. Gureak ez dute honelakorik egin.

M. KORO.—Ez, ez, ez. Ezin daiteke hau egia izan. Gureak hau egin?

MAXIANO.—Esan dizuet gureak ez direla sartu. In-

glandar eta portugaldarrak sartu direla, gurree laguntza ematera etorriak.

M. KORO.—Hau ez da laguntza ematea. Non dira gure agintariak? Non? Zeri begira daude?

MAXIANO.—Ez dago zer eginik. Gureak egin du.

KONTXEXI.—Ez, Dn. Maxiano: Aurpegi eman behar zaie horiei.

(Joxe eta Dn. Zakarias agertuko dira)

JOXE.—Berandu da aurpegi emateko.

M. KORO.—Ez, Aitona; ez da berandu.

DN. ZAK.—Ezina da, ezina orain, Mari-Koro. Atzerri-tar soldadu horiei libre utzi diete zer nahi egitea. Eta soldadu pila hori guzia, bildur gabe, zer nahi egitera zabaldu da.

M. KORO.—Ezin daiteke askatasun hori soldaduei eman. Hori ez da gizatasunaren bidea.

DN. ZAK.—Ez da, ez, inola ere ez, gizatasunezko giza-bidea, baina lekukoak hor daude enparantzan bilduta. Horiek ikusi dituzte bat-batean guziak nola zabaldu diren zer nahi hura egitera, zora eginik. Le-kutasun gahiago nahi?

M. KORO.—Ez, ez. Eta gero... (Kanpora begira).—Baina zer dator hemen? Zer?

(Herriko jende guzia karraxika eta bildurrez agertuko da. Beraiek esango dituztenetan entzungo diranak: «Ai, ene!! Nire alaba gaxoa!» Nire bihotza! Mozkorti, lapur zikinak! eta abar. Guziak honelakoetan gerta oi den bezala, bateratsu hitz eginaazegiaren antza emanaz eta bakoiztak bere aldetik gaiari dagozkion hitzak esanaz. Guziak agertzean eta Dn. Maxiano eta besteak lasaitasuna emanaz isilarezten dituzte eta orduan)

BATEK.—Bai, Dn. Zakarias. Neuk ikusi dut, neuk neure begiz ikusi dut Dn. Domingo Goicoetxea, bere leihoan tiro batez hiltzen.

MAXIANO.—Gezurrik ez gero esan.

GUZIAK.—Ez, ez. Egiak dira.

DN. ZAK.—Eta zer besterik ikusi duzue?

BESTEAK.—Upel bateri lotuta neuk ikusi dut neska gazte bat, guzia odoletan.

DN. ZAK.—Ez, esan ez esan.

BESTE B.—Hori ez dugu txarrena. Neuk ikusi ditut etxesi su ematen. Sartu diren inglandar eta portugalarrak ziren. Horiek emen diote sua Etxeberria alargunaren etxeari.

BESTEAK.—Baita Lardizabalen etxeari ere.

MANU (Guzien aurrera agertuaz eta adoretzu).—Donostiarrok!! Herritar maiteok!! Entzun. Entzun ongi esatera noakizuen. Negar herri bat izan gara bostu urte hauetan; negargarria eta lotsagarria gure herrian orain gertatzen datorrena. Lapurretak, emakumezkoao gogorrez galdutzeak; errugabeko askoren erailketak; suketak, eta abar eta abar. Guzti bouen errua ez da gure. Ez da gure herriaren alde gure biziak eskaini eta jokatu dutenen errua. Garbi jokatu dugu eta aurrerantzean ere garbi jokatuko dugu. Lehenego eta bein, gure ekinkizuna, oraingo aldi txar hau gañditu izatek guziok elkartu eta militar agintariei herria gure gain uzteko eskatzea izan behar du. Eta herria gure gain hartzen dugunean, guzcion indarrez Donostia berri bat egitekoa. Ez dugu lehenego aldiz gure Donostia hau erre ondatu zai-guna, baina, Fenix egaztia bezala, bere hautsetatik sortu izan zaigu. Donostia berri bat egingo dugu. Munduko herrik politena eta ederrena. Jakin dezatela gure ondorengoak ba dakigula ben-enetako donostiar izaten. Gora Donostia!!!

GUZIAK.—Goraaaa!!!!

Oihala behera

AZKEN ZATIA

Gertakizuna oraingo egunetan, «Portaleta kalea» Prantzes etxea zen lekuan.

Donostiako Elkarteren bateko bandera ageriko da: Danborrada eguna edo gaua da. Eta danborrarako jendea eta ikusleak.

Oihala jasotzean guztiak gertu.

BATEAK.—Bai, Dn. Zakarias. Neuk ikusi dut, neuk Danberradako zuzendariak. — Entzun! Entzun guztiok!!! San Sebastian egun bezpera hontan, gure herriko zaindariaren bezpera egun hontan, ez dezagun ahaztu dangorrada honek donostiarroi adierazten diguna. Gure danborrada honek, orazio bat izan behar du, batez ere gure herri hau, honen eder, polit eta jator egiten hainbeste zaiatu ziren eta gaur gurekin hemen ez daudenen alde. Horregatik, nik nire makila hau jasotzean eta jetxi arte, minutu bateko isiltasuna eskatzen dizuet.


(Jasotzen du. Jeistean)—Eta orain entzun guztiok. Gure Martxa honek honela izan behar du: (Kantuz-Tan tarran, tapatatan. Tan tarran, tapatatan!!

Zuzendariak-gertu ba guztiok: (Makilla jaso eta erabili-az Martxa hasiko dute. Eta pixkabaten entzun ondoren...

OIHALA BEHERA

AMAIA

ZAHARRONTZALE ZAHARRA



Junes Casaneve Harigile

”PETTE BASABŪRŪ”



Pette Basabürü
Lehen pheredikia

Jente hunak, jin zideie
egün gure behatzera,
Zeren phastoral berri bat
guatza zier erakustera.

Aldi huntako süjeta
dateke gure herriko;
Emanen deiziegün jeian
girade ezagütüko.

Segür Pette Basabürü
gü bezalako bat zen;
Gure artian sorthürük
Ziberuko potiko zen.

Herria maite beitzian,
behar zian heben bizi;
Herritarretarik hüsten
etzian nahi ikhusi.

Basabürüko Xaxia,
etxalteko prima huna,
Begistatzen dü aspaldian
bildü nahiz bere gana.

Anartian neskatilak
bere herria üzten dü,
Hiriko bizitziaz
ilüsitürük beitätü.

Bertan haren aitetamak
hortzaz arrenküra dira,
Pette ere bai erreüs
maitia juanik hara.

Beste lagünak bezala
lan tzarrari da lothürük,
Herotsak eta xoildürak,
herriko minak ere joik!

Udako lanartetara
jineko da phausatzera,
Heltübada egoitera
goguan dian arabera.

Bena herriko bestetan,
gaztiak dira mozkortü;
Xaxi aldiz khexüz khexü
hoik ikhustez zaikü greütü.

Pettek eta lagünek deitzoe
arra-berritzen indarrak:
Adüla gaixtuak üztez
txerkha ditzan ere hunak.

Aitetamek nahi die
Xaxi gatzarazi etxen,
Etxenko prima bezala
pharte oso dezan ükhen.

Pettek bere maitharzüna
agertzen deio ordian,
Ta alkharreki direla
biziko Basabürían.

Neskatila mardiallerék
nahaspulla ezarteko,
Xaxiri tie gaixkiak
erraiten Petterentako.

Bien aitetamek dütie
gazten xediak lagüntzen,
Beren boztariua ere
orotarat erakusten.

Xaxi eta Pette dira
ezkuntzez algarretatü,
Ta biak Basabürían
bethikoz dirate bürü.

Bere lankheien erditan
Pettek eztü ahatzeko
Herritarreki batian
dükiala egiteko.

Aminixtraziuneko
xeheria güziari
Beharko zaio bühürtü,
bera plantatü lanari.

Kanpoko erosliarrak
ta barneko saltzaliak
Hürrün aizatüko dütü
bizi ditian herriak.

Bakhotxak, bere ogüz,
egin dezan bere sailla,
Herritar güziak dütü
lagüntüko huniala.

Pette eta Xaxi ziren
herrian bizi bakian,
Ororek beitzien hartü
esperantxa bihotzian.

Horiek oro düütützie
gurekilan ikhusiko,
Arauz beiteiziegü orai
ordü hunik emaneko.



Lehen jelkhaldia

Jelkhi Borttol eta Maitena Basabürü, esküiñ.

- Maitena Gai eta egün Xaxi dit
 thai gabe alhen goguan,
 Hiri handila beitzaikü
 juanik aspaldixkuan.
- Borttol Orano berri dizküüzü
 berri hunak igorririk:
 Eztüzü, Maitena, zertzaz
 hola erreüs izaterik.
- Maitena Xaxi da gure alhaba
 eta düzü gure haurra;
 Lüzaz badikezü arren
 orano gure beharra.
- Haiñ hürün düzü galdürük
 oraiko egün tzarretan,
 Ta nuiz nahi heltübada
 jarririk beharrünetan.
- Borttol Gaixtua jinen zaiküla
 eztü behar gogulatü;
 Hortan egoiten bagira
 bizitze hunik eztüzü.

Maitena

Zihaurk ere badakizü
nula joiten dian minak
Eta lotzen zitzaizküla
zalhetto eritarzünak.

Hiri handi hoietan
zer nahigabe da heltzen,
Doi doia gure herrian
beitütügü borogutzen.

Entzüten düzü gaintika
destorbiak kharriketetan,
Itsuskeria, uhuñtza,
kolpatze ere orotan.

Borttol

Bena eztizügü behar
gaiza horier phentsatü,
Zeren, heben, han bezala,
oro agit ditaketzü.

Maitena

Phekü handi hanitx zaie
erorten pe horietan,
Gure alhaba, bentüräz,
izan daite galbidetan.

Borttol

Itsas naiaka badüzü
hiritan bizi jente:
Zentako gure alhaba
bartzertü behar litzate?

Maitena

Zalhe die lagün gaixtuek
hun beratiarra bildürük
Eta enjeñü ziezü
ikhustia eroririk.

- Borttol Xaxi haur huna dizügi
untsa beita altxatürik.
 Eta berjabe delakoz
 ezta zehartzen bidetik.
- Maitena Batere aiher izan gabe
 okherra ziküzü jiten:
 Telebixta aitzinian
 haiñbeste beniz ni lazten.
- Borttol Holako odol gaixtorik
 etzazüla egin othoi!
 Gure bizitze orotan
 egon gitian bihoztoi.
- Udan bertan lanartetan
 jinen ziküzü etxerat:
 Eztat uste junnen dela
 berhala hebertik harat.

Bigerren jelkhaldia

Jelkhi Pette, Eiheralt aita eta Eiheraltsa ama, esküñ.

- Eiheraltsa Haurra, badü egün zunbait
 üdüritzen zaitadala
Trahola handi zerbaitek
ülhüntzen zütiala.
- Pette Bai, Xaxiren arrenkürak
 nizü holaxe ezarten;
 Aspaldixkuan eztizü
 eni berririk igorten.

Ala untsa badakizü
handizki maite düdala!
Uste nizün berak ere
hanitx maite nündiala.

Eiheralt Azken urthetan zütian
neskatilak hürrün juan,
Potikuak ezkuntzeko
herrian ützi ziti-ian.

Pette Hola hola aitzinara
heltü behar zaikedia?
Ezta hüstüko orano
bethik haboro herria?

Eiheralt Ehadila arren etsit
hasi zizkük egoiten;
Eta Xaxiriz besterik
ahal dükek begistatzen.

Pette Hartürik dit aspaldian
bihotz barnian xedia,
Horreki edo nihurki
dükedala bizitzia.

Eiheraltsa Neskatilak maite zütü
egürük ezazü bakian;
Etzütü ez ahatzerik
izanik ere hirian.

Thiratüren dizu hunat
zük dozün amodiak,
Hüllantüko zure ganat
ützirik beste bazterrak.

Pette Ama, zure hitzak nizü
ene minetik arhintzen,
Zeren bethik jakin düzü
behar denaren erraiten.

Hirugerren jelkhaldia
Jelkhi Addar eta Tusuri Satanak

Addar Tusuri, üdüri zitak,
ehait haboro ikhusten;
Nitarik hürrün egoitez
zer othe deitak gordatzen?

Tusuri Jauna, lan gaitzetan nüzü
thai gabe egünak oso,
eztezazüla uste ükhen
egiten düdala nik lo.

Addar Bai, bai, izaten ahal dük,
bena eztük ez ageri;
Burrumbak handi badützak
ebakitzen dük saill güti.

Tusuri Bena huni edo horri
nula loth nintake?
Zeren bazter orotarar
badit bethi indarkatze.

Addar Hor dük hor ogen handia:
eztük nihuiz ikhasiko!
Aphürri arren loth hadi
lan hun baten egiteko.

- Tusuri Bethidanik zira, Jauna,
zü orotan ene nausi;
Eginen dit zük errana:
orai beha nüzü zuri.
- Addar Entzün düka Basabürü
bai eta Basabürüsa?
Pette, potiko gaztia,
entzün düka, errak, phutsa?
- Tusuri Xaxiri zer heltüko den
arrenküra badizie:
Holako franko badüzü
lürra bethatzen beitie.
- Addar Hor dük, gaizo totolua,
guri jiten zaikün phasta:
Ta Xaxiren galerazten
berhala gitian planta.
- Horiek ahatz ditzadan
lana hasi beno lehen,
Emaiteko txistian nük
hireki jauzi zunbaiten.
- Dantza
- Tusuri Bihotzaren azkartzeko,
ni ere, ala brintxua!
Bi ürhatsen emaitera
zütarik landa banua.
- Dantza
- Addar Zankuak gano hunian
beitütügü biek egün,
Phüntü horik arhinki
hortxetan eman ditzagün.
- Biak dantza
-

Laugerren jelkhaldia

Jelkhi Marceau, Lajaunie, Deschamps, exker
Uskaldüntsa gazte bat zerbüttxari, esküñ.

Marceau Adixkidiak, zieki
 zuiñ goxo den phausatzia,
 Alkharretatürük heben
 arte bat berrikatzia.

Deschamps Oro biltzen girelarik
 zure edantegiala,
 Ene arrenkürak düüt
 urthukirik kanpuala.

Lajaunie Zük düzü neskatila hau
 aspaldian zerbüttxari:
 Holako neskato hunak
 aphür düütüzü jagoiti.

Marceau Mixkandi agüdua dit:
 eztik nik erraitekorik,
 Goizanko zortzietarik
 arrats berantian txütik.

 Bena elikezü arauz
 esker gaixto izan behar;
 Aberasgia holakorik
 ez dezake bestetan har.

Lajaunie Nik aldiz etxian badit
 neskato bat haiñ bühürri,
 Egün orotan ezpeitü
 bakerik emaztiari.

Güs-arrail izanik ere,
eztü irabazteñ aski;
Kanpis, ahatze ziozü
zuiñ zokhotik düdan elkhi.

Deschamps

Nik Xaxi Basabürü dit
etxen emazte hurreki,
Erdotz den neskatila bat
eta bakian hoieki.

Kokteletarat beitu
egun oroz emazia,
Barnen prefosta handi da
hurreki bürü-haustia.

Lanak eztitzü goihagai
ihuiz ere ütziko;
Asteko egünak oro
ditzü gure zerbützüko.

Bertan juaitekua da
bere lanarten hartzera;
Gure aldetik baguatza
gihaurenen gozatza.

Marceau

Etzitaiela gargillat
pheredikü horieki:
Ni bezañ gosaio zide
eta jan galthuareki.

Jan eta edan dezagün
algarrekilan behinkoz,
Arrenkürak jinen zaizkü
guri aitzinara brinkoz.

Khanta

Ardu xuri ala gorri, biak hun ziztatzü eni;
Mündü huntan bizi nizano, zaiñetan odol düdano,
Nik ez diozüt, ez erranen ardu hunari adio.

Bostgerren jelkhadia

Jelkhi Xaxi eta Izarra lagün bat, esküiñ.

- Izarra Udüritzen zitadazü
 arhin arhina zirela;
 Segür nüzü zuretako
 zerbait berri hun badela.
- Xaxi Aisa atzamaiten naizü
 egün ni boztariutan,
 Zeren bertan banuazü
 phausatzera lanartetan.
- Izarra Bai, enthelegatzen zütüt;
 zure ber xedetän nüzü.
 Beste güziek bezala
 merexi dügü deskantsü.
- Xaxi Gure lan eta gaixtuak
 aldi bat bazter ütze eta,
 Guri ere hun ziküzü
 herriaren gozaxeta.
- Izarra Eta gure aitetamen
 berriz ere ikhustia,
 Goiz arrats gure haidürü
 arauz beitie asia.

Xaxi Egün oroz ari nüzü
ni bethik phentsamentükan
Hunako nizatianez
harat juan ordükuan.

Izarra Nihaur ere hortan nüzü
eta ez arrajiteko,
Ahal oroz lothüko niz
herrian lan ükheiteko.

Xaxi Heben düdan bizitziaz
eztik dolürik ükhenen,
Ez eta eniz haboro
handien menpe egonen.

Hürrün herriz-bestetzera
aitzinetik juan nintzan;
Enükezü aski ellho
arrajuaiteko geruan.

Seigerren jelkhaldia

Jelkhi Ezpondabürü, Xilhanko, Xaxi eta lagünak
esküin eta Arotxetx, Intsagostoi, Othexarre, Nabarra eta
etsaiak exker. Ostatian, edarriak mahaiñian.

Nabarra Herri huntan lagüneki
hau dügü besta gaitza;
Orenari sogin zazie:
hürrün düg orano goiza.

Ziek, gizun pottoluak,
bazter zitaie hebentik,
Edari hun horik oro
baitütüt zalhe hüstürik.

Edan eta eror moxkor

Pette sar

Pette

Zer planta dügü heben gaur:
neskatila bat lürrian!
Hau ere thenore huntan
ikhusi behar günian!

Ezpondabürü

Gizuna moxkor delarik
izate itsusian da:
Zer aphaltarzüna aldiz
emaztia ordi bada!

Pette

Lagünt nezazie othoi
amiñi bat jeikarazten.
Kanpo elkhi dügüneko
araz beita belhitüen.

Jeik eta etxek neskatala

Xilhanko

Albidatik gabe düzü,
oro hüillan deseginik;
Ta mürrütsa ikhustiak
ezarten nizü laztürik.

Intsagostoi

Ziek gure aferetan
ikhustekorik eztüzie;
Neskatila hori arren
bakian ützt ezazie.

Othexarre

Bere nahi eginetan
bakhotxa da bere bürü:
Ordian zer düzie ziek
nahiz südürra hor sarthü?

Pettek ützt Nabarra

Bat, biga...hamar trago,
Galtzera dü gogua oso;
Emaiten dü hordago
Ta mihia lüzatzen zaio:
Xahal saldü khario
Axuriak ere haboro.

Bat, biga...hamar trago,
Haurrak aspaldian zaizkik lo.
Emaztia aldiz so
Thenoriari gaia oro
Nuiz hitzaien jineko
Goizian ordü dateneko.

Bat, biga...hamar trago,
Emak hor hola aitzinago!
Bat, biga...hamar trago
Axki dük, gizuna; xo!
Bertan hizate khüso,
ezpahiz ere arrunt otso.

Zazpigerren jelkhaldia

Jelkhi Xaxi eta Izarra, esküiñ.

Izarra	Hiritik eraitsiz geroz nula ziren khanbiatü! Ulhün hatzamaiten zütüt, erran ezazü: zer düzü?
Xaxi	Badakizü zer xedetan hantik hunat jinik nizan: Behar niala bethikoz nik egon ene herrian.

Bena ikhusi bazünü
nihaurk ikhusi düdana,
Zihaur ere lüzazago
oithian hor zinantiana?

Izarra Holakatürük bazira
arrunt oso ützülürük,
Prefosta izan zintakian
kolpü handi zunbaitez joik!

Xaxi Harrigoiniako bestetan
nintzan lagün zunbaiteki:
Ordian hantik gütüzü
esker-gaixtatürük elkhi.

Izarra Entzütia dit besta handi
bethik egiten diela,
Gazte hanitx biltzen dela
goizetik berant gaiala.

Xaxi Besta eder baginizün,
gazte bazen: hau da egia;
Zentako berantialat
sarthü da itsuskeria?

Potikuak ostatian
ordi-llapa eroririk,
Neskatiak deseginik
hantxe mozkor-irailirik.

Horra: orai badakizü
zentako nizan haiñ ülhün:
Ezta hobe enetako
jun nadin hebentik hürrün?

Izarra Eztezazüla deüs egin
beita sordeisik bestetan,
Eta heben helü dena
agit daite oro etan.

Xaxi Badakit, badakit, segür,
bazterrak eztützü eder!
Herria hola delarik,
nula phentsa niro bester!

Uste nizün heben niala
arraeginen bizitzia;
Bai bena egoiten baniz
lotsa niz enganatzia.

Zortzigerren jelkaldia
Jelkhi Addar eta Tusuri.

Tusuri Zer diozü, ene nausia,
ez düta lan hun plantatü?
Arauz hunetsiren düzü
enizala auher phürü.

Addar Bethidanik holaxerik,
ehiz hi khanbiatüko,
Bai eta astohünjale
egündano egoneko.

Uste badük bat batetan
oro goithü dütia!
Areta jakin behar dük
üsü arrahaste dela.

- Tusuri Hitzeman neizün bezala
Xaxi dit untsa jarraiki
Eta herritarrak ditzat
hunen galtzera eraiki.
- Addar Ha! gaizo astapitotxa!
haur bat hiz; eztük ikhusten.
Ez dakika üskaldüntsa
zuiñen beste bürüzkin den?
- Tusuri Bena segürtatzen zütüt
aldi huntan ja hatik,
Neskatila txarroill hori
osoki dit ützüürük.
- Sogin bazüntü gaztiak
edariari etxekara,
Potiko ta neskatilak
denak ordi ützüülüka!
- Addar Tusuri, ixilik ago!
beste saill bati loth hadi,
Zeren ezagüt hirioke
bertan beste lillüraldi.
- Tusuri Banuazü herriala
Xaxiren lagünen bilha,
Berriz-juaitera hirila
güziek dezen akhüla.
- Eztakit zentako nizan
egün albidat gaitzian:
Bi jauzi dezagün eman
ihurk ezin jarraikian.
- Dantza

Bederatzügerren jelkhaldia

Jelkhi Xaxi, Izarra, Kharrikabürü eta lagünak, esküiñ
Arrosa, Elhorri, Zübühandi eta etsaiak, exker.

- Xaxi Ostatian iraganik
 gazten tzarkeria horik,
 Ikhusten naizie egün
 arrunt esker-gaixtatürük.
- Arrosa Orai eztela izaten
 deüs hunik gure herrian,
 Thai gabe bethik erraiten
 eneizüna aspaldian?
- Izarra Eztezagün hori sinhets:
 okherrian düzü, Xaxi;
 Segür beno haboro, segür,
 nahi zütie galerazi.
- Zübühandi Zer egin beharko zaikü
 herriko basherrietan,
 Bethik bizitze gaitzian,
 bethik ere ber lanetan?
- Ta gaixki saristatürük
 zeri loth sos eskasian?
 Hau bizia guretako
 egoitia beharrünian?
- Kharrikabürü Erran ezak ere zer den
 hiriko irabazia:
 Lanak ezpadira eskas,
 egün oroz lehertia.

Lan lekhila juaiteko
tresna franko balinbada,
Ha-hunaka hiz kharrikan
ezin egon ertzo gisa.

Jentetze ozten erditan
ihur ez dük ezagützen,
Etxetan muthuatürük
aizorik ez elhestatzen.

Xaxi

Horietzaz aspaldian
badaki nik berri hunik,
Goizetik arratsiala
nihaur lanian egonik.

Nausi eta etxekanderen
zerbütxü egün orotan,
Haur inphiltü zunbaiteki
ogen ükheiten frankotan.

Ohartzen zaiztadalarik
ene neke phenak oro,
Zalhe nüzü bürhüngützen,
juan ez nahian haboro.

Elhorri

Ahatzerik düzü arren
heben zertan zinantian:
Suiñetako tzarrekilan
salsatürük gorotzian.

Hirian, pharpiñatürük,
zira jauntsi ederrekin.
Andere handi heltürük,
nahi zinante arrajin?

Pette

Hola bühürtzen bazide
gure nahiküntiari,
Arruntaz herritik kanpo
behar zütiegü ezari.

Apho hügüngarri tzarrak,
so zazie gure besuer;
Lekhia hütsaraziko
deiziegü zalhe zier.

Tziauzte egin ezazie
bi ürhasitto gure gana,
Beharko zaizie ützi
hasi düzien sathor lana.

Ene lagünak, jo azkar
debrin belar handi horik,
Berhilki tzüsto, hirila,
igor ditzagün gogotik.

Egin güdüka.

Etsaiak eho; satanek ehortz.

Lagünak elkh; Xaxi egon.

Aiñgüriak sar eta aholkü eman, khantan

Gure bakhotxaren beita
Gaixtua bethik guaita,
Huni ez ützt arrakasta,
Gal etzitzala sar eta.

Dei tzarrak ützirik bazter,
Bide okherrak halaber,
Beha aholkü emailer
Xüxena aiphatzen dien ber!

Aiñgüriak juan
Xaxi juan ondotik.

Hamargerren jelkhaldia

Jelkhi Pette, Xaxi, Xilhanko, Ezpondabürü,
Izarra, esküiñ.

Pette	Hun ziküzü egoitia egün heben algarreki, Behinkoz arte baten iragaitia eztiki.
Xilhanko	Ostatüko gizatzarrak orai aizatürük kanpo, Herriari arauz eztie itzal eginen haboro.
Izarra	Holakuen ikhustiak bihotza tximikatzen dü; Hebentik juan beitira boztariutan gütüzü.
Xaxi	Hiritik jin nizalarik hanko bizitziaz aski, Horiek ditazie hüllan herria hügüntarazi.
Pette	Eztezazüla uste ükhen gazteria hola dela, Sanorik ere badüzü potiko ta neskatila. Horik betherik dütüzü lanez eta nahiküntez; Herria die lagüntzen indarrak nasai emaitetz.

- Ezpondabürü Oroek heben balie
holako jenten jítia,
Aspaldian ginikezü
azkartürík izatia.
- Pette Halere hanitx batützü
saillari berme lothürík:
Eztie egürükítzen
kanpotik lagünguarik.
- Xaxi Ala xedia hartü dit
herrian egoitekua;
Hiriko lana ütze eta
hartüko dit hebenkua.
- Oro hantürík dütüzü
han handi-nahikeriaz,
Arrenkürarik eztie
hartzen gure eginetzaz.
- Pette Zü heben sanokiago
irus zirade biziko;
Badüzü inkhatzekorik
zure etxaltian franko.

Hamekagerren jelkhalidia

Jelkhi Xaxi, Borttol, Maitena, esküñ.

- Xaxi Egün, aita eta ama,
zerbait erran nahi deiziet:
Segür plazer dükezie;
hirilat juan gei eztit.

- Maitena Gütarik hürrün kanpuan
lüzaz egonen etzinela
Hastetik baganakizün
eta hunako zinela.
- Xaxi Aski gozatürük ditzat
hanko bizitze, jentiak;
Enüzü ez hoik üdüri
haiñ beitrade bahestak.
- Borttol Basabürüko prima, zü,
etxaltia zuretako;
Hor izanen zira bürü
huntarzünen geiñhatzeko.
- Xaxi Zuiñen txiripitet nintzan
harat juan nintzanian
Zuiñen bathikor zindeien
nintzalarik ogenian.
- Bena segür egündano
etzütiet gogotik galdü,
Herrilat aihuak oro
ene bihotzak ükhen tü.
- Borttol Orai danik planta zite
etxeko eginbidetan,
Lan nasaiak üzten dizü
arte halere frankotan.
- Nik, Basabürüko nausia,
etxaltia dit geiñhatü,
Izerdi lapez bustirik
artholha ederra zaiñthü.
Sar artzaiñak ardieki

Borttol

Xaxi, sogitzü arres hoik
zure, tützü aitzinara;
Ez düzü ederragorik
ehün mila khana hara.

Khanta

Basabürüko nausiak etxalte huna zian,
Eta huntarzün güziak bildürik üngürían.
Ta prima eijerra zian gatzarazi etxian,
Bertan jarríko zeíola ezkuntze eder pian.

Bedatsian aberiak bortiak jokatzen tü.
Segella bizi bezala alhaba zeion galdü,
Pettarreko hirietara goizik ere ilhertü,
Hobeki bizíko zela beitzian gogoratü.

«Erran, gaixo neskátíla, hirían zer dábilá?
Atzaman düna othe uste hían bezalá?
Andere handí, zankho txüt, plantatüko hintzala,
Greügarriak oro üztez, jin zeíñan büriala.

—Begiak zítadak zalhe barnago zabaltüko;
Aphalküntez joik, bertan nuk zien ganako.
Herriko-minak goithürík, herríla nük jíneko,
Ene maitía hor beítüt, horreki bizítzeko.»

Errepíka

Etxalteko alhaba
Hírilat galdü,
Etxalteko alhaba
Herrílat heltü,
Jentekente bezala
Laketü da berhala.

Hamabigerren jelkhaldia.

Jelkhi Xaxi, esküiñ.

Xaxi mintza
edo khanta

Zer eztitarzüna egün
üda arratsalde huntan;
Oro ixilian dira
txoriak berbera khantan.

Sorhuak eta oihanak
zuiñ eder beren berdian!
zereneztüt ikhusi lehen,
heben bizi nintzanian?

Sar Pette

Pette

Bazter eder horier so
harua düzü gozatzen;
Egünko arte hun hunek
khanbio deizü ekharten.

Xaxi

Eztakit batere nula
egon nizan herriz kanpo;
Zer egin nian ordian?
izan nintakian ertzo!

Pette

Ta Basabürüko primak
herria ez dü ahtze;
Segür izaten ahal da,
badüke beste bizitze.

Hürrün bizi daitekia,
Ziberuko neskatila,
Bere gogua dialarik
thai gabe bere etxiala?

- Xaxi Nihuiz hanko bizitzia
ez nezake har gogotik!
Arroitz bata-bestentako
Ezin egin lagün hunik.
- Pette Bi biak girenez gaiñen,
galtho bat dit egineko:
Zük, Basabürüko prima,
har nezazü nausitako.
- Ene hasperen handiak
nik zuretako nitizün,
Beithan etxeki düdana
agerarutzen dit egün.
- Xaxi Enetzat maitharzün handi
banakizün bazüniala,
Eta holako galthua
eginen zeneitazüla.
- Zunbat neskatala dira
hirilat arra-ützüli,
Potiko galthazalerik
eztielakoz ikhusi!
- Bena ni aher nündüzün
etzinantiala hola,
Arauz ene baimenaren
ondotik zinantiala.
- Pette Batitzügu, zorigaitzez,
herrian jente gaixtorik;
Bestetarik tützü berhez
oro ürgüillüz betherik.

Xaxi Etzira horietarik;
ene baimena badüzü;
Bena behar ditzat hortzaz
aitetama elhestatü.

Hamahirugerren jelkaldia.
Jelkhi Addar eta Tusuri Satanak.

Addar Tusuri, asto handia!
ehian eztabadarik!
Bildürük hialakuan
Xaxiz ehian axolik.

Tusuri Pharka, jaun Satan handia,
zer behar nükian egin?
Ez düzü segürtamenik
Ziberotar horiekin.

Hori erran aho-mihiz,
hau goguan erabilten,
Gero ützül nurat nahi:
hola ditzat nik ikhusten.

Addar Sogitez hüillantikago,
bestiak bezala dütüük;
Eta ündülgürük bahü
aisa goga hitirioke.

Tusuri Bai, bai, ez gitizie ez
orano biak goithürük;
Gora-beherak izanik,
hor dizügü lana bethik.

Addar Berantü gabe, hürrüntik,
denak oro planta itzak,
Ta hüillantik jarraik itzak
bi gazte hoiien ürhotsak.

Tusuri Ala brintxua enüzü
has eta lo egonenko;
Ziberotarrak ditzügu
debrü beno sordeisago.

Hamalauerren jelkhaldia

Jelkhi Xaxi, esküiñ.

Xaxi Petteren galthuak nizü
boztario handiz bethe,
Zeren güzietan düzü
izan maithagarri ene.
Sar Arrosa eta Nabarra, exker

Arrosa Jakin dit Pette zureki
ezkuntü nahian dela;
Zohartitsüren ondotik
ikhusten dit baduela.

Nabarra Hau bethik gibeletik dü
ezkuntzeko dielakuan,
Senda horik gaintik tützü
bata bestian onduan.

Xaxi Bena nula nahi düzü
ez dadin izan holaxe:
Aizo lehenak bezala
zor die algar lagüntze.

Pettek, haiñ beitu bihotz hun,
so egiten dü oroer,
Lagüntza handirik ere
ekharten bere aizuer.

Arrosa Eztakit, Xaxi, etzinez
untsatto lillüratürük,
Zoharbitsük berak diozü
Petter diala haitatürük.

Nabarra Hori züzün bethik ere
Petteren nahiküntia;
Bien aitetamek die
güzietan aiphatia.

Arrosa Eta jentek erraiten die
ezkuntzeko bortxa diela,
Ta Zoharbitsü dügüla
bertan haur ükheitiala.

Xaxi Zirzil tzarrak ziek biak
enetzat zideie gogor.
Zizikatzero heltürük
zer elhakak dütüzie hor?
Sar Pette gaiztürük, ebil üngürüka

Pette Esker hanitx zuri, Xaxi,
bihotz azkarra düzü bai
Ta banakizün zinela
aspaldian ene erphai.

Gaizki-erraille horien
txaputak ditzat behatü;
Holako gezürter tzarrek
lekhia behar die hüstü.

Tziauzte arren ene gana:
laster zide irailirik;
Ezpata hunek zütie
galeraziko hebentik.

Egin güdüka. Etsaiak ihes juan

Pette

Guatzan orai algarreki:
Pette, Xaxi, dirate biak,
Basabürü etxaltiaren
nausi etxekanderiak.

Gure aitetamek die
orozbatkoz jakineko,
Biak girela bethikoz
bata bestiarentako.

Biak juan

Hamabostgerren jelkhaldia

Jelkhi Maitena eta Borttol, Eiheralt eta eiheraltsa, esküiñ

Borttol

Zien semia dizügü
orai berian ikhusi;
Boztariatü gütüzü
etxen beitükegü nausi.

Maitena

Hau beno hoberagorik
ükheneko güñiala
Etzaikü batari ere
orano jin büriala.

Eiheraltsa

Hala hala gü ere
boztariatzen gütüzü,
Emaztegei hoberena
herrian beitü haitatü.

Haiñbeste neskatala da
herritik kanpo juaiten:
Hun ziküzü ikhustia
zunbait direla egoiten.

Maitena

Tipi ttipitik dizüğü
erakatsi alhabari
Orozbatkoz bizi ledin
etxekara herriari.

Berttol

Eta etxenko ginizün
gure haurra altxatü hor;
Basabürüko primari
dizüğü etxaltia zor.

Maitena

Basabüria bestordüz
Basabüria izan düzü;
Jagoitik ere ordian
Basabüria dükezü.

Eiheralt

Ziberuko ohidürer
oso gira etxekiak;
Hargatik hala dirate
aitzina gure gaztiak.

Maitena

Zühaiñ adarretik dira
bi txori hegaltatüko;
Ta zuiñ etxadi eijerra
dien biek egineko!

Hamaseigerren jelkhaldia

Jelkhi Pette, Xaxi, Borttol, Maitena, Eiheralt,
Eiheraltsa, Apheza eta ezteliarrak, esküiñ.

Apheza	Adixkidiak, herrian boztario handi dügü: Ohatzeko hor berian bi gazte ezkuntzen zaizkü.
Pette eta Xaxi	Biak jin gütüzü huna sakramentiaren galthoz, Eta azkar maitharzüna nahi beitügü bethikoz.
Eiheralt	Jaunaren lagünguaren gure haurrek beharra die, Orai diren egünetan galbidetan beitirade.
Eiheraltsa	Bi gazte horik ikhustez bihotza zait erdiatzen, Zeren, gü jakile dira, egün bethikoz jüntatzen.
Maitena	Gihaurk bezala eztie deüs mentsik Basabürían: Irus izanen dirade lanian eta bakian.
Borttol	Jinkuaren aitzinian, aphezaren aitzinian, Hi hizate oraidanik nausia Basabürían.

Gük eta zaharrek
etxeke dügün bezala,
Etxaltia behar dükek
hik zaiñkatü hala hala.

Eta zü, Xaxi maitia,
zirate etxenko bihotza:
Etxekandere berria,
gureki zure egoitza.

Jinkuaren eretzian,
herriaren eretzian,
Güziak gira etxian
algar maithatüko bathian.

Pette Etxenkuen aitzinian,
 ziek oro jakile heben,
 Xaxi dit emaztetako
 ordian eneki biltzen.

Xaxi Etxenkuen aitzinian,
 ziek oro jakile heben,
 Pette dit nik senhartako
 ordian eneki biltzen.

Apheza Bata bestiarentako
 bizi zite jüntatürik,
 Ta maitha ziztaie
 zien lokharriak tinkirik.
 Ezar erhaztünak.
 Sar aiñgüriak eta khanta

Adarxkuan, besten onduan
txilintxau bi sagar gorri;
Udazkenialat dirade
izanen amiragarri.

Egün bi senhar emaztek,
beren zaharren ondotik,
Jarraikiren tie ürhasak
bizitziari lothürik.

Aiñgüriak juan.

Apheza

Jinko jaunak zien baimena
orai untsa har dezala,
Eta benediziunia
nasai eman deizaziela.

Benedika.

In nomine Patris, Filii,
et Spiritu Sancti. Amen.

Jinko Jaunaren grazia
bethik düzie ükhenen.

Egin ezteiak.

Khanta Oihan beltzian

Oihan beltzian zuiñen eijer den osto berdia jëlkhitzen;
Han entzün düüt egün goizian txoriak khantüz erraiten:
Bi bihotz gazte amodiua egün ditiala jüntatzen;
Boztariutan sarthü niz eta orai hasten niz khantatzen.

Espus espuser orenen phartez uhure eta goraintzi,
Egün düzien amodiua bizi zideno ez ützi:
Nahigabetan pharte har eta plazerak ez berantetsi,
Irus izate ederrenian nahi dügü ziten bizi.

Espus jaunak elhe bat bera бүrian dezala edüki:
Lagüntto horri amodiua bethi bihotza eraiki;
Zaharraguer uhure eta haien abisa jarraiki,
Familiako bake hun baten gozatzeko algarreki.

Espusa gazte baten erhian zuiñ en eijer erhaztuna!
Harek beitiøe muthil gazter: «Eztzaiela ingana:
Senhar hun baten edireiteko egün izan düt fortuna,
Hari emanik bihotza oso bai eta gaztetarzuna.»

Txori eijerrak egiten dizü elhorritzian habia:
Espus espusek gazte lagüner eman deie etsenplia,
Berantü gabe ber ürhotsari oro ditian abia,
Baratzen denak üdüri beitiü lanthare üzta gabia.

Adios zier, espus espusak, üzten zütiet bakian;
Zelüko jaunak lagünt zitzela hartü düzien bidian;
Igarailiak ikhus zitzela urthe zunbaiten bürian,
Amatto haur bat altzuan eta aita laueki lanian.

Hamazazpigerren jelkhaldia

Jelkhi Xaxi, Pette, Zoharbitsü, Akhoze, esküiñ.

Zoharbitsü Badizü bizpalau urthe
 etzütiedala ikhusi:
 Ezkuntü geroz herrian,
 nulatto zireie bizi?

Xaxi Hiria ützt eta bazter,
 eztit dolü ükheitteko;
 Uste dit orai nizala
 egiazki bizi oso.

 Bi haur ederrik ba ditzat:
 etxia bethatzen die;
 Jinkuari esker ere
 osagarri hun dizie.

Akhoze Nula arpatü zideie
hebenko bizitzari;
Herrian enizalako,
gaitz dela beitzai üdüri.

Pette Zer othe da bizitzia
ez bagira güdükatzen?
Ta bethik beno haboro
borokari gira lotzen.

Herriari etxekara
heben lanaren ondotik,
Bakhotxa bizi nahi da
züzenki lehen lehenik.

Ala badügu zer egin,
gihaurek gure artian,
Zeren gira güzietarik
joik gure izatian!

Hamazortzigerren jelkhaldia

Jelkhi Addar eta Tusuri.

Tusuri Zuri hitzeman bezala
enüzü egon ükhürü:
Batetik deüs ezinian,
beste bati lothü nüzü.

Addar Gainti orotarar bethik
hola egin hebar diagü:
Harat südürra lüzatü
ta hunat adarra sarthü.

Tusuri Herri kanpotik etsaiak
bildürrik ditzat saldoka:
Eginaraziko diela
segür biga-bost marraka.

Addar Herrian berian ere,
badakiat, batük etsaiak;
Horier orobat ziek
gal ditian lür-jentiak.

Hoientako ez dük hunik
sos prunki biltzia baizik
Ta herriaren saltzetik
tie huntarzünak elkhirik.

Tusuri Sosaren gose hori dit
hoietan untsa ikhusten,
Ta hartakoz ari nüzü
ahal bezaiñ baliatzen.

Addar Erran nahi neikek ere
hor gireno kuxelü hau,
Sinhestiaren muztera
lothü behar dela briu-brau.

Lagünak badizkeiagü
erretor üskaldünetan,
Ta hanitxez segürago
aphez gehien zunbaitetan.

Dioie erdaraz baizik
eman daitiala fedia,
Haurretan frantsesez dela
sorarazten sinhestia.

- Tusuri Hoik dira asto handiak!
 üskara traba bat dela!
 Aski borogatü dügü
 jentetan zian ahala.
- Addar Xo! xo! Tusuri, ago hor;
 üt z itzak ixilik, othoi!
 Beren lana egiten die,
 gük üztaren biltzeko doi.

Himeretzügerren jelkhaldia

Jelkhi Othexarre lür saltzalia, Leriche eroslia,
 Beaulieu huntarzün-erazlia, exker.

- Othexarre Ahalak eginen diatzat
 diren güzien saltzeko;
 Haurrik eztiat nahi etxen,
 zizaiñik ez bizitzeko.
- Beaulieu Eroštün bat huna diezüt,
 beraiki beitü diharü;
 Borda ta lür phuxka baten
 beretü nahian düzü.
- Othexarre Botzik diatzat saldüko:
 largatü behar dik musa;
 Herrian badiat erostün
 bena ments die ardita.
- Bestetarik ere jiten
 badiat eskentzale franko;
 Emaile haboronari
 zalhe doiatzat üt ziko.

- Leriche Eskentzen deiat berhala
güziek beno gorago;
Ez lotsarik har eneki
nahi dükeianantako.
- Othexarre Ene azken hitza düzie
eta ez deiziet besterik;
Ez düzie ükheneko
zazpi miliuz petik.
- Leriche Etzira aphaltik ari,
bena eraman itzatzü:
Holaz sos soberakinak
thapatüko deiztadatzü.
- Beaulieu Eta gütarik baxhotxak
pharte düke beretako;
Zunkabi hori paperetan
ez dit agereraziko.
- Othexarre Hihaturen üdüriala
papera dezala ager,
Nik ene sosa osorik
xahü ükhen dezadan ber.

Hogeigerren jelkhal dia

Jelkhi Pette, Phordoi, Xilhanko, esküiñ.

- Pette Badakizie berria
ziek ere, adixkidiak,
Nula Othexarrek bertan
lürak dütian saldiak.

- Phordoi Emekilan, lüzaz gabe,
bordak dütüke sostürük,
Eta oraidanik ditizü
haurrak kanpo ezaririk.
- Xilhanko Jagoitik arren zizkützü
arrotzak ere lothüko,
Hütsarten igaraitera
baizik ez hunat bildüko.
- Phordoi Lür-bordak gira galtzera
kharioegi beitira;
Ta arrotzen arabera
nula planta eskentzera.
- Pette Saltzalien gatik dira
gure ahalak aphaltzen;
Eskorarik ez badügü
ez gira ahal azkartzen.
- Xilhanko Ber denboran ari düzü
herria hüsten osoki;
Nula behar zaikü arren
aitzinara heben bizi?
- Phordoi Gizunak ikhusten tügü
saldoka ez ezkuntürük,
Lürrari xahartzialat
ahal bezala lothürük.
- Xilhanko Paper bat tzarra deit atzo
legarkariak igorri,
Zuiñtan ikhusi dit legarra
zehitü dela azkarki.

Etxalte bat saldü beita
prezio gora batian,
Behartzen zait ere phaka
amanda oso ordian.

Phordoi Lürrak dirade khario
 legarrak dirade gora;
 Eho nahi gitizie:
 nula bazter arrenküra?

Pette Ez gitian hola egon,
 egin dezagüla zerbait,
 Oroek ikher dezagün
 zuiñ bide jarraik nulapait.
 Khanta

Bedatsian hegaixtiek habia die biltzen,
Zühaiñen adar berdetan, eijerki antolatzen.
Ttipiak sorthü bezañ bat, thai gabe dütie hazten.
Ta bethik beren ondotik ez dütie bazter üzten.

Errepika

Zentako da herria galtzen?
Nuri eman ogen?
Herria maite dianak
Egonen da etxekara,
Urgaiztüko dütü lagünak
Beren saillen egitera.

«Haurrak beharko zaizie bertan herriz-bestetü,
Herrian eztelakuan lanik ahal plantatü;
Lürrak hunek edo harek arrotzer saldü dütü;
Eta zientako dirade sobera khariotü.»

Bena badira herrian lürrak auher beitira:
Zentako ikhusten tügü heltürik heiñ hortara?
Ondoriorik etzena etxetan aitzinara?
Itxes handik zütiana bildü oro galtzera?

Ohidüren arabera ondoko zen lehena,
Ta primia ala prima etxaltia harena.
Usü aitetamek die hartü behar etzena,
Potiko batek diala lagüngua hoberena.

Neskatilak aldiz dütie hürrünilat igorri,
Ziratiela andere bertan amiragarri.
Zer heiñetara herria hola dien ezari.
Behar lizate oroer agertü lotsagarri.

Funtsak badira orano, bada bizipidia,
Aizoko etxian ere hor da bizizalia.
Potiko ta neskatilek egiten gizartia,
Biek txütitüko die herrian etxadia.

Hogeiabatgerren jelkhaldia

Jelkhi Pette eta Xaxi, esküiñ.

Pette

Herritarreki gütüzü
barda lüzaxko mintzatü:
Arrenküra handietan
oro sarthürik dütüzü.

Gure herriaren gaizak,
aspaldian ageri zen,
Juaiten ziren maneran
nura heltzekuak ziren.

- Pette Gihaurek düğü lanari
 behar lothü algarreki,
 Ta herriaren gerua
 gihaurek egin azkarki.
- Xaxi Herrian berian beharrik
 badizüğü zunbait jente,
 Erreüstarzünen ikhertzen
 batere lotsarik gabe.
- Pette Ez erres izanik ere,
 bertan gütüzü hortako,
 Saldo handian bildürük,
 algarreki jüntatüko.
- Batek berak ez dü ahal
 egiten deüsere hunik;
 Nekia düğü goithüko
 indarrari üztartürük.
- Xaxi Anartian behar zaiku
 guri aitzina ebili,
 Güdükatik ez ditzaien
 bizizaliak iraitsi.
- Pette Arren bürüra ditzagün
 gihaurk egin hastapenak,
 Arthegietan, barnetan
 jokhatü berritzapenak.
-

Hogeitabigerren jelkhaldia

Jelkhi aminixtraziuneko bürüzagia, lehen idatzaiña,
bigerren idatzaiña, exker.

- Lehen idatzaiña Jauna, paperetan dügü
Basabürük egin galthua,
Arthegi eta barne lan
üda huntan egitekua.
- Bürüzagia Zunbateta ez düt erran
badela galtho sobera;
Utz ezazie hori bazter
beste denen arabera.
- Lehen idatzaiña Bena hunena jadanik
heben düzü aspaldian,
Bost hilabete hoietan
galdürük besten erditan.
- Bürüzagia Begira beste haiñbeste:
lau, bost, hamar hilabete;
Hebentik hara balinba
dikezügü arrahaste.
- Oraiko, aski düzie
zer nahi ihardestia;
Ala ahatze düzie
estakürü emaitia!
- Bigerren
idatzaiña Oro eginen dütügüla
paperak bildü tianian
Pauben Jeanne d'Albreteko
libürütegi handian.

- Lehen idatzaiña Nahaskeria ere badela
egin dütian galthuetan,
Bi lanek behar direla
untsa berhezi orotan.
- Bigerren idatzaiña Arraegiteko dela
arthehiaren xedia,
Xehetarzüneki ere
berritze aitzin-khuntia.
- Lehen idatzaiña Beste galthuarentako
ikhus arraheñkiago:
40-eko legia
ikhertü beharko zaio.
- Bürüzagia Ihuiz eztüzie ziek
lana ikhasiko untsa.
Jakín ezazie arren
zuhürki emaiten sosa.
- Lehen galthazaliari
oro eskentzen batügü,
Gure nausietzaz gaixki
ikhusirik gütükezü.
- Horik denak aldibakhotx
ihardets eztitzatziela;
Bestelan izanen gira
lanik gabe geruala.
- Horrek erran nahi lüke
lana bada eskaserik,
Bertan ez datekiala
enplegiaren beharrik.
-

Hogeahirugerrren jalkaldia

Jelkhi Pette, Ezpondabürü, Kharrikabürü,
Akhoze, esküñ.

Pette Berritzapen egiteko
lagüntza galthe ginik dit;
Zerbait okher delakuan,
paperak ützültzen ditzatzi.

Aski beno haboro dit
nahaskeria horietzaz,
Nihaur lanari lotzeko
enüzü egonen lüzaz.

Ezpondabürü Berhala berantü gabe
hola dügü egin behar;
Deüs ez egürük kanpotik
ta gure bizkar lana har.

Gaztiak orai beitera
herrian egon nahian,
Jeiki behar ginikezü
lantegi ere heñian.

Kharrikabürü Aitzineko denboretan
ofizialdünak baziren,
Lotsa gabe oraikuak
eztireia ahal jarten?

Akhoze Badakit hebentik kanpo
zer den egün bizitzia,
Ta zieki egoitia
hartü dit arren xedia.

Ezpondabürü	Aspaldian lagüngua hanitx dizie aiphatzen, Bethik aphürñi bat baizik aldiz guri ez eskentzen.
Kharrikabürü	Bakhotxian balinbada nahiküntia lehenik, Gure ametsak dirade bertan izanen betherik.
Akhoze	Ziberotarrek dizie maite berebertarzüna; Zentako ez egin behin laneko alkhartzüna?
Pette	Erran bezala lagüntza egürükitzen badügü, Uste dit orano lüzaz giratekiala haidürü.
	Bestalde egon gitian lothürik izatiari, Gure jakitaiari ta gure mintzajiari.
Akhoze	Hori bagünü güziek oro untsa jun litezü, Herria ta herritarrak salbatürük litakezü.
Kharrikabürü	Zunbat dirade ahalke, zunbat ere ükhazale! Ta izaten ahal deia nur haiñ behera aphaltze?

Hogeitalaugerren jelkhaldia

Jelkhi aiñgüriak, khanta.

Herriaren hola üztez
bertan düzie galdüko;
Aski indar badükia
ordian arraphizteko?

Krixtok bere Elizari
nahi hau deio agertü:
Behar zaiola lehenik
tti pietarat hüillantü.

Aphezik gabe herria
üzten dü aphezkupiak:
Hürrün eta ttipi beita
ez direia han praubiak?

Hogeitabostgerren jelkhaldia

Jelkhi Addar eta Tusuri Satanak.

Addar

Entzün diatzat aiñgüriak
aphez mens dela herrian,
Eta nigarrez dioie
dela galbide handian.

Tusuri

Beste althekuak phenan
ikhusten dütügülarik,
Ezarten gitü, uste dit,
Satan, boztariatürük.

Addar Senditzen diat Ziberuan
bühürtü nahian direla;
Hartakoz heben-harat lo,
othoi, egon ehadila.

Tusuri Badakizü ihuiz ere
ekhüratzen enizala,
Ta ezin egonareki
bethik aidian nizala.

Addar Debrü Ziberotarreki
ehiz bertan phausatüren;
Ez dük ahal aitzinetik
jakiten zer den heltüren.

Tusuri Lan, lantegi, berritzapen,
han herritarrak berjabe,
Ziberuko jakitate
nahi die eta mintzaje.

Hoik oro gaiza baliusak
eta beharrüenenak;
Engoitik biltzen dütie
herriko ahal güziak.

Zuiñ gaintitarat eztakit
orai ützüliko nizan
Ta berantegi dateke
egoiten baniz ezbaian.

Addar Arrotzak jinaraz itzak.
bestetarik sosareki.
Herria galdüren diagü
bere izatiareki.

Hogeitaseigerren jelkhaldia

Jelkhi Lajaunie, Marceau, Deschamps, Leriche, exker.

- | | |
|-----------|---|
| Lajaunie | Lan egitera direla
Ziberuan abiatzen,
Ardüra egün hoietan
han eta hor die aiphatzen. |
| Marceau | Erran horiek dititzat
entzünik aspaldixkuan;
Horra zentako gei düdan
harat egoitera juan. |
| Deschamps | Bethik ere hun ziküzü,
lagüngüa delarik,
Irabazi handixkuak
elkh ditzagün diren lekhütik. |
| Leriche | Saltzeko beita borda bat,
berehala dit erosten,
Eta hareki botian
lür phuxka bat dit hartüren. |
| Deschamps | Herrian behin jar eta
erres dükezü lotzia:
Lagünguak ükhen eta
erres ere azkartzia. |
| Marceau | Hanko Ziberotar hoiek
eztie nahi arrotzik;
Begitharte eijer arren
ikhus dezen gütarik. |

- Lajaunie Bethik badüzü ahala
saihetsetarik sartzia,
Aminixtraziunian
khideko edireitia.
- Leriche Urthe zunbait dizüğü
ükhena baliatüko,
Hantik gero nurapait
beste soskara juaneko.
- Zeren ez tüğü goguan
herriaren zerbütxia,
Bena ahal dügün bezaiñ
sosaren baliatzia.
 Sar Pette, Phordoi, Xilhanko, esküiñ
- Pette Adixkidiak, iratzar
ta egon erne geroko,
Guaita bezala beitira
hebenko gaizen jateko.
- Phordoi Aztaparrak tzorrotz titzie:
bethik hola dütükezü:
Orotarik bat batetan
jauzi nahian dütüzü.
- Xilhanko Arrunt egürüki gabe
guatzan oro bühurtzera,
Hoik herriaren jabe
ez othoi üt lehentzera.
- Pette Debrin ez deüs hiotiak,
ez düzie hola eginen:
Sosa badüzielakoz
herria ez erosiren.

Phordoi

Nahian zideie orai
gure bizitzia eho,
Lillüratürrik herria
düziela etxekiko.

Hilabete batez üdan
biziko da agorrilan?
Urthe arrastarentako
izanen da ülhünpian.

Xilhanko

Mihian düzie ükhen
dena hun dela zientako,
Herriari düziela
hazkürria emaneko.

Eta holaz düziela
orori lan eskentüko,
Herriko sal-erospenak
ere handiaraziko.

Zien bihotzen erditan
düzie gorde gezürra,
Baiezik eta zidela
gü orori etxekara.

Ekharrarazten dütüzie
pettarretik langiliak,
Hürrüntik ere harginak
eta argi-azarliak.

Pette

Ahalke etzideia,
ttipi girela zientako?
Lehertüko zütiegü
agertü beitzide otso.

Ziek besten bizkar zide
bizi izan bethi danik;
Bestiak oro dütüzie
etxekitzen zaphatürik.

Aldi huntan etzidie
hürrünago ezkapiren,
Eskü hoietzaz zideie
orai heben eroriren.

Egin güdüka. Etsaiak hil

Pette

Zien gatik günükia
behar galdü izatia,
Ta egün lizatekia
soltadüraren galtzia?

Satanek eraman etsaiak.

Pette khanta

Eskerrak diotzüt nik egün
zelüko Jinko Jaunari,
Gure güdüka gaitzetan
lagüngüa dü ekharri.

Etsai hanitx aizatürik
geruari so gabiltza,
Herrian huntarzün bethik
oroek dezagün gora.

Lagünak erretira.

Hogeitazazpigerren jelkhaldia

Jelkhi Pette, Xaxi, Maitena eta Borttol, esküiñ.

Pette

Behar günükiala
haiñ azkarki güdükatü
Nihuiz egün artinokan
enizün nik gogoratü.

- Borttol Gük ere gure denboran
nekiak ükhen dütügü:
Ziek beno lehen ere
bühürtzera ginen lothü.
- Pette Eta ziek ezpazünien
aitzinetik saillik hasi,
Deüs ahal eginikezü
gük zien ondotik orai.
- Xaxi Orano orhitzen nüzü
nula bühürtü zideien,
Etxekitzeko izate,
jakitate, mintzajien.
- Pette Mintzajia gal bezañ bat
gal dügü jakitatia,
Galdüko zaikü herria
eta gure eskualdia.
- Borttol Zü zirade egiazki
Basabürüko nausia:
Zure eskietan deno,
bizi da Basabürria!
- Pette Bena hanitx bagütüzü
garrareki bihotzian,
Sü borthitz phiztü nahian
bizizale bakhotxian.
- Maitena Eta zer goxotarzüna
gure zahartarzünian,
Irus heben bizitzia
gure etxetto barnian.

Pette

Halerik ere ez düzü
gure sailla ürhentürik,
Eta lanari gütüzü
egonenko estekirik.

Azken pheredikia

Eskerrak zier oroer
jinik gure ikhustera,
Eta balio beitzian,
gure heben behatzera.

Badira kanpotik jinik
etsaiak lür erosteko,
Ahalke gabe saldürik
barnekuek sos biltzeko.

Egün behar geneizien
azkarki jakinarazi
Ziberuko den güziak
heben nahi direla bizi.

Etxek dezagüla arren
guretako Ziberua,
Ta Ziberotarrek berek
bil Herriaren gerua.

Pette Basabürük ere
hori zian bere beithan;
Ziberuko herritarrak
berengaiñ izan ditian.

Goguan balinbadügü
Herriaren lagüntzia,
Othoi jarraiki dezagün
heben ikhusi bidia.

Zuiñ nahi neke heltürik
goitzen tü nahiküntiak:
Bakhotxak berhala ikhert
beraren eginbidiak.

Uzten zütiegü huntan;
juan zien herriala.
Gero egürüki gabe
lanari üztart zitiela.

Hebentik juan onduan,
aihari hun egin eta,
Lo minak har zitzaiela,
ametsak ere bai betha.


Ortzunduan argi beita
jeikitzen egünaldia,
Hala iratzar dadila
oroetan bizitzia.



XARAKOTARRA

Joanes Urkijo Beitia

**"ETA BEHARBADA ISPILU
BELTZ BAT"**



LEHENBIZIKO KOADROA

(Autorearen etxea. Han agertoki erdian eserita, beste altzaririk ez egonik. Osa ile luzea; pipa indiar batez erretzen. Dekoratu zuria. Erdian leiho handi bat, zabaldu ahalekoa, eta gizonezko bi zango bilutsek eutsia zola gainean).

AUTOREA.—(Haizeari begira) Zer nahi duzue? Ez nauzue hastapenerako ahalmen duen bat, zer egin nezakeen? Hitzak pozondu nituen zauriak osatu nahian, baina esku hau (jaso egiten du eskua) malkoz busti zidan. Zabal dadila zerua, negar egin dezatela kaimanek. (zutituz eta pausu batzuk emanetz) Zer egin nezakeen? Autore triste bat nauzue bakarrik, zer egin nezakeen? (aurpegia estaltzen du eskuez) Baina egin, egin nuen.

(Kanpoan kolpe batzuk entzuten dira, atean deitzen bezala)

Ireki ezazu! Ireki ezazu! (leku guztietara begiratzen du) Bakarrik nago, sagarrak dastatu dituen ilargia bezan bakarrik (kolpeak entzuten dira berriro) Bai?

(Ezkerrean hiru gizon agertzen dira. Sotanaz jantziak eta kopa kapela bana. Eskuetan makila beltz luze bana. Begietan betaurrekoak eta bizar luzeak ere)

I GIZONA.—Egun on, Autorea mesedez?

AUTOREA.—Bai, ni naiz. Zer nahi duzue?

II ETA III GIZONAK.—Egun on, Autorea mesedez?

AUTOREA.—Ahaztua dut. Ni neu omen naiz. Zer nahi dut? Hiru urte gehiago bizitza ote? (hausnar) Baina, beste aldetik ere salda platera bat lortu dut, eta hemendik aurrerantzean ez dut lurrin exotikorik jaurtik behar izango. (gizonei) Emaidazue belar urdin bat etorkizunari itxoiteko ate baten atzean ezkuturik.

III GIZONA.—Egun on, kritikoak gara, Autorea mesedez?

AUTOREA.—Autorea? Bai, hemen dago (bere bu-ruari zeinalatzen dio) Zer nahi duzue?

III GIZONA.—(urruma batez) Zorionak, zorionak, Egia esan, ez genuen espero hain antzerki on eta miragarri (ahotsa goratuz eta aide epiko bat eman- ez) Egia esan zure zapaten zolak alai izan daitezke zeure izerdia berengana heldu baita. Egia esan zauri bat mila folio mekanografia tu, baino askozaz bigu- nagoa izan liteke, eta azkenean, o Autore jauna, azkenean inbentatu da maitasunaren zerraldo be- tirakoa.

AUTOREA.—Zenbait pesetagatik, salda platera bate- gatik, aulki eta pipa hauengatik erahil eta hilarazi diet pertsonaiei, Zenbait pesetagatik. Eta orain mundua ez da begi erraldoi bat baizik, aho zabal bat zeinetik suge gorriak irtetzen dira zera abestuz (abesten du):

Heriotza, heriotza
zatoz niregana
mundu honetakoa
azkenik baitzara

II ETA III GIZONAK.—Ez, ez, ez! Nazkagarri! Ereintoz koroa daramazu buruan, zure mantuaren tolesturak musuz beterik daude, eskuan jaso dagi-

zun luma perfekzioaren sinbolotzat dugu. Gloria, gloria, gloria (I Gizonak harmonika bat ateratzen du, eta bere melodiaz besteeak dantzatuko dute)

I GIZONA.—(Musika amaitu ondoren) Gloriaren oihartzuna!

II ETA III GIZONAK.—Anuztrahio nerairolg!

AUTOREA.—(burua makurtuz) Ez, ez, triste da benetan. Triste ba denetan. Da benetan. Ba denetan. Benetan. Denetan. Bentann (azken hitz hauk murreriatuz)

(Hiru gizonak ibiltzen hasten dute erreskadan agertokian zehar, lehenik III Gizona harmonika jotz doklarik. Autorea, eskuen artean dauka burua)

III GIZONA.—(autorearen aurrean gelditurik) Mundua zure zai dago (besoak gorantz luzatzen ditu) Zure Calixto, Iumaia ederreko hegaztia da, eta Melibea adartxo bat bere mokoan. Zeure antzerkian, o Autorea, maitasuna inoiz baino perfektuagoa agertu zaigu, malko harroz beterik izan beharko zenituzke begiak (Autorearen inguruan hasten du ibiltzen). Artista, Autorea, artista, Autorea, artista, Autorea, artista, Autorea, artista, Autorea.

AUTOREA.—(bapatean) Stop! Nahiko da! Badakit, oso ongi dakit zein den nire errua (publikoari zeinalatuz) Leioa zabaldu nuen, segundu batez jauki nuen zuhargabekeri hori eta orain zuen hitzak tutik esan gabe jasan behar ditut. Tutik esan gabe, tutik esan gabe (gizonei berriro) Zertarako etorri dira antzerkiaren ateetaraino? Zertarako asaldatu nire pakea eta marmor zurizko zerraldoaren gainean hasi dute dantza odolezko hori? Zertarako, baina zertarako nahi ote naute? Nire laguntzan deituko nuke oihanaren sapa guztia.

II GIZONA.—Baina, ez al duzu konprenitzen? Ez al duzu konprenitzen? (ileak laztantzen ditu) Ez du batere konprenitzen.

I GIZONA.—Ez du batere konprenitzen. Gizon eta andre, andre eta gizon, maitasun triumfalaren epo-peia, maitasunaren garaipena (Autoreari) Munduak gogoratuko zaitu, merezi duzu.

AUTOREA.—(Haserre) Sugeak! Zuen mihien pozoi-az hamaika elefante hil liteke. Leihoan zehar sartutako beleak besterik ez zarete. Baina orain, a orain, bada-kusat hain argi zer egin behar dudan, zer egin be-harra nuen eta egin ez nuen. Orain, zeren horrela nahi baituzue, antzerkiaren leihoa hertsiko da, pu-blikoaren arnas nazkagarri hori ez zaigu gehiago helduko, eta kristalaren trabes ikusi ahal izango dute, gaituzte, eguneroko antzerki egizkoa errepre-sentatzen, bizitzen. Teilatuak oinkatuko ditugu, es-paloiek estaliko gaituzte, eta munduak amorruez, amo-rruz egingo du negar.

III GIZONA.—O, ez, o ez, hori ez.

I ETA II GIZONAK.—O ez, hori ez. O, ez, hori ez.

III GIZONAK.—O, ez, hori ez (hirurak pasaiatzen dira urduri)

AUTOREA.—O, bai, hori bai. Otsoek ekaitzetan ze-harkatuko dute su izpiak jaurtiz begietatik. Leiho batek zekarkatu gizona amets mundu batetik itzu-liko da betirako, eta ordutik aurrerantzean hostia zaskatuzko mihiak, lur zuriaren gaineko xagu zu-rizko aginak, basoko sutezko ile luzeak etorriko zaizkizue enaren kabietatik.

(Gizonek elkarri begiratzen diote harriduraz. Esta-tuak bezala gelditzen dira. Autoreak berenganatu, taba-ko ahokada bat bota, eta ezkerreko muturrera abiatzen da, handik desagertzen. Gizonak mogitzen dira herriro oso urduri leku batera nahiz bestera)

III GIZONA.—Jaunak, ez da hau arazoa.

II GIZONA.—Jaunak, kalatxorien gernua buru gai-nera erori zaigu. Kalatxoriak pix egiten ikustea, bai ederra dela egunsentian, baina hainbat bider

- ahalegintzen dute buruak behera botatzen teilatu gorritsuetatik.
- II GIZONA.—O, baina egian diotsuet, honen erruduna murrailen sofrimendua duzue. Ez da hau arazoa. Ez, ez!
- II GIZONA.—(I Gizonari) Setiatua gaude agertoki honetan. Setiatuta in the beautiful morning of the world (erosta urragarri batez) O, setiatuta!
- III GIZONA.—Leioa hertsia izan da. Hemendik aurrerantzean eguneroko antzerkia bizituko dugu. Ala geure buruei tiro bana emango.
- I GIZONA.—(supituki negar eginenez) Ai ene! Zer egin publikoarekin, zer egin sepultura hilara hauekin, haizea galdutako lore zimel hauekin. Ai ene! (kolpe batzuk entzuten dira dekoratuaren leihoan. Gizonak berari begira asaldaturik. Kolpeak errepetitzen dira. Gizonek elkarri begiratu berriro. Kolpeak entzungo dira behin gehiago).
- III GIZONA.—Bai? Nor da? (besteei) Nor ote da?
- AUTOREAREN AHOTSA.—Autorea dago, mesedez?
- III GIZONA.—Ez, o, ez. Autorea ez dago. Ez da autorerik hemen.
- I ETA II GIZONAK.—Ez da autorerik hemen.
(Leioa zabaltzen da oso oso poliki, bitartean eta Richard Strauss, en «Así habló Zaratustra» delako melodiaren hasiera entzuten da. Azkenean, eta leioa guttiz zabalik, Autorearen burua ereinotz koroaz)
- AUTOREA.—Autorea, mesedez?
- II GIZONA.—(antsiaz) Ez dakigu oso ongi. Esan ziguten ezen, bere seme-alabak itsuturik utziz gero, beste desertu bat eraikitzaera joan zela betirako (bere lagunei) Ez al da egia, egi guztia eta egi bakarra?
- III GIZONA.—Baina itzuli omen zen. Itzuli omen da hibairik gabeko zubitan zeharkatzen (Autoreari zainalatzan dio) Itzuli omen zara, baina zergatik?

(Melodia entzuten da berriro. Autorea sartzen da leihoan zehar eta gizonei hurbiltzen zaie. I Gizona bes-teen atzean ezkututzen da beldurti. Autoreak ereinotz koroa hartu, lurrera bota eta ostikoperatu egiten du)

AUTOREA.—Zaldiek soinu eginaratzen diete beren tronpetei. Hasiko gara orain. Hasiko gara.

III GIZONA.—(zalantza batez) Has gaitezke (beste-teei begiratzen die) Hum, has gaitezke.

I ETA II; GIZONAK.—(besoak altxatuz) Miseri-kordia!

AUTOREA.—Nahi duzuenean.

(Laurak estatuak bezala gelditzen dira. Argiak piz-ten doaz banan banan. Ilun egiten den neurrian oihala erortzen da poliki)

BIGARREN KOADROA

(Agertokian bi aldamio, ez altuegiak, zaldain batek komunikatuak. Batean Agnete, eserita eta soineko guztiz zuri eta luze bat jantzen. Bestean Primigenius, aldamioan zehar pasaiatzen pentsakor bezala, edonola jantzirik. Dekoratuak urdin zurbilez izan behar du, palmera zuzen batzuk lehen planotan agertzen)

PRIMIGENIUS.—(bere buruarentzat) Ene hodei berdezko begietako andrea. Ene bekainetako suzko andrea. Ene udaberriko gereziondozko ezpainetako andrea (zizpuratzen du) Bihar ere maite izango zaitut lumazko eurite baten azpian eta kotxe apartatuen klaxonek laztanduko gaituzte. O, maite zaitut zeren zure ahotsa gauero etortzen zait ametsetan txirla gorrien gainean asapalan eginez (Agneterenganantz bihurtzen da. Honek ez du ezer entzuten eta eserita eta lurrari begira irauten du) Agnete! (be-soak zabaltzen ditu) Agnete! (honek ez du entzuten, eta Primigenius ek zaldaina zehartzen hasten du geldiro) Agnete!

AGNETE.—(burua altxatuz) Primigenius! Zu zara gizona zeinen pausuek ez dute hotsik egiten hostoen gainean. Eta ni andrea zeinen pentsamenduak kuxtulozko ekaitza bezalakoak dira. Ohe inguruan errondan zabiltzala begi bat zabalik espiatzen zaitut bizkarrean mila eguzki sentituz.

PRIMIGENIUS.—Agnete! Agnete, ene karamelu hitzezko andrea, ene txoriarraina teilatu gainean hegalarari. Ongi lo egin duzu?

AGNETE.—O, badakizu, nire gizona, badakizu oso ongi lo egiten dudala nire espazioa itsasoa bezain zabala delarik. Amest bigunak izan ditut bart (bestaldera begira gelditzen da)

PRIMIGENIUS.—Baina, Agnete, ote nintzen ni amets hoietan? Ote naiz ni zure ametsetan oinarrizko parte bat dena? Agnete, oso pozik nengoteke baldin...

AGNETE.—(hitza ebakitzen apur bat krudelki) Ez, parkatu Primigenius, baina ez! Nire ametsetan aurpegirik gabeko pertsonak agertzen dira. Askotan, ondartza luze baten harean eseritzen direla minutoak jaten dituzte etorkizunaren zai (tristuraz) Baina hurrengo goizean esnatzen naizenean etorkizuna ez zaie oraindik heldu.

PRIMIGENIUS (urduri) Baina, haien artean al zaude zu?

AGNETE.—Uste dut baietz. Bestela, nola ulertu ezen beren ezpain muturrek nire izena marrazten dutela eta amodioaren plazerrak eskeintzen dizkizatela?

PRIMIGENIUS.—(Agneteren ondoan eseritzen da. Bere ahotsak mindu dirudi) Orduan, Agnete, ez nauzu amets egiten, eta gainera antsietate sesuala ere agentzen da. Zer esan nahi didazu horrekin? Nik maite zaitut, Agnete, nire maitasunak ez du mugarik ezagutzen.

AGNETE.—(sumin) Primigenius, Primigenius, zure katea oso gogorra da. Zurekin bizi nazi, hori nahi dut eta. Baina zu ez bide zara nire Unibertsoa. Inguruko mundutik bakartarazi nahi al didazu? Zu gabe nire eguneroko bizitzan zulo bat nabaritzen dut. Zurekin, preso bat bezala, batzutan. Zutaz amets ere egin beharko nuke?

PRIMIGENIUS.—(eskale) Agnete, eta, eta zure bizitzatik desagertuko banintz? Goizeon, esnatzean, zure ondoan ez nengoela ikusi bazenu?

AGNETE.—Negar egingo nukeen. Baina nire ametsaren maindireaz saiatuko nuke malkoak lehertzen.

PRIMIGENIUS.—Eta hodeia banintz egunsentian? Haizeak daraman hodei bat?

AGNETE.—Ni orduan euri finak bustiriko belarra.

PRIMIGENIUS.—Eta, eta, mahai gainetik erortzen ari den esne tanto bat banintz?

AGNETE.—Ni orduan katuaren mihi arrosa. Poliki edango zintudake.

PRIMIGENIUS.—(kontent) Eta muxika bat banintz? Zer zinateke muxika bat banintz?

AGNETE.—Ni orduan marfilezko agin bat zure azala urratuz (bortizki) baina ez, orduan haizto bat nintzateke. Haizto bat naiz. Nire zerebroa haizto arriskugarri bat da (negar egiten du).

PRIMIGENIUS.—(damutsu) Zergatik, baina zergatik ematen ote didazu oinaze hau. Zergatik, maite nauzula, ez zatoz nirekin eramango zintudakenaraino? Zuk gauzez amets egiten duzu, nik egunez, eta atsegin duzu nire ametsok ebakitzten. Zergatik izan zaitzateke hain krudela niretzat? Kitarra banintz hatzazala zinateke, edo hobe melodia, baina hariak ebakitzten dituen, ebaki ditzaken haiztoa!!

AGNETE.—Abesten duzunean hodeietan zehar jarraitzen zaitut, baina zu lurreratzean nire gogoa izar arrosa batetik eskegi gelditu ohi da. Zure hitzak paperaz idatzirik irakurtzen baditut perfekzioaren autopistek ez dute jadanik sekreturik niretzat, baina ondoren ohe bakar horrek irauten du isil isilik. Andrea naiz ez besterik eta amargurazko mendeak oro ordaindu behar ditut. Arraroa da, berez, ezen, arranoa bazina, sabela urratuko nizukela?

PRIMIGENIUS.—(zutiturik) O, Agnete, bihotza eba-
kitzen didazu, zure hitzak bai haiztoak direla. Bizi-
tzaren aurpegi krudela erakutsi nahi dut idazten au-
dalarik, sentimenduen malkoez abesten dut, baina
zuk amest faltsoetan bizitzen nahiago duzu (besoak
zabaltzen ditu) Zure ingurura begira ezazu! Mun-
duak egunero zeharkatzen du gure ondoan sua eta
ura nahasiak barnean eramaten dituelarik. Eta ban-
derak desarrapatuen oinpetan datzate.

AGNETE (altuki) Haizkora har eta hegalak ebaki ie-
zazkidazu! Zomorroak etor daitezen haietatik leri-
keten malkoak miazkatzera. Ttu egiten dizut, Primi-
genius, ez baitzaizu bat ere gustatzen beste mun-
duetz amets egin dezadan.

PRIMIGENIUS.—Hola nahi duzu? Agur orduan, ez
dugu zer gehiago egiterik elkarrekin. Azeriak ba-
rrena aurkituko dut gero eta maitasun gehiago, aur-
kituko ditut beren gauak belarrez erretzen dituzten
jendeak. Agur. (aldamiotik hasten da jeisten)

AGNETE (Larritua) Nora zoaz? Nora zoaz?

PRIMIGENIUS (eskailera erdian) Ez nauzu joateko
nahi?

AGNETE (ahots ahulez) Ez, ez joan. Eta zure poema
bat bihurtuko banintz?

PRIMIGENIUS (eskailerak jeitsiz bukatzen) Orduan
ni ere bihurtuko nintzateke poema. Baina hori ez
da posible, nire poemaz ez baduzu sinisten.

AGNETE.—Ez niri zehatu! Ez joan niregandik!

PRIMIGENIUS.—Eta txori migragilea bihurtuko ba-
nintz?

AGNETE.—Orduan ni zuhaitz adar fresko bat iluna-
barrean.

PRIMIGENIUS.—O, Agnete, Agnete, maite zaitut.
Horrexegatik egin dut muxika hezur bat biontzat,
gure leihoan goizero biltzen den garoa erabiliz. Mai-
te zaitut!

AGNETE.—Nik ere maite zaitut. Horrexegatik diotsut, bizi eta utz nazazu amets egiten. Bakarrik horrela biziko gara elkarrekin.

PRIMIGENIUS.—Itxaron, Agnete, itxaron. Errealitatea erakutsiko dizut eta hain gogorra izango zaizu, ezen zure aginek dardara egingo dute arbolen adarraka egunero hausten direla ikustean.

(Ezkerreko aldean hiru gizon sortzen dira, bilutsik, luma multikolorezko kapa bana daramatelarik. Buruan txori maskara bana) Bakoitzak ezpata altxatzen duela eskuan, ezpatadantza aire bat dantzaka hurbiltzen dira. Aldamioen aurreraino heltzean, bertan geratzen dira dantza amaitu arte. Agnete, belaunetan jarririk, aldamio ertzean asomatua dago hobeto ikusteko. Dantza amaitu ondoren, txori-gizonak guztiz geldirik egongo dira)

PRIMIGENIUS.—(Agneteri) Agnete, ene bihotza, bitartean eta zu ametsetan zauden, nik nirea ez den izerdi bat sofritzen dut, leihoan zehar espiatuz. Izerdi bat zein eguneroko dantzariei, perla beltzen arrantzaleei dagokie. Hori konprenituko bazenu, txoriarra bihurtuko nintzateke betirako.

AGNETE.—(apur bat ikaratua) Berriro ere, o Primi-genius, egiten didazu otoitz. Konortea galdu behar izango dut gorputzik gabeko gizakiak ametsetatik irten daitezen, bai, ametsetatik irten daitezen zuri demostratzeraz ezen, hemen erakusten didazuna ez da zeure ikuspegi baizik, dantza falikorik garbiena. Lurretik altxa zaitez! Amest egiten ez badakizu, galdua zaude (zutitu eta eskailerak jeisten hasten da) Baina memendu batez ni neu joango naiz zure lurrera, zure errealitatera (heltzen da zolaranio eta hiru txori-gizonak astintzen hasten dira urduri. Agnetek beren aurrean igaroten du, eta haiek segitzen dute eskuineko puntaraino. Hemen Agnete gelditu, eta bihurtzen da) Hauda. Hau gogo garbia, zurea!

Zure pentsamenduak oso gardenak zaizkit, persekutatzen naute nire hegalak ebakitzeko betirako. Oso argi dut desio duzuna, baina astirik badut nahiko, zuregandik ihes egiteko.

PRIMIGENIUS.—(Beste puntatik eta altu) Joan, ihes egin hori nahi baduzu. Maite zaitut baina are gehiago ere nire burua maite dut. Eraiki egingo dut mundu bat non bakarrik ni biziko naiz. Gau guztia egon naiz negarrez zure arto ilearen gainean, baina orain katea beltz bat fundituko eta harekin zeilatuko dut liburu berri baten azala. (Lehen txori-gizonak zintzarri bat atera eta eragiten du. Hondoko dekoratua erditik zabaltzen da oihan ilun bat agertuz. Euri gogor bat eta oinaztarriak. Batera, ezpatadantzaren doinua entzuten da berriro, eta txori-gizonak hasten dira dantzatzen)

AGNETE.—(zoraturik inora ez korrika eginez) Primigenius, Primigenius non zaude? (oihartzun sakon batez entzun behar da hau. Primigenius lurrian datza, eta hiru txori gizonak, bereganaturik, hartu bere gorputza eta desagertzen dira agertokitik. Ezpatadantza doinuari Mikel Laboaren «Bereterretxeren Kanta» delakoaren bigarren parteak jarraitzen dio, eta Argnete gelditzen da dantzatzen. Bapatean Autorea sortzen da, eta Agneteri esku bat harturik, korrika eramaten du agertokiren puntatik puntara)

AUTOREA.—Berde da lainoa, berde da kea. Berdeee!
(parre krudel bat bota egiten du)

AGNETE.—(oihukatuz) Primigenius, Primigenius, non ote zaude!

KOROA.—(agertokiten atzekaldetik entzuten da)
Mila ta bederatzireun ta berrogeita hamazazpi... hamazazpi...hamazazpi...zu gazte sentimental...hamazazpi...zu gazte sentimental...zu gazte sentimental.

(Autorea eta Agnete desagertzen dira. Koroaren ahotsak geldituz. Argiak gorritzen aritzen dira pixka pixkanaka, eta koroa amaitzean oinaztarriak geldituko dira bakarrik. Zapi beltzeko euri bigun bat. Oihal geldoa)

HIRUGARREN KOADROA

(Hondoko dekoratua mendi elurtsu bat da. Apur bat eskuinaldera eta margotuak ere, multikoloredun bi bandera, haizean ozkatuz. Agertoki ezker alde guztia gaztelu baten hondamendia da. Erdigunean Agnete, lehenago bezala jantzia, harri baten gainean eserita eta bere ile luzea orrazten)

AGNETE.—(abestuz) Izarrek izerditzen duten pena
bakarrik umeak uler lezake
zintzilik harean izpiak daude
zein bakarrik sentitzen den
[poeta

ametsen egilea
bide konstruktorea
etorkizun ontzi gainezkatua

(zutitzen da eta pausu batzuk egiten ditu, geldiro, hondamendirantz. Bide erdira gelditu eta zizpiratzen du) A, Primigenius, zergatik (zizpiratu berriro) Eguna eta gauaren arteko guduan, nork ote du irabazteko eskubidea? Ez, ez da bidezkoa benetan. Biok hil beharko genukeen. Bi sasiainko, berak zakilarik ez balu, neuk ankatarteko zulorik ez banu! Horrexegatik ezin izan genuen gauetz orroi dagiten otsoen aurka borrokatu.

AHOTSA (menditik etorririk) Bila ezazu egunsentian
mintzo diren zuhaitzen lorratza. Bi zuhaitz freskok
irabazi behar dute beti.

(Agnete oin muturrez jartzen da eta belarria zolizten du. Hola egongo zenbait segunduz)

AGNETE.—(jarrera normala errekuaturik) Eta esne apela miazkatzen duten katuak, zer egingo da haiekin? Bi ez da beti bi, energia transformatzen da noiz behinka.

AHOTSA.—(algara batekin) Josi itzazu aginak lurrean eta zure gogoak hegal beza.

AGNETE.—(urduri) Horrek esan nahi du...ohe epela ahaz dezadan esan nahi du?

(algara entzuten da berriro, baina ez dago erantzunik. Agnete eseritzen da harrian, orratza eskuetan eta pentsakorra. Abesten)

Gau tximeleta mezu hau eraman
esploradoreari enbor hutsetan
tristuraz kargatu itsasontzi bat
lehorreratu dela kostaldean
esaiozu arren gau tximeleta

(Tronpeta bat entzuten da, «El silencio» delako melodia joz. Agnete zutitu egin eta tinko-tinko irauten du errespetuz-edo entzuten. Eskuinaldean sortzen da general prusiar bat melodiaren erritmoaz desfilatzen; uniforme urdin, buruan kaskoa luma tontor batez; gerritik eskegi sable luze bat. Melodia amaitu ondoren Agneteren aurrean jarriko da, militar agurra eginik)

GENERALA.—Good morning, milady, comantalevú?

AGNETE.—(gorputza aurreratuz) Nola? Parkatu, ez dut ulertzen.

GENERALA.—(eztul egiten du) God morgen, buenos días (zabu egiten du) egun on!. Bai, egun on, printzesa. Zeren zu, gaztelu honen printzesa zara, dudarik gabe.

AGNETE.—(irripar batez) Ez, ez, ez, ez naiz halakorik. Nire ilea orrazten nengoen, ni...(eskuarekin keinu bat egingo, jakintzat emanik ondorengoa)

GENERALA.—(zurturik) A, uste nuen...parkatu, andre gaztea. Ejen! Zure baimenarekin, nire burua aurkeztuko dizut. General bat herri baten bila nauzu (kaskoa eskuan eutsiz, men bat egingo dio)

AGNETE.—Eta ni Agnete naiz, gaztelu hau mendiko elurretik zaintzen duena.

GENERALA.—(zizpiratuz) Beti nahi izan dut gaztelu zaindari bat ezagutzea. Utz iezadazu eskua mun egiten (hartzen dio eskua eta mun egiten dio)

AGNETE.—(ahots ahulez) Kezkarazten diazu, o jaina (beste aldera begiratzen du) Jakin behar duzu. Egia esan, gaztelu hau ez da esistitzen, ameslarien gogoetan baizik. Eta zu ameslaria bide zara, gaztelua ikusi baituzu. Nola, orduan, uniforme hori jantzen duzu?

GENERALA.—General bat herri baten bila nauzu. Horrexegatik uniformeaz jantzi naiz. Herri bat nahi nuke zuzendu azken garaipenerarte (ahotsa altxatzen du) Erregeak eta enperadoreak nire oinpean, herriaren oinpean nahi ditut, eta beren odolaz igaliondoak haziko dira sendo. General bengatzailea naiz.

AGNETE.—(antsietatez) Baina, generala! Zu ote zara ausart hori nork liburuetan erakusten ditu historiaren agin zorrotzak. Zu ote zara beti aurrera doan gizona, begi hausgarriena baina harkaitz bezain esku gogorrena.

GENERALA.—Ni naiz lerro tartean irakurtzen duena (begirada beheratzen du) Eta zu, gari garaun hoiekin lepotik behera eskegiak, zu nire iraultza zara (sablea bainatik ateratzen eta sartzen hasten da)

AGNETE.—Generala, o Generala! Ez, ni ez nauzu general baten iraultzarik. Begirada txiki eta bihotz handiko generalek egiten dute iraultza...eta beren luma bakarra, iraganaren ekaitzak ebakitzen dituen da. Egiazko iraultzan, denak dira generalak.

GENERALA.—Orduan, general baten herria, general-
letako herria izango da (besoak zabaltzen ditu eta
ahotsa goratu) Baina ez, general-letako herri bat
teatro klasikoa bezain laster hilko litzateke. Ez, ni
soldadua naiz, soldaduetako, herri baten bila doan
soldadu bat (lurrera bota egiten du kaskoa, unifor-
meaz gabetu berehala, eta kamiseta eta praka labur
urdinez agertuko) Orain berria nauzu, iraultzaren
eguna heldu da niretzat (dantzaka hasten da)

AGNETE.—Baina ez. Ahaztu ote duzu zure herria?
Iraultza hasi da gaur gu biontzat, baina ez dugu
amaitua ikusiko, sekula ere ez! (esku bat jartzen dio
besoan) Lagun dezagun iraultza gure amestekin.

GENERALA.—(emeki) Arrazoa duzu. Baina sablea
eramango dut, mundu honekin dudan lotura baka-
rra baita. Bakarrik ametsez itoak gin-ateke igel us-
telduen zingiran.

(Minuetto musika. Dantzatzen hasiko dira era ero-
tiko batean. Primigenius sartuko da eskuinaldean)

PRIMIGENIUS.—Azkenean, Agnete nire begi au-
rrean! (bihotz-ikaraturik) Heldu zitzaidan zure me-
zua, o Agnete, tristurazko metro koadratu batean
ontziz nihoanean. Gau tximeleta musika kutxa bat
bihurtu zen nire eskuetan, eta zure ahotsa entzunez
gero hegal egin zuen Etiopiatik etorritako hodeiekin
batera. (Agnetek eta Generalak jarraitzen dute dan-
tza, ezer entzun gabe) Agnete! Ni nauzu, Primige-
nius! (ez dute entzuten. Primigenius, orduan, sal-
toka hasten da erritmoa segituz, eta agertoki guztia
zeharkatzen du gaztelu ondoraino heldu arte. Mu-
sika bapatean ebakiko eta dantzariak geldituko dira
itsumustuan hartuta. Primigenius belaunetan ero-
riko da) O, ifernuak, beranduegi, pozoin zaharra-
ren putzuak zabaldu dira. Orain lurraren esklabua
naiz, eta sua ihes egiten zait begietatik (aurpegia
lurraren kontra eta eskuen artean izkutatzen du)

AGNETE.—O, Primigenius, (negar egiten du) Kateak hautsi nahi genituen elkarrekin. Zin egin genuen hibai baten zumen ondoan amodioa egin genuen behin. Orain hibaiak bere norabidea aldatu du. Be-tirako ote?

GENERALA.—Ez negar egin gehiago (burua laztan-tzen dio) Egin zeure iraultza. Ez jo atzera orain.

AGNETE.—Baina, akaso, ez duzu oraindik ulertzen? Maite dut Primigenius. Berarekin ere egin nahi dut nire iraultza. Berak ere egin behar du iraulta! (Pri-migeniusi hurbiltzen zaio. Bere ondoan belaunika-tzen da) Primigenius, Primigenius, maite zaitut, eta horregatik diotsut orain, salta dezagun putzua, liliz estal ditzagun gure hezurrak.

PRIMIGENIUS.—(ahots itoz) Eta zurekin dagoena, ilargiaren mandatari da agian? (burua altxatzen du)

AGNETE.—(beso batetik eutsiz) Nire iraultza hasten da gaur. Berarekin eta zurekin. Maite zaitut baita bera maite dut ere. Gaur, sentimenduen artzaina naiz, eta zuek nire ardiak.

PRIMIGENIUS.—(zutitzen da) Hamaika karrika ho-tzetan zeharkatu, meagile izan urre bihortzaren bila, ozeanoak itsasoratu ditut. Orain behar dut, baka-rrik, amest ondartza bat.

AGNETE.—(pozik eta zutitu ondoren) A, Primige-nius, a (Generalarengana doa, eskutik hartu eta Primigeniusengana eramaten du) Orain, maite de-zakegu indar guztiekin. Orain, marmorezko harre-sietan idatziko dugu bere izena, libertatea, askata-suna, eta ondoren musuz estaliko ditugu, pozez ne-gar egiten dugularik.

GENERALA.—Egun bakar baten perfekzioa. Hori da nahikoa niretzat.

PRIMIGENIUS.—Eta gauaren perfekzioari buruz? Eguna ez da gaua, eguzkia ez da ilargia. Era be-

rean, maitasuna ez da iraultza, eta sofrimeduagatik bakarrik konpreni izango dugu bere mamia.

AGNETE.—(Altu) Primigenius, maitasuna da irautza-
ren bidea. Maitatzen dakiena, gorrotatzen badaki,
zeren sua eta ura derrigorrez elkarrekin dira bizi
lur hondoan (pausu batzuk ibiltzen ditu) Haizko-
larien oihana, kristalezko txoriak, o amorantearen
bakartasun urdina (bere jantzia bapatean urratzen
du, bularrak libre utziz) Hiltzea, hiltzea, hiltzeko
bizitza eman beharra dago.

(Ahots eta makila zarata entzuten da agertokiaren
atzekaldean. Gizon andere batzuk agertzen dira makile-
kin eta altuki elkarri mintzatzen)

I GIZONA.—Belatzen nomadak gara. Ar gualosteak,
lokatza bihurtzen estatuaren oinak. Herri bat gara
general baten bila, eta gure begietan gorrotoa kobre
sugeak bezala agertzen zaigu. Nortzuk zarete zuek?

AGNETE.—Gu? Sagutxoa zehatu duten hiru, zaldi
beltz. Etorkizunaren mugaren zaindari ixilak. Hiru
pertsone beren iraultza egiten.

1 ANDREA.—(pizturik) Begira, begira ezazue, sable
bat darama! Zu zara gure generala!

GENERALA.—(artegaturik) Ez, jende onak, ni ez
nauzue generalik (Agneteri begira) Sable honek
amodioa adierazten du, amodio karnala. Gaztetan
banihoan biderik bide herri baten bila, eta artean
bortxatuen erresurrekzioaz zinizten nuen ere, baina
orain badakit, eta hemen diotsuet. Maite ezazue in-
darrak agortu arte, eta orduan ez da aterik izango
zuen bultzadari jarkitzeko gauza denik.

2 GIZONA.—Orduan, non dago maitasuna?

GUZTIAK.—Bai, non dago maitasuna?

PRIMIGENIUS.—Nik, amorante naizelakoa, esan die-
zazuket (mendiari zeinaltzen dio) Mendi hori iga-
roz gero, zazpi itzaletako harana aurkituko duzue.
Hartan datzate hondamendi aintzinak, hantxe ber-

tan bizi dira kalatxori zuriak beren maitasunak arratsaldero erreparatzen. Joan zaitezte eta haiei galdetu sandalo loreaz (zizpiratzen du)

1 ANDREA.—Gure eskeletoek zazpi argi dute.

2 GIZONA.—Eta beren ondoan zazpi begi urdin.

1 GIZONA.—Joan gaitezen. Zein arinen joan, hain arinen bihurtuko gara, maitasun eta gorrotoz kargaturik, ezpatak eskuetan daramatzagularik.

(Pertsonai guztiak hasten dira abesten)
Goazen mendirik mendi
uholde gartsua
ogiaren argiaz
hildoa egitera
trena poliki dator
geldituko ez da
arroka biguna da
eta ura gogorra

(Abesten dauden bitartean, Autorea sortuko da gazteluaren dorre puntan, bere pipa erretzen. Abestia amaitu ondoren, jendeak joaten dira eskuinaldetik. Autoreak algara botatzen du. Agnetek ta Generalak harritu begiratuko)

PRIMIGENIUS.—Hotz nago. Azaria eta haiztoa. Hainbat mende datza nire lepoan.

AUTOREA.—Bakarrik poetak ezagutuko nau, zeren ni mendi atzeko ahotsa nauzue (pipa ahokada bat bota egingo du)

AGNETE.—Mendi elurtuak, banderak haizean, historia zaharra baina oraindik ere gure bihotzetan (mendiari zeinalatzen dio) Noiz zeharkatuko ote dugu honen zubi luzea!

AUTOREA.—(parre egiten) Bai, bai, hainbat ekintza arrastaka eraman behar duzue. San Francisco zaldunak ekaitzan, Maiatzak 68, Burgos 70, Gazteiz be-

launaldi madarikatua zarete eta nik hona ekarri zaituztet publikoak zuen odolaren murmurioa entzun dezan beren buruetan erortzen delarik (azken hitzok publikoari zeinalatzen duelarik)

AGNETE.—Hala bedi. Orduan, egin dezagun bidea, zapal ditzagun tabernetak ontzi hutsak. Iragan egingo dugu, eta zuek, sortzaileek ere iragan egingo duzue gurekin batera. Egin dezagun bidea behin batez (ibiltzen hasten da poliki. Elkarren segidan, eta erreskadan, Generala eta Primigenius. Agnete eta Generala gaztelupean desagertzen dira, baina Primigenius ate ondoan geldituko da estatua bezala. Oihala)

LAUGARREN KOADROA

(Argo more zurbil bat. Agertokiaren mutur bakoi-tzean jantzi beltzeko gizon bat txorta piztuak eutsirik. Erdigunean haizkolaria bat, alkondara eta praka zuriz, gerriko gorritz, enbor baten gainean haizkorakadakaegiten. Publikoari ematen dio lepoa. Mementu batetan gelditu eta enborretik jaisten da. Bere aurpegia zuriz dago makilatua)

HAIZKOLARIA.—Argia! (altuago) Argia!

(Argi zuri bat sortzen da izkina batetik hondoko hormaraino, gurutzifika handi bat lur eta hormaren kontra sostengatua erakutsiz. Gurutzifikan Kristo, bilutsik, arantze urdinez koroatua)

HAIZKOLARIA.—(Kristori) E zu, horkoa! Beti espiatzen egon behar al duzu? (Ahots murmurio bategi hitz hauek laguntzen ditu) Zure erruagatik hiru haizkora apurtu dituzte azken bolada honetan. Azken mende honetan.

KRISTO.—(ezarraz aldatu ondoren) Ez zaitut espiatzen. Sinpleki, hemen nago. Zeren eta hilda eta bizirik nago batera (txalo salba bat. Txistu entisiamatuak. Kristok keinu etorkor bat egiten du eskuaz) Hilobian enzerraturik nengoenean herria ikusi nuen nire bularran igaten, eta beren oinen amargurak zeharkatu ninduen. Ezin nuen suportatu.

HAIZKOLARIAK.—Beno, beno, ez niri esan zure arazoaz. Ez al naiz ni langile gizarajo bat? Ez al dut nik ogia irabazten neure izerdiaz? Milaka mendetan zehar ez da keja bat ere egon nitaz (enborrari zeinalatzen dio) Nire lana guztiz garbia da, eta ez dago nire eskutik eskegita hilzorikoen sofrimendua. Nire lanaren ondoren gertatuko zaiena, zerorren arazoa da! (azken hitzok hatzamar salakor bat astinduz)

KRISTO.—(zizpiratuz) Jainkoaren bideak astun, oso astun dira benetan. Egia esateko, gizon bat salbatzera etorri naiz hona. Bere ordua ez da oraindik heldu, baina berak ez bide daki (isiltzen da) Egari naiz (txaloak berriro) Jauna, Jauna, poetak erahiltzen ari zaizkit! (txaloak eta braboak beroki)

HAIZKOLARIA.—Erabat zoratuta zaude, laguna. Gisa hoetan alperrikoa da zurekin mintzatzea (burua astinduz enborrera abiatzen da, eta lanari jo egiten dio berriro. Ahots murmurioa entzuten da berriz, gero eta altuagorik, itsasontzi sirena entzuten den arte. Eskuinaldean general baten bila dagoen herria sortuko da, astiro eta astunki ibiltzen. Haizkolaria-
ren ondoan pasatzean, gizon bat zerraldo eroriko da haizkorakaden erritmoa segituz. Besteak geldituko dira)

1 ANDREA.—Erori da.

1 GIZONA.—Bai, erori da. Baina ezin dugu geratu (guztiei begira) Bide egin behar dugu, adiskideok, etorkizuna dago gure zai (Elkarri begiratzen diote zalantzaz)

KRISTO.—(dei egiten) Seme alabok, nora zoazte? Nondik zatozte?

1 ANDREA.—Nor zara zu, galde egiten diguzuna? Akaso eguzkiaren mugazaina?

KRISTO.—(ahots sakon bat aukeratuz) Kristo nauzue,

bide ertzean dagoena eta zuek bidean baitzaudete, aurkitu nauzue betirako.

2 GIZONA.—Ja, aurkitu dugu (besteei begira eta parréz) Kristo aurkitu dugu, lagunok. Jarrai dezagun! (Ibeltzeari jotzen diote, 1 Gizona apur bat atzean geldirik)

1 GIZONA.—(Kristori) Gure helburua geldiro datozen trena duzu, eta geltoki gutxi falta zaizkigu jandak. Geroan, belar gaiztoak atzeratzera itzuliko gara.

KRISTO.—Zure etsaiak barkatu behar dituzu, seme!

1 GIZONA.—Ez dut etsirik. Orain dela ainitz denpora bai. Baina ez nengoen artean nire buruarekin bakean. Orain ez dut inor gorrotatzen, gizonaren amodioak bultzatzen nau (lepoa ematen dio eta desagertzen da)

KRISTO.—(ahots tristez) Jauna, Jauna, hautsa miazkatu behar ote? Nire oin odoleztuak marka egin du lurrian, baina iraultzaren begien haizeak ezabatu du. Elkar maite dute benetan, zer esan niezaiekeen, ai ene? Azken finean poto egin dut eta zerumugan agertzen hasten dira egunsentiko gar gorriak (negar egiten du. Murmurio dezepzionatuak entzuten dira) Jauna, Jauna, zergatik abandonatu nauzu?

HAIZKOLARIAK.—(haizkora enborraren kontra utziko eta eta zutituko da) Umetsu ematen duzu orain, laguna. Herriak lepoa eman dizu eta galdua zaude, ezta? Baina, zure baimenarekin, jarraituko dut nire ohiko lana (etzanda dagoen gizonarengana joaten da, eta besopetatik harturik, Kristoren oinpetara eramaten du arrastaka) Eta zeuk ere egin behar duzu lan. Horra hor kliente berri bat!

KRISTO.—(altu) Argia egin bedi! (bere eskunaldea argi urdin beroz pizten da) Gizona, altxa zaitetz!

(automata bezala altxaltzen da gizona) Zeruko atea zabalik duzu, joan, joan zaitez, arin, ez galdu denpora!

(Gizona altxatu eta argirantz abiatzen da. Bapatean, gelditu egingo da)

GIZONA.—(Kristori baina lepoa ematen) Zer deabru da hori? Ez al dakizu suak ate guztiak apurtuko dituenik? Ez al dakizu, o Gi-zo-na-ren Semea, arborearen adarrak leiho guztiak bete arte zabalduko direnik? Hilzori doinua hasi da jadanik zuretzat (bihurtu eta begiratzen dio) bai, zuretzat! Deitu ninduzunean egunsentia ikustea uste nuen, baina nire oinetakoak profeziaz daude bustirik (mezprezioso keinu bat egiten dio)

KRISTO.—(besoak altxatzen eskatuz bezala) Santu, Santu, Infinitoaren Jauna, jaistarazi ezazu zure aparra inpio honen burura, harrek jan diezaiote ernaltzeko organoa betirako!

(argiak piztu-itzaltzen hasiko dira zoroki. Kanpikada ikaragarri batzuk entzungo dira eta elkarren segidan Lluís Llach «Campanadas a Morts» delakoaren koruzko parte. Gizona estatua geldituko, haizkoaria ere bai. Kristok eskuak eragingo ditu korua zuzenduz. Primigenius sortuko da eta haizkolariaren ondoan geldituko, guztik ikaratu. Azken honek, esku batetik hartu eta Kristorenganantz eramaten hasiko. Bapatean, Kristoren ondoko dekoratua zabalduko da erditik, musikaren amaieraz koinzidituz. Zuloan baso tropikal bat ikusiko, eta handik Dama sartuko da agertokian, tunika gorri bat oinetaraino jantzirik. Primigenius geldirik eta berari begira. Gero indar egiten du haizkolariarekin. Gizon hila, bere ametsetik irtenda, hurbildu eta Primigenius lagunduko du)

GIZONA.—(haizkolariari) Ez erazi lora sofritu! Hamar suge daukat nik. Beren mihiekin mezaliburu guztiak erre nitzake. Ez erazi lorea sofritu!

PRIMIGENIUS.—(ikaratua) Hau da heriotza! Hau da leizea! Gorrotoa darie ispiluei (Damari) Eta zu, bizitzako gar distiratusa, emaidazu eskua eta elkarrekin egin dezagun bidea atzera. Sumendia esnatzan ari da. (Dama ezbaian dago, baina azkenean esku bat eskiniko dio. Orduan, haizkolariak izugarriro oihukatzen du eta zerraldo erortzen da. Kristo keinuka aritzen da. Primigenius eta Dama zuloko basorantza ihes eginik joango dira)

GIZONA.—(eskuarekin agurtuz) Agur, agur, bidai on!

PRIMIGENIUS.—(gelditua eta atzera begira) Agur, hildako gizona, agur. Teilatuen gainean, familien hilotzen gainean gogoratuko zaitut.

DAMA.—(eskuarekin agurtuz) Agur, agur. Harroka baten gainean eserita nagoela gogoratuko zaitut, zure imagea orraztuz zilarrezko orratz txiki batez. Agur.

(zuloan desagertzen dira, eta gizonak hasierako era errekuperatzen du. Entzun daiteke orain haizkolariaren negarra)

KRISTO.—(arrabiatua) Zergatik egiten duzu negar, gizon ergelori? (burua altxatzen du) Jainkoaren semearen bakardadea kargako tren ilunezko ametsan. Gizon hilaren bakartasuna begirada jasangaitzan. Kale izkinen kanzerra, hau da nire azken hitza (burua tolestean du)

GIZONA.—(ezer mogitu gabe) Hil da.

HAIZKOLARIAK.—(lurretik altxatzen du begirada) Harrigarria da, benetan. Eta zer izango da orain nitaz? Egunsentian lorratz berri bat bilatu beharko dut, haizkora lepoan eskegita. Mesedez, zeinu bat egidazu!

GIZONA.—Harrigarria da, benetan. Mesedez, zeinu bat egiozu!

(Eskuin aldean ahots zarat entzuten da mementu honetan)

HAIZKOLARIA.—(ikaratua) Hor daude! Hortxe datoz heriotza berari bere harrapakina lapurtzera (Kristoren oinpetaraino narratzen da eta hor, eskuez estaltzen du burua. Eskuinaldean zarata handiagotuko da, eta azkenean general baten bila doan herria sortuko. Aldi honetan Frantses Erreboluzioaz jantzita datoz, oihukatuz eta harmekin zarata metalikoa egiten. Gizon hilaren goieran geldituko dira)

1 ANDREA.—(oihukatzen) Begira, begira, o herria! Bere odola eman zuen kamarada agertzen zaigu bide zail eta gogor honetan. Baina bere odol hau ez da alperrik izango, bere odolak odola deitzen du (azken hitzok ukabila altxaturik) Jo eta ke! Jo eta fuego!

(Herriak errepikatuko azken hitzak, ukabilak altxaltzen dituztelarik. Orduan Gizon hilak esku bat moitzen du, eta hondoko oihala zabaltzen da bapatean, Kristorengandik ezkeraldera, hiri handi eta moderno bat izanik. Haizkolaria, guztiz ikaratua, altxatu eta Kristorenganaino joanik, gurutzifikatik hartu, eta lepoan eramaten du, kale bat barrena desagertzen)

GIZON HILA.—(oihartzun sakon batez) Agur betirako, agur (txistu garratzak eta abutxeo histeriko bat, kanpotik etorririk)

HERRIA.—(bakoitzak leku ezberdin bati begiratzen diola) Agur betirako, agur! (ukabilak astitzen dituzte, gorrotoz-edo)

(txistuak eta hostikadak lurrean errepikatzen doaz, gero eta gehiago. Azkenean, Gizon Hila mogituko da, pausu batzuk ematen. Ixiltasunik hutsena jabetuko agertokian. Herritarren artetik bide egiten du agertokiaren puntaraino heldu arte)

GIZON HILA.—(publikoari zeinalatuz) Ixil zaitetze, soldadu gardurik gabekoak, hala lo egin dezan!

(murmurio dezepzionatu bat ailegatzen da kanpo-
tik, Herritarrek Gizon Hila inguratu, besotan altxatu
eta eramaten dute, zera abesten)

Goaia geldiezina garelako
tris-tras-trikitras
zatozte zatozte
buruaren burua bete bezate
historiak ahazturiko pariek
tris-tras-trikitras
tris-tras-trikitras-trikitras

(ezkerraldean desagertzen direla, oihala erortzen
da)

BOSTGARREN KOADROA

(Dekorazioa guztiz beltza. Eskuinean eta apur bat goian begi handi bat, eta goratik lurreraino oinaztarri gorri bat begian zeharkaturik. Ezkerraldean agertzen dira hiru mutil gazte, jantzi modernoz jantziak, sumin eta altu mintzatzen, baina ez da hitz bat ere ulertzen. Agertoki erdira heltzean, mutil bat bapatean geldituko da, eta buruari esku biak bota egingo)

- 1 MUTILA.—Ez, ez (atzera ibiltzen da) Ez, ez (sortua den leku berean desagertuko da)
- 2 MUTILA.—(desagertutako mutilari begira-edo) A, bai, susmatzen nuen. Badirudi gure lagunak ez duela gortin iluna jasan egin. Oso simple da lehoiak libertatean utz egitea, eta geroan bildots beldurtiak bezala inhes egitea.
- 3 MUTILA.—Bai jendeak tabernetan daudelarik. Baina, esaidazu, zein gortina erabil liteke leku batean non, herriak, ez du oraindik irautza hasi, eta beren aulkietan irauten dute gure biluztasunak ulertu gabe? Umeek ere ez dute labainarik eramaten oihalak urratzeko.
- 2 MUTILA.—Noski, noski, hau da egia! Baina zergatik kexatu orain? Ez ote ginen gu, ausartak, antzerkiari bere egia ohostu egin genionok?
- 3 MUTILA.—(kexati) A, Romeo eta Julieta aukeratu bagenu. Orain ameskaite hau amaitaraz genezake,

eta bere barrura Romeo sartuko, mintzoa galdu duen urretxindorra bezain zurbil. Baina gu tematu, lehiatu gara maitasuna kasualitatez etorriko bailitzan, eta berdin litzatekeen Titania Silfos.en erregina, eta astoaren arteko maitasuna errepresentatzea.

2 MUTILA.—Arren, zaude izilik!

3 MUTILA.—(bortizki) Ez! (Publiko imajinario bati hitz egiten bezala) Eraiki itzazue lumazko zakur bat, denporaren ataria zen zuhaitz bat eta hiru pare begi. Honekin konformatuko nintzateke betirako. Baina guk erahil nahi izan genuen historian ezkututzen den historia. Orain oso berandu zaigu atzera egiteko.

2 MUTILA.—(negarrez) O, ez, o, ez, o, ez.

3 MUTILA.—(mesprezioz) Ez zara gizon bat baizik.

1 MUTILA.—(Bapatean sartuz berriro) O, ez, o, ez, o, ez.

3 MUTILA.—Bi koldar zarete. Tunel bat egiteari uko egiten diozue, eta inoiz ez duzue hemendik ihes egingo. Publikoak nabarituko luke.

2 ETA 3 MUTILAK.—Publikoak? Non dago publikoa?

3 MUTILA.—Hortxe bertan, kanpoan, kristalean zehar ikus dezakezue (poliki doaz agertokiaren puntaraino. Jaso egiten dituzte eskuak kristal baten kontra bezala)

1 MUTILA.—(leunki) Hor daude.

2 MUTILA.—(leunakogi) Hor daude.

3 MUTILA.—(xurxulatuz) kontuz, ikusiko gaituzte.

1 MUTILA.—(altu) Ikusiko gaituzte!

3 MUTILA.—(amorrus) Kirtenori! Leihoa altxatuko bagenu odolez bustiko lirateke aurkiaz eta bere usain freskoaz segundu batez eroriko gure buruetan jendeak. Otso gosetiak bezala, otso gosetiak bezala,

otso gosetiak bezala, otso gosetiak bezala (zenbait aldiz errepikaturik)

1 ETA 2 MUTILAK.—Otso gosetiak bezala.

3 MUTILA.—(publikoari lepoa ematen eta ibiltzen) Ikusi al duzue? Maskara, maskara daramate aurpegietan, oraindik ez da irautzaren ordua heldu. Iraun dezagun, bada, antzerkian iraun dezagun. Antzerkia malko itzalduetatik sortzen da, katu basati hilezko kiratsa dauka. Bi irtenbide besterik ez dugu, antzerkian iraun egitea, ala tunel bat egitea nondik txoriz jantziak ihes egin.

2 MUTILA.—Txoriak mintzatzan direnean pertsonak ex dira jadanik arantze koroa bat. Tunal bat egin nuen beren ezpainak ohostu nahiean, eta nire hitzen soslaia erakutsi nahiean, baina publikoa eguneroko antzerkiari begira zegoen. Itzuli behar izan nuen.

1 MUTILA.—Oraindik ez da irautzaren ordua heldu (zizpiratzen du)

2 MUTILA.—Zingira ustel horretan egon beharko genuke, uso beltzak bezala palast egiten, eta ez hemen. Ihintza edan genezake gauez.

3 MUTILA.—Baina berandu da jadanik.

2 MUTILA.—Berandu da, bai, berandu da.

(Euskuineko irtenbidera abiatzen dira. Ezkerrean Primigenius eta Dama sortzen dira. Primigenius maila beltzez jantzia lepotik behera, eta Dama tunika gorri bizi batez, oinetaraino. Hiru mutilak haiei begira geldituko, beren gorputzak mogitu gabe)

PRIMIGENIUS.—(agertoki erdira sartuz) Begira, O Dama, zetarrek beren buztanak igertsu isurkaian hondoratzen dituzten mundu gorrizka hori. Begira, o Dama, aho zabal hoiak non hitzak zelatan daude eguzkiz eguzki greziar hondamendi bat sagarrak bihurtuz.

DAMA.—O, Primigenius, o, sagar banintz hortzetan

munkatuko nizuke, zazpi mila zubi zeharkatuko nituzke zure eskuen epeltasunean. O, Primigenius, arren, laztan bat eta amets itsaso bat.

PRIMIGENIUS.—(aditu gabe) Gero eta bonba gehiago. Gauna ez bide da eguna, baina nola uxatu inperfekzioa, nola konprenitu egin dudan bidearen marmorezko ormak? Ordu batez alden nezake hesura harrigarrian! Lorategian nengoen eta ixiltasuna mintzatu zitzaidan. Eskuekin saiatu nintzen arbola bat eraikitzen baina goroldioa argirik gabean hil zitzaidan ezpainen artean. Baina maite zaitut (lurrari begira gelditzen da)

DAMA.—O, Primigenius, orduan maite nauzu, orduan laztanduko duzu nire mundu txikia zure begi-izpiekin (dantza bigun bat hasten du, besoak hedaturik)

PRIMIGENIUS.—(Damaren dantza bapatean geldiaraziz) Nahika o da! Maitasuna ez da gau bat, baina gau batek maitasun guztian irauñ dezake. Zer ote dut nik adiskidantza ahalegintzen duzula? Pozoiz hil behar dut nire inguruko parasito guztia...baina ez, ezin dut, batzutan txilinbelarrak dakarzkidate eta eusten naute lanbroaren gainean. (Damari begira) engainio da maitasun hitza, ispilu hautsia. Geroran hilobian utz egingo ninduzuke berriro, guztiek egiten duten bezala maitasun garbia posible dela konbenzitu ondoren. Eta nekaturik nagoela nire zulotik irten naiz bihotzak teoria egiten dutenak gorrotatzeko biziro. (III Mutila higitzen da urduri)

DAMA.—(negarrez) Ai ene, nola estrainatu orain gorderik neukan euriz geindako jantzia? Zertarako orduan erakarri nauzu ezer eskeini eta eskatu gabe? Gaua belarrarian puzka datorkigun fantasma duzu, izan ere ilargiak hildako gizonak ezagutu ditut eta.

PRIMIGENIUS.—Erakutsi nahi didazun guztia ezagutua dut. Ilargiak basamortuen zurbildura logele-

tara eraman eta sorbaldetan marrazkiak egiten ditu izpi izoztuez. Ez niri begira, Dama, hain ongi eza-gutu desio engainakor horrekin. Ez niri begira, Dama, txikitan jolasten nuen barraskiloak gogoarazten dizkidan begirada eskale horrekin (Publikoari zeinalatuz) Samurtasuna aulki artean desagertu zen aspaldi.

(Azken hitz hauetan hiru mutilak higitzen dira. Dama ixil negarrez dago bete izkinean. Primigeniusek alde batera nahiz bestera begiratzen du)

PRIMIGENIUS.—(hiru mutilei eta antsia arin batez)
Zer egin nezake? Zer egin nezake?

III MUTILA.—(aurreraturik) Eguzkiak leunki bultzitzen ditu gela hutsetako etxeak eta bazterrean hurrei keriza ori xumeak eskeini egiten dizkie (II eta I Mutilak elkarri begiratzen diote ikaratuta, eta III, gnak jarraitzen du) Autobusek ur irakina jaurtitzen dute zubi bakartien sabeletan eta karrika hestuak kejatu egiten dira. Orain urte asko dela, o Primigenius, banekuskidan txori xarmantak zelaie-tan amodio egiten beren kanzer maskarak buztanetan eskegi.

PRIMIGENIUS.—(txunditurik) Ezagutzen nauzu. Minutu bakarra dirauen amodioa ezagutzen al duzu ere?

(Kanpoan ahots harramatza, trafikoaren zaratsaz nahasia. Primigeniusek abesten du)

Maitasuna, maitasuna,
zaldiaren irrintzia
zidarrezko tronpetaren doinua
maitasuna, maitasuna
amets zoroa, oa, oa, oa
arantze pozoitsuz beterik dago
maitasuna, gezamina
(kulunkatzen da)

DAMA.—(malkoak sikatuz) O, Primigenius, atzo lo egiten nengoela eguzkiak deitu ninduen. Nire aurrean iragan zuten ernaltze organoetz baturiko bi zakurrek, inhurri erraldoiak eta falo odoltsu batek, baina nik begiak lauskitzen nituen lasaigoan (Primigeniusen esku bat hartzen du bereekin. Honek ez daki zer egin)

III MUTILA.—(Damari) Gaztanberaz mintzatzen den arkume bat zara, baina Greziako ardo sutsua izan zintezkeen ere. Edo mahai gainean barreaturiko urrezko harea. Edo gizonez goseti den andre arrunt bat.

DAMA.—(haserre) Primigenius maite dut, fede! (Primigeniusi) Uste didazu? Baia? (Primigeniusek ez entzutearena egiten du)

I ETA II MUTILAK.—(aurreraturik) Ez, ez, ez.

DAMA.—Bai!

II MUTILA.—Hiru, hiru mutilek do iskizute haizeteak zehatzen dituela kanpainadenden albateak (jaso egiten ditu triunfalki besoak) Amen Jesus!

DAMA.—Danborra lehertu nahi didazue, zerriok, zuen begien isladaz nabaritzen dizuet. Baina ez nauzue harrapatuko (ihes egiten du ezkerrean desagertuz)

PRIMIGENIUS.—(berriro abesten)

Maitasuna, maitasuna
desparadisoaren hondakin
maitasuna, maitasunau
txikitan nahi ninduten kristau
ur hotzaren liparrean
maitasuna gosetean
otso beltzak dindilizka
zakilen zakiltasuna
maitasuna lehiatila
begietan
(kulunkatzen da)

I ETA II MUTILAK.—Xarmanta! Onderful! Tuma-txa! Oleriooo (azken hau oihukatuz)

PRIMIGENIUS.—Godot, en zai ote zaudete? Zeren, hola baldin bada, hautsa eta itxura, itxura eta hautsa besterik ez duzue bilduko. Eta beharbada ispilu beltz bat.

III MUTILA.—(eskuekin uko dagi) ez gara hoiek. Gure bidea pasilu hutsak eta agertoki odoltsuak zeharkatzen dituen duzu. Gure bizitzak minutu bakar bat iraun egiten du, baina hala ere bizi gara, bizi, alaitsu, erlauntza baten autopistak zebain txikiak eta azkarrak gabiltza bihotzik gardenenaren bila (bere adiskidei begiratzen die) Badaukagu ere kosmoaren polikromiarik sarkorrena gure eskuetan. Eta zu zara, Primigenius, bide ertzeko zutoin zorrotza. (besteei ezaugarri bat egiten die. IIgnak xiringa bat ateratzen du eta IIIgnari eskeintzen dio. Honek hartu eta Primigeniusi erakusten dio) Bazterretan hilek ixiltasun taldeak bortxatzen dituzte. Bazterretan harri preziatuzko desertuek gainez dagine, eta hona hemen, Primigenius, haizean dagoen hautsa, erraldoi oihan baten uluak zainetan.

(Primigeniusek xiringa hartu, bi eskuekin begi goieran eutsi, eta adi-adi begiraturik pausu batzuk emango ditu miretsirik bezala. Hiru mutilak atzekaldean bilduko, oso geldirik eta Primigeniusi begira. Hau lurrean eseritzen da eta xiringa beso batean sartzen du injektatzen balego bezala. Hau dena oso poliki. Mementu horretan argiak piztu eta itzali egingo dira jira-biraka, agertokian zehar. Primigeniusek eserita irauten du baina eskuak buruan alde batera nahiz bestera kulunkatzen da. Hiru mutilek txori mokodun maskara bana atera, aurpegietan jarri, eta poli poliki Primigeniusengana joango dira besoak leunki mogituz hegadak bailiran. Argien efektoarekin batera bibolin urraturen melodia bat entzun behar da. Mutilak ibiltzen hasten direla ahots

harramantza eta trafikiko zaratotsa entzungo dira berriro, bibolin melodia desagertzen delarik. Mutilak Primigeniusek ondoraino heldu diren behin, doinu honi ahots grabe eta luzatu batzuk gehituko zaizkio. Bitartean eta mutilak Primigeniusek inguruan jiraka dabilozan, honek lehenagoko joeran irauten du)

DAMAREN AHOTSA.—(oihartzunez) Primigenius, Primigenius, zure bihotzak aginkatzen nau, zure eskuak burezur bat marrazten dit sabelean, an, an, aan.

PRIMIGENIUS.—Agnete, Agnete, leioa lehertu da, odola ihes egiten zait begietan zehar, publikoa igoten zait zangoetan. Zangoetan!

(Zerutik luma gorriak euri egiten ditu)

HIRU MUTILAK.—Jauna, Jauna, beratuz urriki zaituz (zenbait biderrez errepikatu) Glu, glu, glu, txink txio, txirripitxio.

(Geldituko dira bapatean. Aldi berean argiek dantzaka, ahots eta trafikiko zaratotsa, eta euritea bukatuko dira, argi gorri lanbrotsu bakar bat geldituz. Guridi'ren «Religiosa» delako melodia entzungo da eta Primigeniusek, zutitua, leunki dantzatuko du xiringa esku batean daramalarik. Lehenago, dekoratuaren begiaren azpian ibiliko zenbait segunduz xiringa eskeiniz-edo. Bitartean mutil-txoriak ere zirkulutan dantzatuko dira oso leunki. Melodiaren azken leherketa heldu orduko belaur bat lurrean jarria beso aulki bat egingo, Primigenius belaurtan eror dadin, eta haiek altxatua izan dadin geldi-geldiro. Azken melodia konpaseetan eraitsiko dute lurreraino, guztiak etzanda, geldituz. Berriro entzungo da ahots eta trafikiko zaratotsa. Ilun egitan da)

SEIGARREN KOADROA

(Hitzik gabekoa izango da hasieratik amaieraino. Agertokia ilun. Primigenius sortuko da edozein aldean, kriseilu bat, argi zurbil ematen duena, eskuan eramaten. Jantzi beltzez jantzia egon behar izango du, ezen bakarrik bere burua eta lepoak ikusi ahalak dira. Zerbait biderrez geldituko da Primigenius, bakoitzean pertsonai ezberdin bat erakutsia izaten delarik, lehenik Agnete, eta elkarren segidan Generala, Dama, eta hiru gizon aurpegi gabeko. Inor ez da batere mogituko, Azkenean, Autorea ikusi ahal izango da, baina honek, pipa ahokada bat bota ondoren, parre santzo bat egingo du. Primigenius, izaturik, korrika desagertuko da. Dena guztiz ilun berriro)

ZAZPIGARREN KOADROA

(Hiru zuhaitz agertokian sakabanaturik. Hondoko dekoratua ilun, eta alde bietatik argi zuriak agertoki aurreko parteari ematen diote, argi-ilun kontrastea lortzearren. Elur egiten du eta haizea txisturik oso gogor)
OFF AHOTSA.—Mila desio gorrotakorrek astientzen dute negua. Urak pozoindua datozkigute. Urak.

ZUHAITZAK.—(Oihartzun egiten) Urak, urak, uraaak.

(Autorea sartzen da bere pipa erretzen, pentsakorra-edo, lurrari begira. Agertoki guztia zeharkatuko, zuhaitzei ezertarako begiratu gabe. Beste mutuarrean desagertuko da).

I ZUHAITZA.—Ikusi al duzue? Ikusi al duzue? Traidorea!

II ETA III ZUHARITZAK.—Ez, o, ez, traidorerik ez! (balantzatzen dira erritmoz-edo)

I ZUHAITZA.—Eta orain, zer egin? Zergatik ote gauden hemen?

OFF AHOTSA.—(parre egiten) Ha, ha, ha, harrizko gonbidatuak baizik ez zarete. Gurpilik gabeko bi-bolinak. Hautsa (elur egiteari amaitzen dio)

HAIZEA.—Ssst! Norbait datoor. Norbaait. Ssst!

I ZUHAITZA.—Ssst! Norbait dator (Primigenius sartuko da eskuinaldean, erdiguneraino joanik. Lurrean eseritzen da)

PRIMIGENIUS.—Zaldi beltzak irrintzika daude, sutan dira inguruko zelai gorak. Zer egin orain? Infernuan zeharkatu, hegaz egin nuen hodei gorri eta urdinenartean. Eta zertarako? Burua bota beharko nuke ala nire sustraiak lur barrurantz sar daitezen itxarongo dut? Baina, zer da hor lurrean zilarrez diztira egiten duena? (Zutitu, eta izkinaraino iristen da. Elur erditik Generalaren ezpata jašo egingo du)

II ZUHAITZA.—(zuhaitzen mintzaera erabiltzen aldi honetan) Bere burua hil lezake! Zerbait egin behar dugu!

I ZUHAITZA.—(adarrak astinduz) Ezin dugu. Ez doakigu hori. Ez duzu akaso gogoratzen gure egoera zein den hemen? Gertaerak beren ubidean ari dira.

PRIMIGENIUS.—(Adi-adi begiratzeko ezpatari) Zu zara ezpata, zu zara amaiera (zuhaitzen adarrak astinduko dira bortizki) Zu zara hiri tristen pozoina, baina sosegua erakarriko didazu (esku biek altxatzen du ezpata. Zenbait pausu eman noragabe. Zuhaitzen adarrak gero eta bortizkiago astinduko dira. Azkenean, Primigeniusek, erabaki supitu bat hartzen bezala, bere sabelean sartuko dunezpata, eta zerraldo eroriko kexu zurbil bat bota ondoren)

II ZUHAITZA (histerikoki) Esan dizut! Esan dizut! Bere burua hil du! (III Zuhaitzak negar egiten du. I Zuhaitzak adarrak astintzen urduri, ezer erantzun gabe eta lepoa ematen IIgnari)

HAIZEA.—Ssst! Atsedean har dezala Primigeniusek! Atseeden!

I ZUHAITZA.—Baina, dena dela, zerbait egin genezake gero! (Haizeari) Haizea, joan eta eramán berri triste hau mendi guztien gainean eta zubi guztien azpian, joan eta esan: Primigenius lotan dago betirako.

HAIZEA.—(hurrutiratuz) Joango naizzz, joango naizzz (hau errepikatuz gero eta hurrutiago ezer ez ulertu arte)

III ZUHAITZA.—(oraindik ere negarrez) Gogorra da, lagunak, oso gogorra. Ezin nezakeen imajina honen bukaera krudela (tristeki, adarrak makurtuko ditu)

I ZUHAITZA.—Bai, baina sendo izan behar dugu. Bukaera heldu da, honek esan nahi du libre egongo garela, laster.

(Ezkerraldean Eguzkia sartzen da. Zuhaitzen atzekaldean geratuko da)

III ZUHAITZA.—(alaituago) Begira, begira, Eguzkia etorri da. Eguzkia gauzez! Miragarria, benetan!

I ZUHAITZA.—Estupido! Eguzkia etorri dela gauzez zerbait ilun ekarri du. Libreak gara, libre gaude orain bertan, Autoreak ez da oraindik agertu, arin gaitezen, halegia.

II ZUHAITZA.—Bai, joan gaitezen ahalik eta arinen, zerbait gertatuko dela susmoa dut (irtengo dira zuhaitzak, ahal duten bezain arinak).

HAIZEA.—Eguzkiaaa, taberna hutsetako erregea! Eman zure hitzaaa.

EGUZKIA.—Sar bitez!

(Agnete eta Generala sartzen dira, irripartsuak eta txantxetan. Mementu batetan, Primigenius ikusiko dute lurtean etzanda, eta Agnetek, bere izena oihuka eginik, beregana korrika egingo du)

AGNETE.—(belaunetan erortzen da Primigenius besarkatuz) Primigenius, Arren! (negar mingotsa egingo du bere gorputzaz Primigeniusena estalis)

GENERALA.—(apur bat nahasia) Ez du jadanik elur egiten. Eguzki ederra dugu, benetan (Agnetek erantzunik ez. Mementu horretan Eguzkia jautsiko da, bere barnetik Autoreak sortuz)

AUTOREA.—(Agneteri) Ez egin negar gehiago, Agnete. Historia hasten da, orain bertan hasten da.

AGNETE.—(Autoreari) Historia! Historiak ez du balio jadanik, Primigenius gurekin ez egonik.

GENERALA.—(sendo) Ez, arrazoia du Agnetek. Zer egingo dugu orain? Gure iraultza erdibitu da, hasi baino lehen.

PRIMIGENIUS.—(burua altxatzen du) Ez uste, Generala. Ametsa amaitu ondoren, iraultzak hasi behar du orain bertan. Zeure ezpataz hil ditut parasito guztiak. Orain guztiz garbi nauzue (zutitzen da) Joan gaitzen (Agnete besarkatzen du. Generala hurbiltzen da, eta lepoan txalotu)

AGNETE.—Joan gaitzen.

GENERALA.—(pozik) Jon gaitzen.

PRIMIGENIUS.—Hori, bada, joan gaitzen.

(Joaten dira. Autorea zenbait segunduz egongo da haiei begira, Geroan, bere pipa aterako eta erre gabe, pentsakorra geldituko da, inola ere mogitu gabe. Hiru gizon sartuko dira, lohikartzekoz jantziak, eta isats bana eramanez. Elurra ekortzeari jotzen diote. Bapatean, batek Autoreari begiratuko dio)

I GARBITZAILEA.—To, ikusi al duzue maniki hori?

II GARBITZAILEA.—Zein? A, hori, baina hobe dugu ez ikutzea. Norbaitek eramango du geroago.

(Hitz hauk estaen diren neurrian, oihala)

THE END



AURKIBIDEA

- Jose Antonio Arkotxa Martija.*—”JOXE-MARI-TARRAK” 7
- Junes Casaneve Harigile.*—”PETTE BASABÜRÜ” 79
- Joanes Urkijo Beitia.*—”ETA BEHARBADA ISPI-LU BELTZ BAT” 141





1065582
HU-028/59

